

Hegats

Literatur aldizkaria

23/24



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hegats

Literatur aldizkaria



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

IDAZKUNTZA-KONTSEILUA

Burua: Andolin Eguzkitza
Kideak: Iban Zaldúa
Kirmen Uribe
Maite Gonzalez Esnal

Diseinua: Txema Aranaz
Maite Gonzalez Esnal

Maketa: Lamia
Curia, 25-sotoa. 31001 Iruña

Euskal Idazleen Elkarte

Zurriola hiribidea, 14-1. ezk.
20002 Donostia
Tel.: 943-27 69 99. Faxa: 943-27 72 88
P.E.: eie@altavista.net

ISSN: 1130-2445
L.G.: Na-359/90

Literaturbideak:

Miren Agur Meabe. <i>Ihesaren kantua</i>	9
Denis S. Miles. <i>Laguna</i>	21

**1998ko Galeuzca Galizian
Literatura eta arte plastikoak**

Jon Alonso. <i>Zirriborroak eta txorimaloak</i> . (<i>Literaturaren eta pinturaren arteko intersekzioak</i> .)	55
Itxaro Borda. <i>Artea eta literatura, Uztaro lantegiaren adibidea</i>	74
Hasier Etxeberria. <i>Tura galduen bila</i>	78
Josu Lartategi. <i>Arte plastikoak eta literatura: erakusketa bat eta ohar bat</i>	85
Anjel Lertxundi. <i>Ohartxoak Galiziara bidean</i>	90
Joxan Muñoz. <i>Hitzen egonezina</i>	95

Kritikabideak:

Josemari Isasi. <i>Sukaldaria. Literatura. Historia eta futbola</i>	105
---	-----

Liburu-iruzkinak:

SIRDAR IKBAL ALI SHAH. Jon Baltza.	123
HENRI BOREL. Jon Baltza.	128
KEPA ALTONAGA. Ricardo Gomez.	133
JOXEAN AGIRRE. Juanjo Olasagarre.	138
ANDONI EGAÑA. Iban Zaldúa.	143

Literaturbideak



Miren Agur Meabe

Dennis S. Miles

ISPILUA

Joan zihoan adinaren anforan behera,
irristaka urteen kartzelan barrena.

Larruzaleko tolesturetan istorioak zituen,
betazpjetan sekretuak.

Baina haren buztinak eta memoriak,
elkar maite zutelarik,
sorginkeriak asmatzeari ekin zioten,
biek bietara.

Hara: eder-gazte irautekoa.

Ukendua egin argazki zaharren errautsez eta jario epelez,
(hala nola listu, malko, ur lubriko, izerdiz...).

Ukendua arreta handiz eta lau-lau zabaldu esparru debekatuen
gainean,

geruza zuri baten itxuran.

Alabaina,
erreginari,
nostalgiaren arrakala bioleta ireki zitzaion damuen azaleran,
eta biraoa bota zuen,
eta erregu egin zion sormenari formula berriak diseinatzen
lagun ziezaion.

Baina une hartan
ispiluan islatzen zen emakumeak isil-mutu zirauen.

GAINERAKORIK EZ

Piztia urdinak ostendurik zeuden,
arrak isilik haren gorputzaz haraindi,
ilargiaren aldiak zazpi milatan zazpi aldiz ugaldtu ziren
besteren bekatuen testigu.

Gainerakorik ez.

Erreginaren odolaz harantzago izozturik geratu zen
neskatxa zeneko taupada nabarmena,
lagunminaren belarrira murmurikaturiko txutxu-mutxuen
jostaketa.

Eztia eta haragia oroitzen zituen,
auskalo zergatik;
helduaroaren aldare itsuan,
amodio-purutasunaren patena garbia,
lanbrotua zuelakotz-edo.

KODEA

Bestelako kodea aldarrikatu nahi zuen:
hitzarena ez bezalako kodea,
hizkera ez-hitzezkoa,
oroimenean kondentatu ezineko lengoaia,
zinak gezurta zitzakeen berbakera,
erreklamazio-libururik eta tarifa-zerrendarik gabeko mintzo
mutua,
mezu anbiguoz itxuraturiko jario askea,
adierazi nahi ez denaren adierazpidea.

PLAZAKOA

Jainkosa baten ahalmenaz,
aldika, iluntasuna arakatzean,
inurririk beltzena ikus zezakeen
harririk beltzenaren gainean
gaurik eta beltzenean.
Alaren begien antzo.
Ilunabarra zen eta
dorrean zegoen.
Baina malko bat ikusi zion masailan behera,
hantxe, behean, urrun,
plazan zegoen beste emakume hari.
Ez zekien nor zen.
Eta ezaguna zitzaion erabat.
Zuziak pizturik zeuden,
jende-aldra itzaltsu,
oholtza gaineko koblakaria
zu pertsonan jokatzeko ari zen amodiozko baladaren aditzak.
Erreginari ernegarri zitzaion kantu hura,
ez baitzen musika-tresna elektrikoen zale.
Plazako emakume hark, ordea,
esker onez zegien negar.
Malko harixe erreparatu zion erreginak
eta loeza gaineratu zitzaion.

OIHUA

Ihesaren irrikaz etzanik zegoen,
amets ilunen sabeleko letargia horizontalean.
Ihesa zekusan, zuri:
mana-errazio bat zirudien,
oparo eta jori
maluta antzean erortzen mugarik gabeko espazioan.
Erremusina tentagarria.
«Ihesa! –dei egin zion oihuka–.
Milurtekako hegazti hezkaitz horrek,
har nazazu hutsean,
bortxa nazazu,
eraman ihesi zure hego gardenetan esna,
beltz honetatik
ahantzurarantz.»
Telebistaren pantailan txingorra ari zen
goizaldeko lauretan.

ERREGINAREN HERIOTZA ETA PIZTUERA,
BERAK KONTATUAK

I

Mugalde hartan ahots bat bizi zen.
Ahots horrek labanaz xaxatzen ninduen
isiltzen nintzenero.
Txunditu egiten ninduen, hain zen inozoa.
Azipiratu egiten ninduen, hain zen ekina.
Loa ere galazoten zidan amesgaiztoaren burdinartean.

Deabruak eta aingeruak irteten hasi zitzaizkidan ahotik
elkarri jipoika,
aharrausi egiten nuen bakoitzean:
hasperenak etsai nituen gozagabetasun mugagabe hartan.
Eta ahots hura isildu ez:
«Miren! Miren!
Errukarria zu!
Tu eginen al diozu zure hitzaren hitzari,
zure erditzerik ederrenaren lili zuriari?
Dohakabea zu!
Katea lodia mereziko zenuke idunekotzat,
iltzez egitea zulo-zauriak,
zulo-zauriak kare biziz betetzea.
Amen. Amen. Amen».

Inguruan sugarrak ikusten hasi nintzen
eta basurde eme erotuaren gisa alde egin nuen,
antxitxiketan eta gonbitoka.

II

Urkatu egin nintzen gurbitzaren adarretik.
Ile-adatsak begitartea estali zidan;
kulunka-kulunka ninderabilen terralak
–orain bira-erdi sortalderantz,
orain mendebalderantz– gozoro.
Eguzki amandreak mun egin zidan brontzezko izpiz
itsasoaren sabelera bihurtu aurretik.
Lasai ere lasai nengoen,
bihotza inurriturik neukan arren,
eguneroko ametsaren ogia lizunak jaten hasita
eta hutsaren itzala kurika.

III

Apatx-hotsa sumatu nuen orduantxe,
haitz-lerrotik astrapalan, nireganantz-edo.
Lur-trokoak belar gainean zabalduz zetorren
amorratu antzean norbait.
Gudaldi ostean zelaia zaurituz bezala,
halaxe bete zitzaidan barrua uste txarrez.
Oi, oi, oi, tristezia neurea!
Ingurutzoka zebilzkidan erroi zaharrek ere
burua biratu zuten,
erne, zer ote zen... dardarati bezain zorrotz.
Beste emakume hura zen zaldizkoa:
neure beste nia.
Eta niganatu zelarik,
ezpataz soka jo eta zerraldo erori nintzen zuhaizpera.

Odolbatua dut bekokian oraindik.
Hari zor diot kordea.
Ohantzean nagoelarik,
zapi finez estali nau osorik;
idunean soka latzak egin horzkada
ez da ikusgai.
Teleskopioa erosiko dugu hurrengo merkealdietan.
Satelite birakariak ortzian beti ere betikoan.

ITZULERA

Itzuli eta berreraikitzeari ekin.
Erregina ihesean alde egina zen,
urrezko soinekoak eta pitxiak lagata jauregian.
Lasterka joan zen,
suteak oro hartuko zuelakoan;
guztia utzita, baita seme printze ttikia ere sehaskan bertan,
Ordea, itzuli da,
errautsaren usain gazi-gozoari usnaka,
ilinti-txingar artean alderrai,
zerbaiten bila bezala burumakur,
zorigaitzaren lelo makala ezpainenetan.
Menderatu egin du hutsaren ukaldia
eta badator, itzuli berri da
lehenago etxe zuenaren aurrietara.
Sarri gertatzen zaio.
Ez pentsa estreinakoa denik.
Orain isilaren mintzoa du lagun,
iratzargailua entzuten duenetik
gaueko hamaiketan zarama-poltsa atari aurrera jaistetik
itzuli bitarteko betibat horretan.

ERABAKIA

Pentsatu du
utziko dituela poemak
bestelako erlikiekin batera;
ahaztu eginen dituela
iraganeko eskapularioen artean;
baztertu eginen dituela
giltza polit txukun batekin,
agur eta agur egin ondoren.
Pentsatu du
ez dagoela sagraio sekretuagorik,
ez dagoela gotorleku menderagaitzagorik
–poema edozein delarik ere–
folio-tamainako gutunazal itxi bat baino
(batik bat ordain-agirien kaxoian gordez gero).
Izan ere, poemak ere badira ordain-agiri:
erreginak denborari erpeka egiteko eskubidea zor die,
egiak dakarkion oinaze-pittintxoaren truke.

DENNIS S. MILES

Laguna

Ingelesatik Andolin Eguzkitzak itzulia eta moldatua.
Izen bereko eleberriarren lehenengo kapitulua.

I

Sybelt House-ko administrazio-bulegoko atea giltzaz itxi dute ene atzetik. Bidaizorroa eskuan, arnasa egin dut atsedenez. Orain libre nago eta biziak gidatzen nau.

Sarrera nagusiko iragarki-ohol batetan ohar bakar bat:

BILATZEN DA: BERAREN ADOREAN AXUKATUA IZATEKO PREST DAGOEN GIZABANAKO IRUDIKORRA, 30 URTEKO GIZON ELBARRI BATEN ARDURA HARTZEKO. JAIEGUNIK EZ. ZUZENEAN GALDE EZAZU MERCIE ERREPIDEKO 44AN, DOI-DOI REPRENCE-TIK KANPO.

Oharra iragarki-oholetik kendu dut eta sakelean sartu.

Nik neuk baietz esatea erabaki dut. Wren-go trengeltokirainoko tarte laburra egin dut eta txartel bat erosi.

Ez, inork ez nau begiratzen. Ez naiz nabarmentzen, nahiz eta ene iraganaren iragarki-ohol bat bezala senditzen naizen. Reprence-rako trenean ariniketan sartu naiz. Ikustaileak txartela hartu dit. Jezarleku batean jarri eta bidaizorroa altzoan ipini dut. Daukadan guztia nirekin dago, beraren barruan. Orain naizen guztia bertan dago.

Trena ibiltzen hasi da. Banoa. Bidaia hasi dut. Ikusingurua atzerantz higitzen da niganantz eta nigandik. Dazagudana uzten ari naiz, eta haatik nirekin geratzen da.

Halako arlote bat naiz erroak hartzera doana. Reprence. Bertarra joan eta atzera etortzeko kontua izan daiteke.

Elbarri bat. Gauaz heiagora egiten duen norbait. Nirea gainditzeko duen esperantzagabezia. Ezpain bihurrietatik sorturiko inkoherentzia, zozokerietarako zizekadura. Ulertzerik ezak alaturiko begiak. Amorrualdi baten hil eginen nau hiltzeko bere nahikundeetan musturra sartzeagatik. Nigana zuzenduta, itaundu eginen didalako, hain segur, zergatik, eta zergatik, eta zergatik? Zergatik? Galdera horrek azken bortxapen bat bezala erasotzen nau; eta hilda uzten bortxaturik.

Gizabanako bat bilatzen da eta ni halako bat naiz. Ez gizonik, ez dute gizon bat eskatzen. Ez da esperientziarik behar. Ondo. Ez dut hortaz gezurrik esan behar. Nire garuna anestesiaturik izan da. Dudan guztia arras oroimen lainotsua da, hagitz lainotsua, eta hori ozta-ozta jo daiteke esperientzatzat. Ene bizitzatzat jotzen den den delako horretan zehar erratzeko astiro ibiltzen naiz. Reprence-n gaude jadanik. Bilatzen da. Hain baita on bilatua izatea. Literalki hartzen dut ahal dudanean. Zein irudikorra naizen. Eta erantzuna bizirik iraun dudala da. Askoren erronka gainditu dut. Erreferentziarik ez da behar; horrek esan gura du orduan, nahi dutena hartuko dutela. Jomuga aurrean, aurrez aurre. Reprence. Beste toki batzuekin loturiko lekua da, badakit, mapan ikusi dut. Norbaiten kontu hartzearen esperientzia beharrik ez.

Trena utzi dut. Kilikaturik nago. Urduri senditzen naiz. Etxea aurkitzearren presatzen naiz. Mercie errepideko hauts zuriak egiten dudan urrats bakoitzaren hotsa itotzen du. Ibili nabil. Egurrezko etxe zaharkitu baten aitzinean gelditu naiz. Egunsentiaren ondoko argi ahularekin etxaurreak arrea dirudi. Hain berandu atotsiko naute?

Etxeak hiru solairu dauzka. Atartetik noa eta ate nagusian jotzen, zarataren emaitzaz ez guztiz seguru.

Itxaroten dudan bitartean ingurua begiratu dut. Zuhaitz kanakailuz beterik dago. Gizon bat gabardina batekin jantzita eta betaurreko beltzekin atartearen aurrean gelditu da eta nire presentziak gogait eragin izan balu bezala behingoan alde egin. Isiltasuna sendo somatzen da airean. Berriz ere jo dut. Atea zabaldu da eta barruan sartu naiz. Itxura dotoreko gizon baten aurpegia ikusi dut.

—Zer gura duzu? galdetu du. Oso luze geratuko zara? Ez beldurrik izan, ez daukagu zakurrik.

Iragarkia erakutsi diot. Eskukeinu batez egongelan sarrerazi nau. Ez naiz bertan gustura senditu.

—Jezar zaitetz, jezar zaitetz!, diost berak. Henri Moss naiz, Henri esan behar didazu. Milkis-en aita naiz. Milkis da elbarritua. Izan zaitetz, mesedez, nahikoa mazal gertatzen den guztiari ohar-tzeko. Milkis abisatuko dut. Oraintxe nator atzera.

Gelan sartzen den argia izpiliku-urdira da. Kanpoan, lotan baleude bezala, zuhaitzak bakez makurtzen dira. Lasaitu egiten naiz. Hain baitago dena bare. Erlojuak zazpi t'erdia jo du. Goitik urrats presatuak entzun dira. Orain Henri-ren oinetakoei egokitzten zaizkie.

Gizon txikia da, eta duina. Guztia: urdin. Beraren begiak, beraren jantzia. Begien ondoko azala eta daukan ile apurra. Ahur-rak eta hatzazkalak ere urdin dauzka.

—Ez zaitez inoiz maitemin ez bazara oraindik maitemindu, diost Henri-k elkarrizketa bati segida ematen bezala.

—Pertsona irudikorra, irudikor eta zogia behar dut, semearen kargu hartzeko. Neure emazteaz, Zora, ni neu arduratzen naiz, eta bera noski nitaz. Berak eta biok janariak prestatzen ditugu eta erosketak egiten. Bera etxeko behesolairuarekin arduratzen da eta ni goikoarekin. Eta zu, enplegua ematen badizugu, Milkis-ekin arduratuko zara. Orduan dena izanen da zen bezala, eta inoiz izan ez den bezala. Ostera ere, bakea egonen da etxe honetan, nahiz eta inoiz ez den etxe honetan bakerik egon. Badakit guztiak oso trankil ematen duena, baina hori kanpaldetik da bakarrik.

Niri begiratzeko atsedean hartuta, begiak hertsireki ditu eta segitu du.

—Milkis-ek lantzean behingo inkontinentzia sufritzen du eta beste gaixotasun batzuk, gaixotasunak ez direnak; ez dio ardura baina, konturatu eginen zara. Ohitura bereziak dauzka, errituak, jokaera teatralak. Gura dituenak egiten ohi ditu, desmasiaraino eta oraindik harago. Arduradun bat behar du, jostailu bat. Adiskide bat behar du, erizain bat, lagun bat. Lanpostu hau abentura ikaragarria izan daiteke. Arriskuak ere badauzka. Sariak dauzka. Biak aurkituko dituzu, ni nauzu jakile: zeintzuk izanen diren ordea, ezin nik asma. Hemen egondako azken orduan ordainduko zaizu. Enplegatutik zaudenetik ez duzu pausalekurik ezagutuko. Zure lana ene semearentzako itzala izatea da, eta itzal horren iturburua. Esan dizudanak ez bazaitu epeldu, Milkis-ekin egon zaitzke. Berarena da azken hitza.

—Interes guztia daukat.

Matematikoki bezala egin du bira eta badoa.

Txunditurik nago. Apur bat nahastuta. Zuhaitzak begiratu ditut leihotzarretatik. Eskuak igurtzi.

Henri atzera dator eta Milkis berarekin dago.

—Milkis, hau da... Zure izena, mesedez, itauntzen dit Henri-k.

—Morgan Knaise, diotsot totalka.

—Ondo bada, hor daukazu. Nik orain utziko zaituztet. Doitasunez egiten du bira eta badoa.

—Den dena baimenduko didazu. Baietz esan!

Milkis-en begiek erregutzen didate.

—Bai, diot nik automatikoki.

—Ez duzu inongo juzkurik eginen, ez nire egikerez ez eta nitaz ere. Ezetz esan!

—Ez.

Ez hori, lapurreta bat egin ote dudaneko galderari erantzuten banengo bezala murmurikatzen dut.

—Oso gogorra zara. Ariketa astuneko orduak eta orduak pairatzeko gauza zara. Baietz esan!

—Bai.

Ihardesten duena ni ote naizen zalantza egiten dut.

—Ez daukazu zergatik minduta senditzerik aginduak, kortesiaz baina zuzenean, ematen zaizkizunean. Ezetz esan!

—Ez.

Halako kinka larrian edo aurkitzen naiz.

—Zure egikerak zure berbeekin egokitzen dira gehien bat. Baietz esan!

—Bai.

—Ez duzu ustekabeen alde eginen ni eta ene aita iraintzeko moduan. Mesedez ezetz esan!

—Ez, neure burua higituz erantzuten dut.

—Ez zara bidegabeki anker. Ezetz esan!

—Ez.

—Normalean ez duzu elbarri baten motelduraz abantailarik hartzen. Lantzean behin oso aztoratua geratzen naiz. Esan ezetz!

—Ez.

—Aita, enplegatutrik dago, oiheu egiten du ahots goraz, oso goraz.

—Zatoz! diost berak.

—Sukalderaino eroanen zaitut zeredozer jan ahal dezazun.

Pasabide batetik narraio eta sukalderik argienean sartu naiz. Arasa batetik saltxitxa bat hartu du eta zati bat ebaki. Beirazko platerean, ogi zati batekin eman dit. Mahai borobil eta handi baten ondoan jezarri naiz. Gainean daukan zamaua fantasiaz dago brodatutrik. Edalontzi bete ardo eman dit, eta botila jarri du ene ondoan, mahaigainean.

—Zure bidaizorroa hartuko dut eta zure logelan utziko. Amaitu duzunean liburutegian ikusiko dugu elkar. Liburutegia pasabidearen bukaeran, egongelaren eskumatara dagoen atea da.

Ni konturatu gabe joanda dago. Aringa aringa jan dut, astiro. Gustiz nago nekaturik.

Jaten amaitu dudanean, edalontzia eta platera harraskan garbitu ditut. Sukaldea utzi dut liburutegia aurkitzeko asmoz.

Atearen aurrean nago zutik. Larri nago barruan idoro dezakedanaz. Ia ez entzuteko moduan jo dut.

—Zatoz, egin du hots barrutik Milkis-en ahotsak.

Bolizko krisket bat biratu dut eta gela izugarri baten barruan sartu. Paret guztiak apalez beteta daude, eta apal bakoitza azkeneraino dago liburuez gainezka. Atearen kontra paratu naiz eta eskena begiratu. Alkimista zahar bat bezala, basanimalia antzeko izaki hori, lekutik kanpo, idazmahaiaren ostean dago, jezarrita. Beraren aurrean grabatuliburu ireki bat. Aurpegia zabala dauka eta angeluarra. Beraren begiak orrialde batetik bestera higitzen

dira guztiz azkar. Hain bortizki nagokio beha, ezen alditxartzen hasi bainaiz. Eskuak oso era deserosoan dauzka zabalik idazmahaiaren gainean. Ahaleginez, eta sentsualki orobat, esku bakoitze-ko zaintxuri eta zainak azaletik gailentzen zaizkio. Sakon egin dut hasperen konortea ez galtzarren. Arranpa baten erdian sartu izan banintz bezala senditu naiz eta inguratzen nauen indarrak zatikatu izateko banengo bezala.

—Banator zugana, xuxurlatu dit. Azala kirimalatu zait ilearen azpian. Erantzun gura diot, baina zelanbait ez naiz gauza.

—Hona, diost liburua bultzaturik idazmahaian zehar.

—Irakur iezadazu berbarik ez daukan liburu batetik.

—Zabuka noa libururantz, literalki. Eskuetan hartu eta gero, badirudi liburuak lasaitu nauela. Orrialdeak pasa ditut. Izan ere liburuak ez dauka berbarik. Izenburu guztiak beltziturik daude. Kausitu ditudan irudiak groteskoak dira. Bi orrialdetan zehar, eta hirugarren baten, eskena beldurgarri bat aitzineratzen da. Izurritea da, beharbada. Gerla bat. Edozein gerla. Jendalde bat ikararen batetik ihes egiten ari da. Erraietaraino eragin nau dakusadanak. Orrialdea pasa egin dut. Zaldiak emakume batzuk jaten diharduten haurren gainean ohondikatzen ari dira, emakumeok gizon zahar biluzi legenardunak sodomizatzen ari direla, berauei zintzurak, zaldien gaineko gizonak lantzez zehartzen dizkieten bitartean.

—Ez irakur zeuretzat, egin dit agirika.

—Eta ez ezazu hori irakur, buruz dakit.

Ostera ere orrialdeak pasa ditut.

—Horixe, horixe. Irakur iezadazu hori, deiadar egin dit berturik, ene gustuko inongo toki berezia ez dena.

Hasieran jakin gabe zer esan irudia begiratu dut erabakiortasunik ezaz.

—Berriro ari zara zeuretzat irakurtzen. Biontzat irakur dezazun nahi dut.

—Irudi hau...

—Ez dio hori, moztu dit.

—Gizon baten ilea erretzen ari dira beraren inguru, alde guztietatik, dauden zaldun batzuk. Zuziak arras argi diren garrekin daroez. Gizon bat eta emakume bat gurutziltzatzen ari dira tontorrik hurrunenean. Beraien oinetan sugeak daude, gurutzetaraino herrestatu direnak. Sugeen pean otzara batzuk daude, eta otzara bakoitzean ume lepamoztu bat. Mozturiko lepoetatiko odolak bozatutako eta estekatutako gizon eta emakumeak izterrondoetaraino zutik daudeneko ibaia osotzen du...

—Irakuriezadazu beste bat. Hori oso poetikoa zela uste nuen, edo osterantzean zu ez zara bat ere irukurle ona. Aita, ai, horra noredonor berbarik gabeko liburuak irakurtzeko irudimen eder batekin.

—Zu ona zara? ausartzen naiz.

—Ez zabiltz horretatik libratzekotan, ezta?

—Ez, jakin gura izan dut bakarrik.

—Hagitz ona naiz horretan, baina neuretzat egiten dudanean orduan hoberen egiten dut.

Orri batzuk hostokatu ditut azkena bezain groteskoa ez den bat aurkitzeko esperantzatan.

—Irakur, irakur, diost pairugabe.

—Leize bat dago honetan. Ostera ere sua dago...

—Non dio *ostera ere?* mozten dit eskukeinu batez.

—Arrazoia daukazu. Ez dio inon *ostera ere*, diot nik bakezale.

—Sua dago zulo baten. Leizearen sapaian milaka saguzar ema-

ten duen zerbait dago. Kobako beheko hazbete guztiak hartuta daude, jendea dago, denak, salbuespenik gabe, alatuak direlarik eta auzoko bat edo gehiago alatzten ari direla...

—Horra bizitzaren deskribaketa zehatz bat, diost lakonikoki.

—Aurrera, aurrera, errepikatu du, baina hartzazu beste bat, hori ia buruz dakit eta.

Orri bat aurrerantz egin dut.

—Burezur handikote bat...

—Hori oso ona da, gorpuzgabeturik ematen du beraren ahotsak.

—Burezur handikote bat zertzeladez beteriko zoru bizantiar baten dago. Sugedorri multzo nahasiak betzuloetatik ateratzen dira. Jende multzoak ihes egiten saiatzen ari direnetiko zuloak daude garezurrean. Beraien heiagorak entzun daitezke ia. Desespero hutsa agertzen da beraien aurpegi okertuetan. Gorputz makurtuak mastekatzen ari dira ahi bat eginez. Lingirda bezalako masa hau burezuraren beheko matrailean isurtzen da zoru pabatuan. Kasik kentzea lortu duten milaka esku arrenkari garezurraren estalkia balankatzen ari dira. Hil biziak bezala beren hobietako lauzak altxatuz...

—Nahikoa, moztu du.

—Azkenekoan hobeto egon zara, baina.

—Neke neke eginda nago, egin dut aharrausi.

—Itaun hau egitea atsegin dut: Trenz etorri zara Wren-dik?

—Bai.

—Bidaia luzea da. Nik ezin izan dut inoiz tren baten lo egin. Azkenau kadentasan larregiz esanda.

—Eskerrik asko niri irakurtzeagatik. Zure logelara eroanen zaitut orain. Nirearen hurrengo da.

Liburutegia utzi dugu eta pasabide ilun askotako batetik joanda, azkenean beste korridore baten amaieran ateraino heldu gara. Atea ireki du eta niri sartzen utzi.

—Bainugela hortxe dago, eta hortxe atzean nire gela.

Atsedean hartu du eta defentsagabeko begiratu.

—Logelen arteko atea zabalik utziko ditugu gauaz, dio tonurik serioenaz.

—Gauaz ohikoa ez den zerbait entzuten baduzu, etor zaitetz eta egidazu so. Nik...

—Zure hesteen gaineko kontrola galtzen duzu, badakit, zure aitak esan dit.

—Bai.

Durduzatua, nire aurrean dago zutunik ene oinei beha.

—Ondo zaude? Laguntzarik behar duzu? dio beraren aho-tsean somatu dudana sinkronizaziorik ezaz.

—Ez. Nekatuta nago bakarrik.

—Gau on orduan.

—Gisa bera, Milkis.

—Pozik nago hemen hagoelako, Morgan.

Beraren agurrean halako nota bat dago negargura ematen didana.

—Mila esker. Gau on, diot nik, honezkero baina ez dago gelan.

Bainu bat hartu nahi dut, baina ezin dut. Gogoeta egin gura dut batez ere. Pentsatu. Egun honetaz pentsatu nahi dut erantzten naizen bitartean, baina badakit ezin dudana. Ez dago beste aukerarik lo egitea baino. Ohean etzan naiz eta neure irudimenezko Kirsten lagunaz egin dut gogoeta. Kirsten-i idatzi nahi diot. Noiz?

Neure burua jarri dut itzala izateko eta itzalaren iturri. Lantzean behin ilunberik egotea espero dut. Baina ilunbeetan ere gerizpeak daude. Dena da itzala. Ilunduretan itzalaren iturburua bera itzala bilakatzen da. Lo egin. Lumetxa zorionsukiro biguna da. Lipar batez neure arnasa astunari igarri diot.

KIRSTEN-EN AHOTS EZIN IRUDIKATZEKOAK NEURE IZENAZ DEITZEN DIT. DARDAR EGITEN DUT. ORMA ZAHAR BATEN AITZINEAN NAGO. EGUZKIAK GOGOR JOTZEN DU. ORMAK LURREZKO HORIRIK ARGIENA DAUKA. BERTAKO BASUERLIEBE HIEROGLIFIKOAK DAZAGUZKIDAN GARAIPENEN ISTORIOAK DIRA. DENAK EZAGUTZEN DITUDALA ERE, BESTE ISTORIO BATZUK DAUDE, BESTE IPUIN BATZUK, BESTE MITO BATZUK. MITO BATEN, BERAREN SEMEA ERREGE BILAKATZEN DEN EMAKUMEAREKIN KOPULATZERA LURRERA DATORREN JAINKOARENA AZTERTZEN DUT. ISTORIO HAUEK ORO EZAGUTZEN DITUT, ETA BADAKIT FIKZIOA BESTERIK EZ DIRENA. ORMA, LEHENENGOZ ZERUA ETA GERO GORANTZ DOAN URA IKUSTEN AHAL DIRENETIKO ZULOEZ SAKAILAKATUTA DAGO. EZAGUTU DUDAN BAINA EZAGUTZEN EZ NAUEN JENDEAK INGURATUA NAGO. ADAR BATEK JOTZEN DU. ORMAREN ATZEAN IGOTEN ARI DEN URA LASTER SARTUKO DA OLDARKA. IZUA DAGO. OSTERA ERE, ORMAREN AURRERA BAIKIZ ERAMATEN EZ GAITUZTEN LABIRINTOETATIK KATUKA GABILTZA GUZTIOK. HONEZKERO, URA LUR LEHORREZKO ORMATIK HASI DA JARIOTZEN. HIEROGLIFIKOEN KONDATURIKO ISTORIOAK APURTZEN DIRA EZIN EZAGUTZEKO MODUAN. JADANIK EZ DITUT EZAGUTZEN. JENDEAREKIN BATERA, IKARAZ BETETA NABIL LASTERKA LABIRINTOKO BIHUR-

GUNE HORREN INGURUAN, BEHIN IGARO ETA GERO MEHATXU HURBILA BILAKATU DEN ORMAREN AURRERA GIDATZEN HAUE-NA. HALAKO ZARATOTS BATEZ, PLANETAREN BERAREN ARDA-TZA HAUTSI BALITZ BEZALA, ORMAK LEHER EGITEN DU. UR-OLATUA NIGANA DATOR. BADAKIT GALDUKO NAIZENA. NIRE HERIOTZA LUZEAGO EUSTEKO GAUZA EZ DEN ORMAKO HIERO-GLIFIKO BAT BILAKATZEN DA.

—Gosaria ekarri diat.

Milkis-en ahotsaz hika egiten didala, izualdi baten erdian itza-
rri egin naiz. Erratilu batekin dago nire aurrean. Ez nago bat ere errepausatua.

—Goizaldea heuretzat gordetzea onena zela uste izan diat, behar duana egin ahal dezaan. Ibilaldi bat egitera noak eta eguer-
dian edo egonen nauk atzera.

—Ondo dago hori? galdetzen diot. Ez nuke hirekin joan be-
harko?

—Eztuk. Gehienetan nik neuk hartzen diat neure buruaren
kargu. Zelan uste duk nenbilela hi hona etorri baino lehen. Laster
arte.

Nire ondoan jarri du erratilua eta badoa. Gosaldu egin dut.
Dena trankil dago. Bainugelara noa. Kaka egin dut eta bainu bat
hartu.

Neure gelara itzuli naiz. Zein zorionsukiro isil guzti guztia!
Neure jantziak ormarmairu baten jarri ditut eta barnearropak eta
galtzerdiak kontsola zahar bateko tiraderetako baten ertzean. Neure
idazteko taulatxoa atera dut, idazmahaian jezarri naiz eta idazten
hasi:

Ene Kirsten maitea:

Atzo heldu ninduan zazpiak baino apur bat beranduago. Enplegua eman zidatean. Ez zakiat zorionak merezi ditudan. Hau jauregi zahar-zahar bat bezalako etxe apurtua duk. Izugarri handia duk eta orube guztiak, izan ere lurralde osoa, zuhaitz ederrez beteta zaudek, beraz dena duk berde eta, jakina, urdin. Zeruak amaigabeak dituk. Eta lats txikiak zaudek toki guztietatik. Honenbestez, ikusinguruko ederrak. Nire elbarria halako pertsona keriatricsua duk. Atsegin diat eta antza berari ere gustatzen natzaiok. Nire ugazaba Henri Moss duk. Gizon zahar txiki bat. Oso dotore, joan den mendearen modura edo. Oso era harrigarriaz egin zidaan berba. Oraindik ez banago, ez maitemintzeko egin zidaan abisu. Ez zakiat zein den Zora Moss-en problema. Baina berarekin ere zerbait ez duk ondo ibiliko eiki. Milkis Moss, bera duk nire ardura, bitxia duk. Beraren aitak esan zidaan zelanbaiteko jokaera erritualistikoak erabiltzen dituela. Gure lehenengo elkarrizketa gustatu litzaiakeen, itaunak egiten zizkidala eta erantzunekin hornitzen. Saltxitxa, ogi eta ardoaren ostean liburutegira joan ninduan eta bertan Milkis-ekin elkartu. Hitzik ez zeukan liburu bate-tik irakur niezaion eskatu zidaan. Liburu horretako grabatuak adimen ikaragarri baten adierazpen alatuak zituan. Ankerkeriazko eskena ezinesatekoak. Ez hain ezinezkoak, ezen nik ahots goraz deskribatu behar nizkiola Milkis-i, hala egin bainuen. Milkis honek hogeitahamar bat urte edo zaukak. Txiki aldera, nire luzerakoa guti goiti beheiti. Berarengan harrigarriena begiak dituk, su urdin bi azal beltzaraneke aurpegian. Ilea atxabitxi hutsa duk. Beraren zirkinak espasmodikoak dituk. Ahotsa ondo zaukak afinatua, beraren intonazioa eta esan gura duenaren artean halako apertura bat dagoela eman arren. Hagitz hitsa iruditu zitzaidan, edo arras gogortua. Hauteman egin behar diat epileptikoa ote den, indarrezko musturgoak edo eta gutien itxaroten

denean jendeari ganibetaz zastatzeko joera ote daukan. Aitak abenturak agindu zizkidaan. Bart nahikoa menturatsua izan zitzaidaan. Etxe honetan ondo ekanduko naizelakoan nagok. Sybelt House-ko zirkuarekin aritu eta gero edozeri nauk eusteko gauza. Maite haut bihotzez. Zelan maita hazaket bihotzez? Maite haut edozelan ere. Badakik hi haizena ene familia osoa eta nire lagun guztiak denak batera. Izan ere, ni nauk hori dakiena. Estimutzen haut ni naizelako sortu hauena. Oso maite haut ene polita. Higan neure burua diat maite. Ez diat gaurkoz besterik idatziko, eguerdialdean edo gaudekek. Emily Dickinson-ek izkiriatu zuen bezala: Paper honi ematen zioat musu, hire masailak ailira baina!

Morgan

Kolpe bat. Milkis-ek ez. Henri-k.

—Semeak ez dizu ergelkeriarik eginen. Berba egin dugu. Nahikoa atsegin zaitu. Zure gela atsegina da? Orain arte egon da dena zure gustura?

—Bai, eskerrik asko.

—Ondo.

—Itaun pare bat egin gurako nizuke, Jauna, aurrera joan naiteke?

—Jakina. Egon zaitez haatik jakitun ni behar bada ez naizatekeela gauza izanen erantzuteko.

—Milkis gogortzalea da?

—Ezta. Traidorea bakarrik.

—Ba ote inongo sendagairik berak hartu beharrekoa nik neuk ezagutu behar nukeena?

—Ez. Ezta, mutila. Oi, ez. Morgan maiteori, zu lagun bat bezala izan zara enplegatua gehien bat, ez erizain bat bezala. Gure

etxe honetako gaisoak bihotzekoak dira, gorputz eta adimenduko zirrarak. Horiek dira gure hitz arruntak geure komunikatzeko ezintasunak adierazteko, beste jenderekin loturak egiteko ezintasunak. Nire bihotzak ez dauka gaisotasunik. Nire burua da, urdaila, belaunak dira, gorputz osoa lantzean behin min egiten didatena munduaren kontra. Eta niri bezala, zeurorri ere, eta Milkis-i, noski. Eta Zora-ri. Nire emaztea ez da ia inoiz gaixorik egon bizitzaren luzean, hau da, beraren gorpuzkerak osasuna gorde du beti. Beraren bizikera emozionala da irrazionaltasun guzti honen kontra karrakutzen duena, bizi garen mundu honen aitzi. Nahikoa ondo gaudelako ez gaituzte erakunde berezietan jarri. Hemen denok gara berezi, bertan luzeago zaudelarik so egiozu zeure buruari, eta begira ea diferentziaren bat soma dezakezun gurekin egoteko heldu zinenik eta aldaketarik gertatu ote den zeure buruari itauntzen diozuneko garaiaeren artean. Askatasunak askatasuna sortzen du eta askatasunetik lorturiko askatasunak anarkia sortezten. Bereziak gara eta gizarteak ezin dezake hori onar. Hau da zu etorri zareneko mundu bat. Moss gizartea. Sar zaitetz! Dasta ezazu! Ongi etorri!

Irribarre egiten dit eta nik ergelkiro berari. Zer esan berri du? Eztarria garbitzen du eta aurrera egiten:

—Milkis askatasunaren ekoizpena da. Guztiz hesigabeko hazi da. Eta aurrera segitzen du bizitzen arrunt mugagabeko. Bere bizitzan zehar beste mundu horretatik isolatua segitzeko gure nahikundeak eta guztiz ere, berorretarantz abiatu zen eta zakarki izan zen erabilia. Adostasunaren aitzi erreboltatu zen hor kanpoan, izan ere osasuntsu dagoen edozein gizabanakok ezin egin dezakeela badakien zerbait. Ondorioz, beraren kideek, beraren irakasle direlakoek, poliziak, nagusiteria medikoak... bitimatu zuten. Ezin zezakeen bere barruko artista adieraz, bere barruko haurra, mundu horretarako aski egokia zatekeen inongo eratan bederen.

Kanpoko karrika horietan egin gura zuen dantza bakarrik, munduko hirietan, ez haratuzteen bitartean bakarrik, ezpada egunero, toki guztietan. Irrigarriak txunditu zuen. Beraren portaerari emandako izenek eldarniotan utzi zuten. Munduak garaitu du. Horko zoratasun, gaiztakeria, desonestkeria, inmortalasunaren definizioak onartu zituen. Berarentzat ordurarte ezezagunak ziren definizioak. Bere lañotasuna galdu zuen. Atxilotu egin zuten, akusatu, epaitu, ero deklaratu. Sybelt House-ra mugatu zuten. Nik ez nekien deusik, gu utzi baino apur bat lehenago, hain zuzen, ardaila bat eduki genuelako. Denbora guztian unibertsitatean zegokeela pentsatu nuen nik, hala eginen zuela espero zen bezala. Berarekin zer egiten ari ziren konturatzeko adina zuzpertzenean, eta bere buruarekin zertara heldua zen ohartu, zein degradazio—eta gizatiarreztantze—muturretaraino eramana izan zen, nirekin hasi zen harremanetan. Eta agintariak berriro ondo zegoela uste izan zutenean bakarrik askatu zuten. Inoiz izan balitz bezala. Osasuntsutzat jo zezaten iruzur egiten ikasi behar izan zuen. Milkis den bezalakoarekin egokitzen ez den arren, oraindik egiten du jolas iruzur egiteko gauza delako ideia horretaz. Ez diot inoiz neure buruari barkatuko urrun zegoelarik beragaz berba egiteko harroegia izateagatik. Pairatu duen traumaren gehienari agian itzuri-eraz niezaiokeen. Ez da nire semea bakarrik. Semeak beraren segida sortze ergel eta konpultsiboan oinarritzen duen munduan erraz lortzen dira. Milkis nire adiskidea da. Neure adiskidea desertatu nuen. Neure burua barka nezake seme bat abandonatu izan banu, ene geneetako ekoizpen ustekabekoa, baina neure adiskiderik onenari egin nion ihes. Ez nuen berarekin hitz egin bost urtez baino luzeago, gogotan egon arren. Harrokeria. Eta bera, ankerra izan zen nirekin, bertan gordetzeko ene nahiaren kontra oldartu zen, segurua, gerizatua, maitatua. Nik neure odolean nezagun berari munduaz esandakoa, eta ez zidan aski konfidantzarik izan horrelako gaiztakeriarik asmatuko ez nukeela jaki-

teko. Aurkitu egin zuen hor kanpoan baina. Orain bere beharri-
zan setatsuaz damu du, niri eta bere buruari mundua nik experi-
mentatu ezbehalakoa zela erakusteko. Bost urte, ez zuen hori
enegandik merezi. Bost urteko isiltasuna. Maite dituzunek ez
dute zure isiltasuna merezi.

Beraren azken berbak munduaz asperturiko irribarre bat bi-
hurtu dira. Esan duen guztiari erne entzun diot. Aurpegiak lasaitu
nau. Beraren ahotsak baretu.

—Zuk diozu traidorea dela.

Eta neure burua gorrotatu dut itaun hau egiteagatik. Galdera
atzera hartu gura dut.

—Bai, diost geldiune baten ostean.

—Milkis haserre da bizitzarekin izan litekeena ez izateagatik.
Okaztagarri aurkitzen gaitu gu gizakiok. Lantzean behin, gizaki
ez bestetzat jotzen du bere burua gizateriaren hondarra jutzatu
ahal izateko. Zu eta biok, jakina, ez gara pertsonak besterik, eta
bere haserre gagan hustuko du. Ez zenuen zeure segurtasunaz
kezkatu behar. Hitzak, seme, badakizunez, barrabilen kontra jo-
tako ukaldirik indartsuena bezain mingarriak dira. Gu gizakiok,
ene semeak barne, noski, halako ikara desberdinak sortzeko gai
gara, hainbeste non beraiek edukitzeko nahikoa aurkibide luzerik
ez dagoela, ezta nahikoa zorrotz den irudimenik ere elkarrekin
baketan bizitzeko biderik asmatzarren. Pentsa ezazu Hiroshi-
mako bonbardamendua agintzeko erabiliriko berbez; are txarrago
baldin eta esan ere egin ez baziren, eta paper baten idatzi baziren
bakarrik. Hiroshiman sortu genuen hondamendiak ikaratzen nau,
eta Nagasaki, Nagasaki, Nagasaki... Nagasaki bat egon zela ahan-
tzi gurako banu bezala da, nahiz eta nik ezin ahantz dezakedan
Hiroshima. Hiroshiman eta Nagasakin eragin genuen honda-
mendia, giza-egitada bi, hiri bietako jendetzen gehienaren sakaila
sortu zutena; ez da inoiz, hain bizkor eta hain arradikalki era on

batez hainbeste jende uki zezakeen egitada bakar batez berdindua izan. Milkis-ek utopiaren itxaropena utzi du bazterrera. Ezerezari keinu lizunak eginez desesperoan bizi da. Bere burua hiltzen saiatzeari ere utzi dio. Etsitzea gustatzen zaio, erraten ohi dit. Etsipena unibertsoaren axolakabetasuna desafiatzen duen giza-sendimendu bakarra da. Etsitzen direnek bakarrik dute zelanedo-zelango zintzotasuna. Kontzientzia absurdu batek plazerrean esangura aurki dezakeelako ideiak guztiz harritzen du bera. Kezkati ematen duzu, Morgan. Mesedez, trankil egon zaituz! Hauek ene berbak dira bakarrik. Eta dagoeneko joanda daude. Gauzen eske-man ez daukate inongo esangurarik. Ez dago inongo esangurarik. Ez dago esangurarik, egon ere, eta orduan esangura dago, hain zuzen. Milkis-ek jolas egin nahi du, hori da guztia, izatekotan. Ene maiteori, ez honelakooi jaramonik egin. Ez nukkeen erdian sartu behar izan. Zure ondo egoteaz nengoen arduraturik soilik. Ez nuen hain luze mintzatu gura, ezta zure buruan gogoeta kezka-garririk ipini ere.

—Ez duzu benetan desenkusatu behar.

—Oi, ene plazerra izan da ordea!

Honetan hasi naiz.

—Zure axola eskertzen dizut, diotsot, eta aurrera segitu dut, beraren oharrak defentsarik gabe harrapatu izan ez banindu beza-la. —Guztiz ondo nago, eta esan duzuna arras argigarri gertatu zait. Izan ere, zuk esanikoetan askok beste batentzat ez zuketean agian inongo zentzurik ukan, beraz badakizu ulertu dizudana.

—Ondo, Morgan. Badakizkit dakizkidanak. Ez dizugu besterik gabe enplegua eman. Bai Milkis-ek eta bai nik senditu zintugun. Ulertu zintugun. Errakuntzak egin ditugu lehenago, baina egon, egon ez dago erraturik. Ez dago iraganik ere. Gurekin afalduko zara gaur iluntzean.

—Zure emaztea ere bertan egonen da?

—Oi, bai. Zora nire andreaz daukazun jakinmina gaur gauaz asetuko da. Ohartu diokezu, espero dut, egongelako kezuloaren gaineko beraren irudiari. Zein emakume maitagarria ene Zora! Zoratu egin zen Milkis-ez erditu zen minutuan. Ezin jasan zezakeen. Hartzeagatik damu duen erabakia da, Milkis sortzea. Segada zahar horretan geratu zen harrapaturik: amatasuna. Badaki espeziari segida emateak inongo ondoriorik ez duena, badaki inoiz lurraren gainetik erratu den edozein gizapiztia izatera emasabel batetatik etorri dena, eta haatik, berak, bizitza den higuingarrria ondo zezaguenak, mutila egin zuen. Ez du bere burua barkatu, eta ez du barkatu eginen, eta Milkis-ek ez du barkatu ere. Beraren erostak entzun behar zenituzkeen Milkis jaio zen gauan. Teilatu honen azpian norbait berri badagoela dakien uean ere aldi historikoa ukanen du. Beraren heiagorak entzunen dituzu, baina ez jaramonik egin. Bertan egonen naiz ni eskutik helduta. Saindua naiz, eta eroa. Honez gero berrogei urte. Irudika dezakezu? Eta badiotsut, maitasunagatik da beraren kargu hartzen dudala. Berak ere gauza bera dio, amodioaren amorez zaintzen nauala. Amodioarren. Hala da. Eta errua da, damua, ahulezia, ohitura. Nork daki. Banoa orain. Aurrera egitekoak dauzkat.

—Aurrera egi...

—Aurrera egitekoak. Gaur iluntzerarte.

Gelatik atera delarik, gurkerak egin ditu pare bat bider zehaztasunez, zirimoniaz, atzerantz ibilki. Aurrera egitea hain zuzen. Ai, hainbeste hitzontzikeria. Eta zer eginen dut nik guzti horretaz? Zein berezi den berezia.

Ispiluan Milkis-en aurpegia dakusat. Eta beldur naiz. Beraren begiek zeharka begiratu naute. Beldur arrotz eta ezagun bat senditu dut neure artean irakiten.

—Goazemak egurastera!

—Baita.

Etzetik kanpo narraio. Ondo erabilitako bidexka batetik berak gidatzen nau.

Kreatura trebea da. Beraren urratsak arinak dira lur hezean. Ibili baino gehiago jauzi egiten du. Beraren higidura guztiek imintzio erantsiak dauzkatela ematen dute. Eta berarengan ez dirudi inongo arazeriarik dagoenik horretan. Beraren besoen kulunkatzeak hatzamarren teinkatze eta desteinkatzea dakar, eta orobat ukondoaren makurdura. Hiru edo lau urratsik behin, halako jauzitto bat egiten du, edo eta luzapen erosoan. Beraren buruak begiei jarraitzen die eta beraz gutitan egoten da tinko. Hainbeste mugimendu ikusteak fisikoki nekatzen nau, beraz ikusguru jartzen dut neure ardura.

Muino atsegin bat igon dugu. Goroldio berde argiek zuhaitzenborrak estaltzen dituzte. Batzuk purpurarik argiena bezalakoak dira. Txoriek kantatzen dute. Lantzean behingo katagorria, orkatz baten bapateko antzemana. Aldaparen burura heldu gara. Gure azpian berdetzarik baino ez dago. Urrunean, mendiak toki guztietatik. Halako azpil sakonean gaude, eta zerua gure gaineko urdinezko plater alderantzikatua da. Hodei bat ere ez. Bakea bakarrik. Jezarri naiz. Plazerrez kilikatua nago edertasun ikusgarri hau dela bide.

—Gogoeta-Tontorrean gaudek, xuxurlatu du.

Lurrera beheratu eta eseri egin da.

—Hainbeste plan eta proiektu zaukaat guretzat.

Kokotsaren azpian tolostu ditu belaunak eta bere ipurtaldeak lurrean sigi-saga jarri.

—Sarritan eskatzaileentzako galdetegi bat gertatzea pentsatu diat, enplegatzen dudana pertsonak nire eskakizunak betetzen di-

tuela seguru egoteko bide bat. Lehenago egin izan diat, baina ez dik ezertarako balio. Alde batetik jendeak gezur egiten dik. Baina gehienetan guztiz errugabeki, hainbeste nahi diate eta lanpostua, edo hain baita handi maitatuak izateko duten beharrizana, hain baita norberarentzat gogorra arbuiatua izatea. Eta gainera, hain dituk berbok erabilgaitzak. Lantzean behin, berba bat ere gehiago ez egiteko egiten diat gogoeta. Hori duk guretzako planetariko bat, berbagabeko egun bat. Egundak bakarrik baina. Hitzak maite ditiat. Bazakiat ondo erabiliak izanez gero signifikatzen dutena adieraz dezaketela, edo eta inplikitzen dutena bederen. Salbu bizitza ez dela prozesu intelektual bat. Hitzetan jar dezakeguna ez beste zerbait duk. Baina hitzak dituk daukagun guztia. Neure esperientziak gorde behar dutenerako egokiak ez diren edukigailueetan sartu behar ditiat. Eta oraindik, barbarik gabe, nire esperientziak edozelan ere esan gura dutena baino gutiago adieraz zezakeate.

—Inoiz aurkitu duk heure burua perpaus baten erdian gezurretan? Ez? Ni seguru nagok egin dudana. Hori, erabiltzen ditudan esanguren kontzientzia hik baino are txikiago daukadalako marka dukek.

—Ez zagok esperientziak alderatzerik, diotsoat.

—Gairen batez uste sendoz mintzatzean gezurretan harrapatu diat neure burua. Lagun bati neure bakartadea auhendatzeaz gogoratzen nauk, eta bakarrik egoniko tokiak aipatzen nizkiola, konturatu egiten ninduan toki horietan, edo beste batekin egondakoa nintzela, edota bateren bat aurkituta nengoela bertan.

Isiltasunak segitzen du.

Azken egunaz egiten dut gogoeta. Enplegu-iragarki bat erantzun dut. Horrela egin dut oso zabalkiro irekitako unean egokitu zaidalako. Sendaturik edo, burugaisoen erakunde bat utzi dut oso txarto egon eta gero, eta zelanbait beste burugaiso-erakunde ba-

ten sartu naiz. Ezpada bertan ez dirudiela oraindik behintzat diziplina markaturik dagoenik, kamuste-sendagairik, edo beraien eta nire arteko banaketarik, ezta zaintzaile sadikorik edo eta akui-lurik. Lehenago, Milkis-en begiekin neureek egin dutenean is-piluan topo, ezin izan dut luzeago egin jakingura zela zirkunstan-tzia berriek nigan sorturiko sendimendu bakarra. Grinarekin ze-rikusia duen zerbait hasi da. Berton, Gogoeta-Tontorrean nago-ela, hagitx beldurtzen naiz, zeharo. Menpekotasunerako dudan zelanbaiteko joeraren izan naiz beti beldur. Honez gero ja, edozer gerta ere, Milkis-ekin egotearren edozein gauza eginen nukeela iruditzen zait. Nirekin odolgaitz izanen ez delako segurtasuna jasotzeak ene dardariketaren partea behintzat urtzen du. Sotilago den bortxakeriaz egin didate abisu, mendekuaz, kolpe baten argi-tasunetik harat dauden berba eta egikerez. Bala, sastagaia igaro eta gero segitzen duten heriotza-motak. Beraren errealitatea iraunkor ez duen norbait maitatzeaz naiz beldur, beraien errealitatea iraunko-rrégi zutenak nik maitatu izatea baino txarrago balitz bezala. Beraiekin ankerkeria hesigabekoa zen. Eta hirekin hemen, zer? Eta hi, zer? Milkis-i egiten diot so, orain eguzkiari begira etzanda dagoena. Mirailaren gaiztakeriaren bidez geure begiek topo egin dutenetik hazpegi horietan biztu den edertasun korapilotsuari ohartzen natzaio. Badakit honez gero berarekin kateaturik nagoe-na. Une batez dardara egin dut bortizki. Zer litzateke neure burua emanen banio, baina berak ez banindu maitatuko eta behin ka-teaturik ezin itzuriko banu berarengandik. Eta hemen nago, mai-tatzen dudana zaintzeko dirua jasoaz. Eta beraren aurpegiaren ikustea nahikoa delako ia, eta hurkotasunaren esperantza betiko, bertan geratzen naizeno behintzat. Ez itzulirikako maitasunare-gantik sufritu eta pairatu eginen dut. Bihurtugabeko amodioaga-tik, gisa honetara ederto paketatua: «Bilatzen da. Pertsona iru-dikorra...». Aurkientza horretan egon naiz lehenago, maitemin-durik nagokeelako irudikapenaren esklabotzan. Nire sendimen-

duak arrazonatzeko dudan ahalmenetik harat. Beldurretan nago, eta haatik aurpegiari begiratzen diot eta dena halako adoraziozentu lasaia bihurtzen da. Badakit ezin dudana edertasunaren jabe izan, itzurkorregia da. Berari beha egoteko beharra eman didatela bakarrik. Nire paranoia zaharra. Milkis hor dago beso bat luze enegandik hurrun, lotan apika. Guretzat egiteko daukan edozein projektutan hartuko dut parte gustura. Egunen baten honako egunoi aladuraz egingen diet so, aski luze bizi baldin banaiz behintzat, laztantasunez edo amorruez, aihergatasunez. Badakit zer den bizitza, dena iragana eta oraina baino ez. Ezin diezaioket neure buruari iruzur egin, liluraturik nago. Senditzen dudana jakinerazten diodanarte ez da Milkis eta nire artean elkarrekintzarik egonen. Egiten ez dudan bitartean ez naiz lar zaurgari izanen, behin egin eta gero neure sama edozelako labanaren menpe egonen da.

Eguzkia beherantza joan da zerutik eta nire aurpegian egiten du dirdira ia osorik. Zuzenean begiratu dut eta gero begirada kendu. Begiek begiratzen duten edozein tokitan punttu anbareak ikusten ditut. Gero urdin ilunak, ia beltzak. Gero izpilikuzkoak. Gero halako desatseginaren zentzazio bat nire betileen artean.

Milkis-ek jauzi egin du erne.

—Gogoetaldi on bat egin duk? itaundu dit.

—Bai, izan ere egin diat.

—Hau duk pentsatzeko inoiz aurkitu dudan lekurik onena. Zuhaitz batzutara igoteko prest dago.

Lurrean etzan da eta tontorretatik beherantz hasi da bira egiten. Modu berean jarraitu diot. Behean orain, bera, eta ni neu ere —irudikatzen dut—, orriz, belarrez eta azal-zatiez estalitako muntroak bilakatu gara. Barre eta barre egin dugu, azal berriak garbituz. Nire hatzamarrek beraren ilea ikutu dute.

Urtxintxa baten trebetasunaz zuhaitz batetik gorantz hasi da. Ni ere hasi naiz, baina laban egin dut eta beheraino jautsi enborra igaro eta gero, adarrez adar gorantz joateko bidea errazki egin du. Bistatik galdu dut. Hor dago berriro. Gero eta gorago eskalatzen duen bitartean, adarrak, beraren oinen azpian arriskuz hasi dira makurtzen. Jausteko dago. Igoteari utzi dio. Garrasirik ikaragarrienaz dagoen zuhaitzetik beste zuhaitz batera habaildu da. Jauzi garbi batez berdetik berdera hiruzpalau metroko tartea igaro du. Besoak zabalik egin du jauzi. Eta beraren gorputza hostaian sartu da. Tenk begiratzen dut helduleku bati oratzen dion bitartean. Tarte batez jautsi egin da eta azkenez adarretan geratu da korapilatua. Nire bihotza gelditu da. Beraren gorputza etengabe jausten eta ene oinetan lurreratzen irudikatu dut. Dena dago isil segundo batez, eta orduan isiltasun honetatik tankera honetako uhuri bat egiten hasi da:

—Auau. Auau.

Ileak lastu zaizkit. Zinkurin lehenetakoa da.

Zuhaitzerroak baino sakonagoa den tristezia. Izututa nago.

—Auau. Auau. Basoak beraren erosta entzun bide du. Ezer ez da higitu. Deusek ez du zaratarik egin. Ondoko errekaak, antza, bere urak madarikatu ditu laborriaz. Haizea beldurtu da.

Nagoen tokitik, zuhaitzen azpian, orririk garaienen berdea eta mamukio-koloreko zerua atzekalde, Milkis-en gorpuzkera lauskitua mugitzen dakusat. Bera orduan zuhaitzetik behera hasi da erreztasunez irristatzen, dotoreziaz. Txunditurik nago. Beheraino jaitsi da. Eskuineko begiaren inguruko azala maztaltzen hasi da. Begiaren ertzetik odoltanta bat dago dingiliska malko bat balitz bezala. Nigana egin du irripar eta alde egiten hasi da. Lehengo bidexka oinazkatu berean gaude. Eguzkia sartzen hasi da. Zuhaitzen artean etxea ikus dezaket.

Etzetik gero eta hurbilago gaudela, oihuminak entzuten ahal dira. Heiagora-leherpen luze eta teatralak. Entseiaturiko garra-siak.

—Ai, amak gure artean arrotz bat dagoela konturatu duk. Maite eginen duk ama.

Sukaldetik sartu gara etxean. Behea egunkari-zatiez estali dute. Milkis bidean daukan paper-zati bat ere ez zapaltzeko gauza da.

Ni, behatz-muturretan, beraietan ohondikatzen saiatu naiz. Atalondoan ja, Milkis-ek halako tonu konspiratzaileaz diost:

—Jantz itzak heure arroparik onenak. Ama oso zorrotza duk holakoekin.

—Ba ote dago ezer ezagutu beharko nukeena berari desplazatzen ez egiteko?

—Eztuk, eginen duan guztia izanen zaiok desatsegin. Ez zagok berari plazertu egiteko modurik. Hoa eta presta hadi. Minutu gutxi barru ikusiko haut.

Neure gelan sartu nauk. Oinetakoak ziratu ditut. Jantzi-tako zimurrak kentzen saiatu naiz. Ilea bustitu dut eta orrazi. Neure burua begiratu dut mirailean, etsita nago. Ez dago ezer egin dezakedanik neure itxura zikina hobetzeko. Ahal dudan itxurarik onena edukitzeko saiatu naiz.

Atalondora atera naiz eta Milkis-en atean jotzen.

—Sar hadi!

Hala egiten dut. Jostagarri egin dit so.

—Ondo, ederra daukak, eta nire esku ez zagok ezer egiteko. Neure jantzi-tako bat utz nezakek, baina berantetsiko gintuzkek. Ama oso orduzalea duk eta afaria seietan duk. Saia hadi, mesedez, ahal den atseginena izaten.

Jantokira goaz. Sartzen garelarik erlojuak seiak jotzen ditu. Joaldiak amaitu baino lehen Henri eta Zora Moss gelan sartu dira.

Andrea txikia da eta sendo. Berrogeitahamarretan. Beraren ilea oso beltza da eta apur bat urdin. Aurpegia oso prestatua dakar, izan ere barre eragiteko moduan; haatik, hainbeste koloreztatze-
ren azpian aurpegi eder batek maskara larregizkoaren ondorioak garaitzen ditu. Beraren eskuak txikiak dira eta kuxinatuak.

Nor da pertsona hau? Itaundu du. Hain segur ez da Milkis-en laguna. Nor da pertsona hau? Zeintzuk ezin esateko arropak janzten ditu?. Mesedez, joateko esaiozu! Jauna, otoi, alde egizu! Ez dugu saltzaile ibiltariengandik ezer gura. Ez diegu jende zitalei sartzen uzten h... Jainkoa, oinetakoak ziratzearen trabailua egin du, halaz ere, zeure janzkia lisatzen ahantzi duzu, horri janzkia erizten ahal bazaio.

Batu ahal izan dudana ausardia guztiaz, hurbildiu naiz eta beraren eskua neureaz hartu dut. Ezpainetara eraman eta mun egiten diot.

—Plazer bat da zu ezagutzea, andrea, diotsot beraren eskua oratzen dudala zuzen beraren begiei so.

—Kantatzen entzun dizut apur bat lehenago. Halako ahots ederra daukazu. Morgan daukat izena. Ene ohorea zure etxeko bat izateagatik.

Emakumea negar-zotin minduez kuzkurtu da. Malko handiak izarniatu dira beraren begien ertzetan. Ahoa tiranduraz bihurkatu zaio. Gogo izugarritan nago barre egiteko. Beraren eskua utzi dut, eta begiez berarenei behatzeari utzi gabe, urrats bi egin ditut atzerantz.

—Gutziz ondo, gutziz ondo, dioste biek, Milkis-ek eta Henri-k.

—Mesedez, jezar gaitzen! (Berau Henri-rengandik.)

—Kontuz, ez konfidantza larregirik har heure oraintsuko garaitiaren poderioz. Ez duk lerdoa, Milkis-ek diost isilpean.

—Eguraldi ederra egunotakoa, ez duzu uste Morgan?

Berba hauek beraren ezpain karminetatik labaintzen diren hots borobilak dira.

—Eguraldiaz hitz egiteari errefusatzen diot, gaineratu du Milkis-ek nik zerbait esan ahal baino lehenago.

—Nik, baina, ez dut eguraldiaz berba egin gura, maitea. Morgan-ek egitea nahi dut. Eguraldi ederra egunotakoa, ez duzu uste Morgan?

Azkenau lehenago galdetu duenean bezala halako moduz errepikatu du, ezen grabazio bat ematen duela. Nik zeredozer esan ahal baino lehenago segitu du.

—Zertaz nahiko zenuke guk hitz egitea? Politikaz, erlijioaz, ekonomiaz, nebarrebarterko lehiakidetasunaz, atzerripolitikaz, umezurtzen hestuasunaz, buruosasunaz, energia nuklearraz, gerlaz, bakeaz, menopausiaz, gizabanakotasunaz, Beckett-ez, LeDuc-ez, Sartre-z, sozialismoaren peko gizon-emakumeen arimaz, izpiritualtasunaz, metafisikaz, androgeniaz, pederastiaz, psikologiaz, sukalkintzaz, erregegoaz, Mallorkan opor egiteaz, lurrinen prezioaz, bitxigintzaz zaletasun bezala...

Oso bizkor doaz hauek guztiak, denez berba egiteko gauza balitz bezala. Milkis-ek bere burua astintzen du gai bakoitzaren ostean. Esaldi batbedera beraren ezpain ikaragarri gorrien eta hagin hori laburren artean dator moldatua.

—... Apirioaz, antzerkiaz, tigre bengalarrez, oroitzapenez, perspirazioaz...

—Horra gai interesgarri bat, dio Milkis-ek.

—Baina maitea, ez zenuke nahiago zeure lagunari eguraldiaz iharduten entzun? dio berak inoiz baino gozoago.

—Ezta, aita eta semearengandik abesbatza antzo.

—Zerrenda interesgarria izan da oraingoan, Henri-k kunplimentatzen dio.

—Ez zegoen ia ezer berririk, dio Milkis-ek haserre.

—Zerrenda batek ez du zertan desberdin izan behar interesgarri izateko, dio Zora-k garaile.

—Hori egia da, dio Milkis-ek murrungaz.

—Zerrenda batek, edozerk egia esan, ez du desberdin izan behar interesgarri izateko, Henri-k dio arretarik gabe.

Sigi saga egin du Henri-k bere aulkian eta gurtzapenez begiratu ditu bere emaztea eta semea.

—Hain baita zail gauza berriez pentsatzea, eta behin *-zio* akabantza duen berba bat esan eta gero, hitz guztiek errimatzea gura izaten dut, dio andreak.

—Oraingoan ez duzu egin baina, dio Milkis-ek.

—Hastekotan nengoen, perspirazio‘ra heldu naizenean, edo zelan ere, badakizu azkenekoan egin nuena. Ezta?

—Bai, uste dut egin zenuela, diotso Milkis-ek zelanbait bakezale.

Geldiune labur baten ondoren irripar egiten du apur bat eta badoa niri begira:

—Eguraldi ederra ukan izan duguna, ez duzu uste Morgan?

—Orain, maitea, mesedez, nahikoa da afaldu aurreko berbetarekin, dio Henri-k.

—Gerorako ere zeredozer utzi behar dugu.

Henri zutik jarri da, ate oskilakorretatik igarota desagertu, eta erratilu estali birekin osterara ere agertu da. Neure artean, beraietan beharbada ezer ez dagoela pentsatuz, irripar egin dut.

—Hemen dago dena, dio berak bere aulkian jartzen delarik.

—Jan behar dugu? Zora-k zinkurinatzten du janaria begiratze-ko gogorik ere agertu gabe itxura eginda.

—Bai, behar dugu, deiar egiten dute Milkis-ek eta Henri-k batera.

—Hau etxe demokratikoa da, dio Henri-k beraren milikeriagaz amaitzekotan.

Gora egin dut barre.

—Hori guztiz desegokia izan da, gazte, Zora-k egiten dit agirika.

—Eguraldia ederra izan da, ez duzu uste madam, diot behingoan, neure begirada beraren behako haserratuan jarrita nigar egiten hasten delarik.

—Ez da euririk bat ere izan azken egunean. Ezta hodei bat bakarra zeruan.

Hau diodan unean, nigar egiteari utzi dio.

—Bikain, diote hirurek batera.

Milkis-ek gatza hartu gura bailuan egiten du, baina Zora-k, bistan denez honi itxaroten egon denak, gatzandela harrapatzen du berak egin baino lehen.

—Errezetaren arauera azken garauneraino neurtua.

Bertan ezkutatu delarik, bere bularrarteko golko sakonean ipini du gatzontzia.

—Bai, baina ez dago nahikoa gazi, protesta egiten du Milkis-ek.

—Egia da, ukurtu du Henri baietz egitekoan.

—Ezina. Morgan, maitea, zeure eritzia emaguzu, beiatu dit. Aztertua izaten ari naiz.

—Biak nik uste, Zora, ondo eta ez aski gazi.

—Bikain, guztiongandik, Milkis barne.

—Inoiz ez zaio gogoko nik prestatzen dudana ezer, musturtzen da Zora.

—Zure sukalkintzaz gurago dut ez hitz egin. Milkis-ek dio.

—Oi, eta zertaz nahi duzu hitz egin dezadan? Etxeko lanak gai egokia da nik neuk aukeratu bainituen.

—Zuk hautatu zenituen? Milkis-ek dio gaitzitua.

—Ez zenuen beste aukerarik, ama, badakizu zuk hori. Ez dago hautabidea bezalako gauzarik.

—Ondo, jakina, ez neukan beste aukerarik eta oraindinoko hautatu nituen, osteratzen dio atzera bafada batez Milkis-i.

—Nik hautatu nituen. Nik hautatu ditut. Nik hautatuko ditut. Aditz bat da bakarrik, beti ere. Hautatu. Perfektuan joka dezaket. Neure olerkiok idazten ditut eta kantatzen dut, eta gero gau osoan neure borondaterik gabeko borondatearen arauera brodatzen dut. Irina eralkitzen dut. Pastelak egiten ditut. Dena ondo lanindarraren status quo-ri laguntza eman gura banio. Irudika nazakezu lehen ministro gisa? Zentral nuklear baten lehendakari, gerlarik edo hondamendi nuklearrik inoiz gertatzen ez den munduan? Munduan, orain den bezala eta izaten segiko duen bezala, boteretsua izatearen gogoetak nazka ematen dit. Bizitza era bakan bezala bizi izanda, hori da nik diodana. Guk mundu hori arbuia genuen, guk hirurok. Beraz norik egiten du lixiba, Milkis, nire petit pois? dio Zora-k, eta gero segitzen:

—Neure bizitza gartzeleratze honetan bizi izatea aukeratu nuen. Menturazalea izateko ametsik ez dut egiten. Ez naiz amazona bat. Ezta espioi bat. Pertsona bat naiz pertsona bakarreko munduan bakarrik bizi dena. Horra bada. Ez naiz jendakien bizitza bizi gura duen norbait. Gizakiak hor daude, kanpoan, munduan. Henri ez da gizon bat, ez da Milkis ere, eta ni, noski, ezta emakume bat ere. Hau berau, zaharrena, hau Henri da. Hori berori, hain segur gazteena, hori Milkis da. Eta ni, jakina, ni Zora naiz. Gu guztiok ezagutu gaituzu, eginen nuke, Morgan. Hori da dena. Bizitza bakunkiro bizi izana.

—Nahikoa, lehendabizikoz Milkis-ek eta gero Henri-k.

—Barka nazazue, dio berak irribarrez.

—Ai, harrikoa egiten ahantzi zait, harrikoa egitea testuinguruan dago, egon ere.

—Testuinguruan? dio Milkis-ek trufaz.

—Bai, testuinguruan dio Zora-k aurpegia okertuz.

—Ez gara hemen jakintsuarenak egiten ari? dio Milkis-ek gaiztoki.

—Ez gara hemen etorkorrenak egiten ari? dio Zora-k berdin zakar.

—Etorkorrak? dio Milkis-ek, hitza hiru arrozgaraunekin batera ahotik listuzkatuz.

—Bai, guztiz etorkorrenak, Zora-ren aurpegia mespretxukeinu batez okertu dela.

—Oi, egunotako eguraldi ederra, eta janari gozoa, dio Henri-k Zora-ren aurpegia lasaitzen delarik.

—Halako haizetxo epelak urtearen garai honetako, eta halako paella gozoa, diotsot irribarrez Henri-ri.

Milkis eta Zora, biak, besoak bularrean gurutzatuak, uzkur daude jezarririk.

—Pozik egonen naiz uda osorik heltzen deneko eta Zora-ren beraren arbolatik laranja jaten ahal ditugunean, diost Henri-k umore onaz.

Zora berriro hasten da jaten.

—Hondartzara joateko zara uda honetan? itauntzen dio Henri-k Milkis-i.

—Bai, jakina, osteratzen dio Milkis-ek.

—Bakarrik joanen zara, dio Henri-k.

—Morgan ez da egonen. Ez dio zentzugabekeria guzti honi eutsiko.

—Norberak ez daki inoiz noiz joanen diren, joanen direla daki bakarrik, Milkis-ek dio indarrez.

—Gurago nuke, diot berari begira, besteengandik desberdintzat joko baninduzu. Askoren arteko bat ez naizela gustatuko litzaidake pentsatzea. Berezia naizela nahi nuke pentsatu. Mindu nauzu...

—Minduta dago, hirurak batera.

—Neure buruari galdetzen diot, dio Henri-k, zure desberdinizate horrek interesgarri egiten zaituen, edo iruntziz, zure interesgarri izateak egiten zaituen desberdin.

—Ostartetu da. Ostartetu da. Afaria amaitu da, iragarri du Zora-k zutik jartzen eta zaratotsez platerak pilatzen dituen bitartean zilarrezko erratilueta.

Kanpora begiratu dut leihotik ilundu izanaren esperantzaz.

1998ko Galeuzca Galizian



***Literatura eta arte
plastikoak***



Jon Alonso

Itxaro Borda

Hasier Etxeberria

Josu Lartategi

Anjel Lertxundi

Joxan Muñoz

JON ALONSO

Zirriborroak eta txorimaloak
(*Literaturaren eta pinturaren arteko intersekzioak*)

O horea da niretzat Euskal Idazleen Elkartearen ordezkatzeari Galeuzca bezalako plaza batean; alabaina, guztiz berria naiz egiteko honetan, orain arte egunkariaren bitartez segitu baitut Galeuzcaren jarduna. Zergatik ni? galderari erantzun beharko banio, erantzuna metaforikoa erabiliko nuke: bonbardaketa batera joateko izena ematen duenetakoa bainaz, horra nire merezimendu guztia. Hainbat bonbardaketatan egona naiz honez gero, egon ere, eta matxuraren bat edo beste alde batera utzirik onik atera baldin banaiz, edo osorik bederen, bizirik irauteko zorte ezinbestekoa eduki dudalako da, ez besterik. Alabaina, bonbardaketetara joateko ohitura piska bat badugunok beti ibiltzen gara beldurra hezurretan, deskalabrua, eztanda guri noiz egokituko; espero dezagun gaur, justu, ez izatea. Eta aurkezpen moduko hau eginik, gaiari lotuko natzaio bete-betean.

Hasi baino lehen ohar garrantzizkoa egin behar dut: adi ibili, irakurle, lerro hauek ez datoz hiztegi moduan apailatuta, ez dute alfabeto, glosategi edo hitz-zerrendarik osatzen; ez ditut gogoetok sukalde-errezeta edo brikolaiarako argibideak balira bezala aurkeztu nahi, ez eta ere -ez eta ere!- futbortalde bateko hamaikakoaren arabera antolatu, gero Arrigo Sacchik eratzen duen erronboa aitakia harturik, esaterako, garatu ahal izateko; baliabide hauek

oso oniritziak dira egun, libertigarria eta amenoa izan beharraren kapapean datoz, gehienetan besteak beste, benetan estaltzen dituztenak, gaitasunik eza, nagia, etsia edo saldu beharra badira ere, eta horiek denak neurri diferenteetan. Egia da baita ere, eta ezin ezkutatuko dugu, arrainak zer prezio egiten duen kontuan hartuta, gaitza dela teoria orokorrak, prezeptibak egiten, arauak markatzen edo eremuak zedarritzen ibiltzea. Bizimoduaren martxak honetaratu gaitu. Nire aldetik, laño-laño eta apal-apal aitortuko dut, lerro hauekin lortu nahi dudana aitona-amona modaz pasatoko hainbatentzako gogoetabide ez sobera malkartsua eskaintzea baino ez da; izan ere, hemen bilduko garen guztiak zokobetailu zaharkituak baizik ez garela izango begitandu zait. Lerro hauen bukaeran saiatuko naiz azaltzen nolaz ausartzen naizen zuek guztiak sardinzaharren pare jartzen; badakit gehiegizko ausarkeria dela nire aldetik, baina, edonola ere, bihoa alde zurretik neure burua ere taldeko kide egiten dudala.

Beraz, honako hauek pinturari eta literaturari buruzko gogoeta solte batzuk baizik ez dira, zirriborro eta txorimaloei buruzko oharrak; azpigitulu «intersekzioak» idatzi dut, horixe izan delako nire asmoa, pintura eta literatura elkartzen ziren eremuak atzema-tea, pintura eta literatura elkarrekin joan diren uneak bilatzea. Eta ez dira gutxi, ez horixe.

LEHEN INTERSEKZIOA

Bi arteek bat egiten dutenean

Literaturaren eta pinturaren arteko harremanen gaia planteiatzen denean norberari burura etortzen zaion lehen gogoeta honako hau da, «*tira, ez al gara gauza bakar batez hitz egiten ari?*». Horixe izan zen niri gertatu zitzaidana, bederen, eta horregatik berehala hasi nintzen nire tesi elemental honen alde egingo lukeen autoritate baten aipuaren bila. Ez zitzaidan zaila izan aurkitzea;

Severo Sarduy poeta eta margolari kubatarrari eginiko elkarrizketa bat errepasatzen jarri eta hantxe aurkitu nuen:

Azken batez, margotzea eta idaztea gauza bera da, eta mahaiaren aurrean eseritzen naizelarik ez dakit zer egingo dudan.

Egia esan, hain izan zitzaidan erraza nire hasierako susmoa berrestea ezen zapuzturik gelditu nintzen, konturatu nintzelako horrek ez zuela mintzaldi bat betetzeko ematen, mintzaldia oso laburra izanik ere. Beraz, han eta hemen begiraturik, Henri Michaux poetari buruzko artikulu bat iritsi zen nire eskuetara. Henri Michaux frantsesez idazten zuen poeta belgiarra zen, surrealisten markatutako ildoetatik ibilitakoa, bere sormenezko literaturlanak margolan ugarirekin laguntzen zuena –berak *argiztapenak* edo deitzen zien margolan hauei–, eta artikuluan honako hau aurkitu nuen:

En caso de querer que la noción de Arte sea una referencia para la obra plástica de Michaux habría que comenzar ironizando, remontándose bien atrás: como quien pretende empezar por el principio. Debería hablarse, en primer lugar, de las miniaturas bengalés, de los códices bizantinos, carolingios, románicos, góticos... Habría que comenzar por explicar la economía espiritual de la iluminación que acompaña al texto, su hermanamiento en un proyecto común de transmisión de una experiencia transfigurada de lo real. El texto propone un tema de meditación que la iluminación ilustra, tratando de restituir en el espacio cerrado del libro una duplicación del polimorfismo de la experiencia real, sublimado aquí en el modo como lo visible y lo legible se dan mutua satisfacción, hasta llenar entero el espacio de lo imaginario.

Bere hartan ematen dut; badakit horrek agerian uzten duela euskaldun naizen aldetik dauzkadan gabeziak –gaztelerari buruz abiatu beharra kulturgai bati ekiten diodanean, esate batera, edo ezina itzultzaile naizen aldetik, adibidez–, baina uste dut bere hartan emate horrek, kasu honetan bederen, nor bere baliabideak zuhurtziaz kudeatzeko gauza badela erakusten duela, eta nire

baliabiderik funtsezkoena –denbora–, gero eta preziatuagoa zait. Kontuak kontu, lerroalde hori irakurririk erabaki nuen hor esaten zena eta Severo Sarduyk esaten zuena gauza bera zirela, eta hala ez bazen, ez zuela gauza handirik inporta. Kexu ibili ohi gara jende normalak, lan egin, zergak ordaindu, jan eta edan eta mundua martxan jartzen duen jende normalak haizea hartzera bidaltzen gaituelako, eta ez dugu ikusi nahi izaten askotan ongi merezia daukagula; are, litekeena da honek zerikusirik edukitzea gure gaurko izaera eta kondizioarekin, hau da, gaur egun zonbi-saldoa edo momia zimurtu kuadrila izatearekin, mintzaldiaren hasieran esaten nuenez; ez dakit, aurrerago ikusiko dugu hala den. Beste alde batetik, esperantza dut testu horren egilea ez datekeela Galeuzcaren edizio honetara etorriko; alabaina, halabehar hutsez gure artean badago, irten bedi denon aurrera, ez zaio-ta deus pasako, nahi badu ribeiro edo albariño bat edango dugu, patxada ederrean, berak pagatuta, hori bai.

Gauzak honela, suposa dezagun arteak errealitatearen gaineko begirada bat proposatzen duela, eta begirada hau zientziak, erlijioek edo filosofiak proposatzen dutenetatik ezberdina dela. Eta suposa dezagun begirada artistikoak ere ezagupen baliagarria ematen duela, zientziak ematen duena bezain baliagarria, denon ahotan den baina inork zer den oso ongi ez dakien errealitatea deitzen dugun gauza horren gainean. Eta suposa dezagun, bukatzeko, arteak errealiteri buruz erakusten duen ertz berri hori arte-obra deitzen den gauza horretan zehazten dela, artista deitu ohi dugun batek egiten duen arte-obra horretan. Ba, «suposa dezagun» hauek guztiak ontzat emanik, margolari bat eta idazle bat gauza bat eta bera dira, ezberdintasun bakarra delarik helburu bera erdiesteko garatzen dituzten trebetasun teknikoan nolakoa; eta ezberdintasun hau, ikuspegi honetatik, hutsaren hurrengoa da.

Are eta gehiago oso erraza denean bi trebetasun tekniko horiek bere baitan bildu dituzten pertsonen zerrenda gitea. Sarduy-z eta

Michaux-ez mintzatu gara, baina marrazten duten idazleen zerrenda, edo idazten duten margolariena, oso luzea litzateke, berriz diot: Merimée, Gauthier, Baudelaire bera, Dumas semea, Verlaine, Maupassant... Eta Galizian gaudenez ez dut ahaztuko Castelao, edo Almada Negreiros portugaldarra. Eta Galeuzcan gaudenez Enrike Zubiri *Manezaundi* sartuko dut zerrendan; hau XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako margolari nafarra izan zen, Luzaidekoa eta Iruñean bere bizitzaren parterik luzeena emandakoa. Margolaria ez ezik, idazlea ere bazen, kazetaria, kazetaria ama-hizkuntzaz, euskaraz; margolari izateagatik karrika bat eskaini diote, Pintor Zubiri karrika; inor gutxi daki non dagoen, inork ez daki nor den Zubiri delako hori. Kazetari euskalduna zenez, beraren artikulu gehienak –gure egunetara iritsi direnak– bildu dituzte liburu lodi batean, gaur den egunean inork irakurtzen ez duena, mundu guztiak zeregin ugari dituelako eta gainera maldan behera doan euskalki bazterreko batean idazten zuelako. Gainera politikoki jarrera hartua zenez, euskal nazionalismoaren aldekoa, dena esateko, bere obrarik garrantzizkoenak Nafarroako Museoko sotoetan dautza atzendurik eta hautseztaturik. Kontuz, pentsa ezazue hau ausarkeriazko epai frogarik gabekoa eta nabarmenki maltzurra dela, inongo maisuk eta inongo ertainetako irakaslek ez dezan haur mutiri eta ozar baten jakinmina asetzeko tragoa pasatu behar, halako batek galdetuko baliezaio, esaterako, zer ospatzen duen *La Gamazada* izena duen koadroan biltzen den jendetzak, zer arraio gertatu zen eta. Nork daki, hartaraino ere iristea litekeena da, zer dela-ta atera zuten orduko hartan lehen aldiz historian eta munduan Arana anaiek beren bikruzifera per-niziosoa, izen arruntez *ikurriña*? Barkatuko duzue parentesia, Orhiko txoriak Orhira nahi, eta halaxe hegaldatu zait gogoa jaioterrira, eta halaxe hegaldatu ohi zait, baita ere, eta adostasundesadostasunen gradutik harantzago, pertsonaia xeble, deseroso eta sailkapen dudamudazkoengana, historia deitzen dugun etxe-

ko ganbarako pipiaren bazka izateko baizik balio ez dutenengana.

Eta horretan nagoela, ez dut zerrenda bukatu nahi Rodolphe Töppfer izeneko suitzar bat sartu gabe, erdi ahazturik dagoen beste pertsonaia bat, erabat ahazturik legokeena, agian, Ernst Gombrichek lehen mailara ekarri izan ez balu. Töppfer hau komikiaren aintzindaria da, maila horixe ematen dio Gombrichek, eta halaxe da komiki modukoak egiten zituelako estatubatuarrek baino berrogeitamar-hirurogeitamabost urte lehenagotik, amerikarrek euren burua komikiaren asmatzaile paratzen badute ere. Töppfer Genevakoa zen, margolari baten semea eta margolari izateko bidean; arte hau utzi behar izan zuen ikusmenean zeukan gaisotasuna zela medio; hau honela, idazten hasi zen, ez baitzuen sormen-lana utzi nahi, eta XIX. mendeko Suitzako literaturan arrakastatsuak eta ezagunak diren ipuinak egin zituen. Hura nahikoa ez, nonbait, eta bere bi grinak uztartu nahi izan zituen; honen emaitzak marrazkien bidez narratutako eleberri irriegingarriak izan ziren, hau da, gaur egun komiki izenarekin ezagutzen ditugunak. Fisionomiari buruzko tratatu bat idatzi zuen, eta bertan honako hitz profetiko samar hauek irakur daitezke:

Ipuinak idazteko bi modu daude, bata kapitulu, lerro eta hitzen bidezkoa, eta horri 'literatura' deitzen diogu, eta bestea marrazkien segida baten bidezkoa, eta bigarren honi irudietan emandako ipuina deitzen diogu.

Halaxe da, izan ere; Hugo Pratten obra ezagutzen duenak badaki hor dagoena lehen mailako narratzaile bat dela, marrazki bikainki estilizatuez baliatzen dena. Beraz, hauxe da, nonbait, lehen intersekzioak mahaigainean utzi digun gaia, edo gaietako bat: komikia. Eta komikiari buruz aritu beharko genuke pinturaren eta literaturaren arteko harremanaz mintzo garenean. Komikia gaizki zahartu da, ordea: ziztuan pasatu zaigu haur izatetik mutilzahar izatera, eta bitarte horretan ez du inork –ia inork– seriotzat hartzea lortu, damurik. Eta anaia gaztea uste genuena-

rengana begiak bihurtu ditugularik, zaharkitua aurkitu dugu, ilobek –ordenadoreek, makinek– luze-laburrean buru bete ateratzen diotela.

BIGARREN INTERSEKZIOA

Kritika

Beraz, eta komikiari buruz mintzatuko ez garenez, iturburuetara jo beharra daukagu, iturburu hurbiletara, demagun ehun eta berrogeita hamar urte hurbil daudenetara, ea han literaturaren eta margolaritzaren arteko harremanez ezer ikasterik ote dugun ikusteko. Eta ehun eta berrogeita hamar urte inguru atzera egingo dut bestela Berpizkunderaino joan beharko nukeelako. Han Modernitate Guztien Aita Nagusiarekin egingo dut topo, Charles Baudelairearekin, alegia, zeina, poeta ez ezik, marrazkilaria ere baitzen, eta ez txarra, eta, gainera, hau zorzea gurea, arte-kritikaria ere bai.

Zalantzarik ez da Baudelairearekin kontuz ibili behar dela, beraren aitatasun mugagabearen magalean bizi baikara oraindik ere, neurri handi batean. Guztiarekin ere, lotsagabe-lotsagabe esango dut poeta zen aldetik intuizio izugarria erakutsi zuen arren, poeta modernoaren paradigma izateraino, arte-kritikari bezala itsumustuka ez dugu esango, baina itsu samar bederen ibili zela. Bere noraezaren berri ikasteko nahikoa da ikustea denbora guztian ibili zela Delacroixi loreak eta loreak boteaz, eta margolaritzako modernotasunaren paradigma Constantin Guys ezarriz; hau berez ez zatekeen larria Modernitate Guztien Aita Nagusiak esana izan ez balitz, non eta Parisen, noiz eta 1850. urtearen inguruan, eta areago, Maneten lagun mina izaki. Manet ez da ia inoiz, baina, Baudelairearen kritikagaia. Aintzat hartzen badugu, gainera, inpresionisten lehen erakusketa 1864. urtean egin zela –edo 1863an, Baztertuen Saloian egin zena kontuan hartuz–, ezin uka daiteke miopia kritikoa.

Baudelairearen *Saloiak* irakurtzen direnean, eta orokorrean be-

raren gogoeta estetikoak, ideia interesgarriak badira, noski, baina era berean nahiko harrapagaitza eta kargatua den estiloa ere bada-go, eta ez da beti erraza, estilo hori dela kausa, idazlearen iritzi bakoitzaren pisu erlatibo zehatza neurtzea. Azkenik, gelditzen den inpresioa da Baudelaire, kritiko denean, udaltzain bat bezalakoa dela, txilibitu eta borrarrekin, trafikoa antolatzen saiatzen den udaltzain xamurtasun eragilea, batez ere gaurko trafikoaren nolakoa kontuan hartzen denean eta ikuspegi horretatik begiratzten zaionean. Alegia, Baudelaireren arte-kritikaren balioa historikoa da, edo ia historikoa, bakarrik. Beste modu batez esanda, poeta bat ez da zertan izanik aparteko arte-kritikaria, ezta marrazkigile trebea bada ere.

Hainbat gauza har dakioke, noski; esaterako, 1846ko Saloia delakoari egin zion hitzaurrea, non, ironia gehiago edo gutxiagorekin, honako hitz hauek jaulkitzen baitizkie burgesi:

Zuek zarete gehiengo, zuek zarete indarra, zuek justizia; baina beharrezkoa da edertasuna atzemateko gauza izan zaitezen; artea behar duzue. Artea ondasun ezin baliotsuagoa da, freskatu eta indarberritzen duen edabea, urdaila eta izpiritua beren berezko oreka ideialean ezartzen dituena. Zuek konturatzen zarete duen erabilgarritasunaz, burges horiek, zazpigarren edo zortzigarren orduak jotzen duenean eta zeuen buru nekatua sutondoko txingarrei buruz makurtu eta besaulkiko belarrian pausatzen denean.

HIRUGARREN INTERSEKZIOA

Margolaritza literaturan

Kontua burges eta besaulkien artean dago, oraingoz; bistan da, bestalde, margolaritza literaturan gaia hartuta hitz egin daitekeen bezala, kontrako bidea ere har genezakeela, hau da, literatura margolaritzan gaia hartuta mintzatzea, baina horretaz ez naiz ariko. Ekarriko dut hona, aldiz, gazteleraz «La Veneziana» izenburuarekin agertu zen Vladimir Nabokov distiratsuaren narrazio

laburra, burgesek arteaz zer pentsatzen duten hausnartzeko oso argigarria, Baudelaire baino ehun urte geroagoko burgesek bederen. Narrazio honetan, gainera, *La Veneziana* izeneko koadroak paper bat jokatzeko du kontakizunaren argudioaren garapenean. Alde batetik Frank daukagu, zaldun britaniar gazte, azkar, atletiko, distiratsua, erreprimitzen dituen hainbat trebetasun piktorikoren jabe ere badena. Frankek arteari buruzko aurreiritzi oso atzerakoi eta oso burges bat azaltzen du:

Artean orokorrean, eta margolaritzan partikularzki gaixobera eta afeminatua den zerbait badagoela uste dut, gizon bete kementsua-
rentzat duina ez dena. Artearen tentazioari eusten diot, badakidala-
lako pertsona honda dezakeela. Margolaritzan bete-betea sartuz
gero, orduan, bizimodu ordenatua eduki partez, nire unean uneko
gozamenak eta unean uneko tristurak eduki partez, hondamendian
murgildurik biziko naiz, nahaspila etengabea sartuta, Jainkoak daki
nola. Hilduratua egongo naiz hil artean, Chelsea ikusten dudana
gizagaixo horiek bezalakoa izango naiz, txima luze eta belusezko
jakak jatzeko dituzten ahul eta nahigabetu horiek bezalakoa, beren
paleta likitsua baizik maite ez duten horiek bezalakoa...

Hona hemen ideia ezin atzerakoiago hau, arteak ordenua itzuli-
likatu, hausten ahal duelako ideia. Estetikaren dialektikan asko-
tan eztabaidatu den ideia, XVIII. mendetik –Diderot eta– hona
gutxienik. Frankek ematen digun ideia honen aurrean, McGore-
ren bizipenak daude. McGore artezale eta margo-konpontzaile
oso bere gisakoa da, oso bitxia; aurreiritzia eta prebentzioa alferrik
dira, arteak bere lan hondatzailea egin duelako jada, zura jaten
duen pipia bailitzan, eta hori McGoreren ondorengo hitzetan
ikusiko dugu:

Margoturik dagoen irudiari koadrotik ateratzeko gomita egin
beharrean, imajina dezagun inork koadro baten barruan sartzea
lortzen duela. Erridikulua ematen du, ezta? Ba, nik askotan egin
dudana gauza da. Europako arte-museo guztiak ezagutzeko aukera
izan dut. Bereziki maite nuen koadro bat ikusten nuenean, aurrez

aurre jartzen nintzen, eta nire borondatearen indar guztia pentsamendu bakarrean kontzentratzen nuen: koadro barruan sartzea.

MacGorek zin egiten du gisa honetaz koadro mordo baten barruan sartu dela, eta horrela entzun diola Amabirjinari hizketan –flandrieraz, dena esateko–, mila bider maitemindu dela hainbat *madonez*, are giltzurrina gaixotu egin zaiola Rubensen koadro bateko eme borobil eta haragitsu batek eman zion baso sagardo gogorregia zela tarteko. Gerta daitezkeen gauzak dira, dio McGorek duda izpirik gabe. Orduan, galde geniezaioke geure buruari, non dira errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak? Horra hor artea subertsibo eta arriskutsu bihurtzen duen galderetako bat. Bi muturreko jarrera hauen artean koronel britaniar zaharraren ezagupen segurua eta zalantzarik gabea hedatzen da. Koronelak koadroaren itxura fisikoari erreparatzen dio, itzalen jokuari, koloren banaketari, eta horrekin gozatzen da; horrekin eta koadroaren inguruko mota askotako datu historikoekin, iritzi konbentzionalekin:

Beraren maisuak Bellini eta Giorgione izan ziren, eta etsaiak Miguel Angel eta Rafael. Ikus dezakezunez, lehengoaren kemena eta bigarrenaren xamurtasuna batu ditu bere lanean. Egilea Fra Sebastiano del Piombo da, parranda maite eta soneto kaskar batzuk egin zituen fraide kaskarin eta alua.

Koronelaren hitza Jainkoarenaren pare da ia, beti ere bi basokada Borgoña bitartean, «Piombo zaharra, gonazale halakoa», armadakidea edo ikaskidea eduki bailuen, eta ikasgai ematen dio Simpsoni. Simpson hau pertsonaia mendre eta tentela da, honi esaten dio koronelak, arteaz benetan jakitera iritsi ahal izateko, lehen gustu apur bat hartu behar dela artearekiko. Horiek guztien ondoan narratzailearen gogoeta agertzen da, inolako pertsonaiari atxekitzen ez zaionez, Nabokovena berarena izan behar duena:

Eguzkia sartzen deneko arratseko tonuak izan, aurpegi zoragarri bat izan edo arte-obra bat izan, edertasunari so jartzen garenean,

nahigabe atzera begiraten dugu, geure iragan pertsonalerantz itzultzen gara, eta errebelatu zaigun edertasun harrapaezinari, gugandik kanpo dagoen edertasun harrapaezin horri geure baitako izaera eta geure iragana kontra jartzen dizkiogu.

Hemen badira azpimarratu nahi ditudan hiru gauza, ondoren datorren interseksioan esaten duenari kontra jartzeko: lehenbizi, edertasunari so jarriz gero atzera begira jartzen gara –eta ez aurrera begira–; bigarren, artearen bitartez edertasuna baizik ezin da errebelatu; eta hirugarren, edertasun hori gugandik kanpo dago, eskuragaitza da, ez da gure baitan. «La Veneziana» narrazioari dago-kionez, azkenik jakinarazten zaigu kontakizunaren ardatza den koadroa, zeinarengatik sekulako dirutza ordaindu baita, faltsua dela. Azken osagarri honek eszena borobiltzen du. Orain baliteke Baudelairengana joateko unea izatea, honelako zerbait esateko:

—Hi, Baudelaire, hor dauzkak hire burgesak eta euren arte-beharra, euren Borgoña, euren belarridun besaulkiak, euren gustuak, euren legea eta lege horri ezinbestean dagokion segada.

Orain berrogei urte inguruko burgesekin hori guztia gertatzen zen bitartean, ordea, kanpoan anabasaren erresuma nagusitzen zen.

LAUGARREN INTERSEKSIOA

Margolaritzari buruzko literatura Teoria artistikoa pertsonala eta oso bat

Ezin egokiago zait Jose Saramagok Nobel Saria irabazi berri izana, horrek ematen didalako bidea bere eleberrietako bati buruz mintzatzeko, hain zuzenki lotuta dagoena ukitzen ari garen gaia-ekin, ezen eleberririk horrek berak eman bailezake mintzaldi oso bateko gaia. *Manual de pintura y caligrafía* izenekoaz ari naiz.

Hemen gure protagonista H. da, hirian dagoen erretratu-margotzailerik handiena. H. krisian sartuta dago; ederki irabazten

du ogia, ez du ezeren faltarik, baina konturatu da margolaria den aldetik huts egin duela. Bereziki jabetzen da bere egoeraz hiriko enpresagizon baten erretratua egiten hasten delarik; bultzada ezkutu eta premiazko batek bigarren erretratu sekretua egitera bideratzen du; bigarren erretratu sekretu honek bere ohiko margotzeko modu konbentzional eta hutsala gainditu nahi du. Ez dio enpresariari bigarren erretratua inoiz ematea pentsatu; bigarren erretratuaren bidez bere ofizioaren jardunean lortu duen mailaz harantzago egin nahi du, gizarteak eman dion tokitik lekutzeko pentsatutako jutrukia da. Huts egiten du, alabaina, bere saio honetan; azkenik margo beltzez estaltzen du bere bigarren erretratu hura. Margo beltzez estali eta ezkutatu, laguna duen Antoniok atzematen duen arte. Antonio trufatu egiten da, irri egiten dio bere adiskide mine- nen aurrean: «Baina, gizon honek, noiz arraio hartuko du pinta- tzen hasteko deliberoa?», galdetzen du, denen aurrean. H.-k etsi egiten du: «saiatu egin naiz, huts egin dut, ez dut beste aukerarik edukiko», horixe da bere buruari esaten diona. Bigarren aukera edukiko du, ordea, eta hara non, bigarren aukera horren hasiera idazten hasteko erabakiak markatzen du. Hala, autobiografia bat idazten hasten da -bere ustez, dena da autobiografia-, literaturaz ezer ez dakien arren; aurrera egiten du, ordea, eta idazte honen bidez pintzelekin aurre egiten ausartzen ez den erronkari ekiteko kemena bereganatzen du, hori paradoxa. Hona hemen, berriz ere, hasieratik buruan biraka daukadan ideia berriz errepikaturik: margotzea, idaztea, ikuspegi jakin batetik gauza bera da.

Gertatzen dena da ideia horretatik abiatu- rik, Saramagok, lite- raturaz, eleberriaz, literatura erabili hutsez, –eta alfabeto, hiztegi, glosategi, hitz-zerrenda, futboltalde, errezeta eta brikolaia-argibide- rik gabe–, lehen baieztapen horren ondoren letorkeen guztiari aurre egiten diola, nik ere ez bezala; hau da, arteari buruzko teoria oso bat eratzeari ekiten dio, literatura-pintura binomioaz balia- tuz, hain zuzen ere, zailtasunei itzuri egin gabe eta kontraesanak

ezkutatu gabe. Ez dakit bada, agian honengatik ere eman dioten Nobel Saria.

Hamaika ikusteko jaio gara; hara non idazteak pinturarekin itxirik zeuzkan atea ireki egiten dizkio, bere sena artistikoa eta sormenerako ahalmena askatzen ditu poliki-poliki, handiagotu egiten zaio ereduaren «egia» harrapatzeko gaitasuna, ez ordea antzekotasun fisonomikoaren egia harrapatzekoa, baizik eta egia sakona harrapatzekoa, ikusten ez den eta larruazpian dagoen egia hori harrapatzekoa. *Manual de pintura y caligrafía* eleberriko margolaria harreman zehatz batzuk, testuinguru politiko eta sozial jakin batek inguraturik dago, arteari eta sormenari buruzko autoeztabaidarekin batera argitzen eta tinkoagotzen den ikuspegi ideologikoa badu; baina argitze prozesu honetan zehar sormenari dagozkion galderarik garrantzizkoenak mahai gainean gelditzen dira: errealtatearen eta fisikioaren, gezurraren eta egiaaren, asma-zioaren eta historiaren arteko diferentziak; nork bere buruaren ezagutzea; idaztea den artifizioa, literatur teknikaren artifizioa; estiloa, arte-obraen zintzotasuna; sorkuntza eta inkontzientearen arteko harremana; sorkuntza eta ekoizpen-bitartekoen artekoa, nola ez; artea eta tradizioaren artekoak...

«Erretratuak egiten dituen bere buruaren erretratu egiten du», esaten du H.-k. Hau da, egia beste baten erretratuaren bidez bilatzen duena, bere buruari egindako erretratuaren bidez bilatzen ari da egia hori.

Nire pintura ez zaidala gustatzen esan dut: normala da, ez zait neure burua gustatzen, eta nire burua ikusten dut margotzen dudana erretratu bakoitzean. Baina bere buruaz idatziko al du idazten duenak? Nor da Stendhal *Kartusian*? *Gerra eta bakea* Tolstoi guztia al da? Batak zein besteak liburu hauek idazten bukatu zutenean, euren buruak aurkitu zituzten liburuotan? Nor zen Stendahl *Kartusia* idatzi aitzin? Zer jarraitu zuen izaten idatzi eta gero?

Hauek dira gure protagonistak buruan dituen kezkek bigarren

lan bat eskatzen diotenean: alaba ezkonduko duen bikote dirudun baten erretratua. Koadroak aurrera egiten du zirt edo zart, zeren, ordurako, idaztearen poderioz batez ere, margolariak bere ondorioak atera dituelako, zenbait ondorio bederik: dakien guztiarekin –ustez dakien guztiarekin– apurtu beharra dauka, benetan ezer artistikorik egingo badu. Hasierako enpresariaren erretratuaren kasuan ez bezala, senar-emazteen erretratua bakarra da. Margolariak lana bukatu eta erakutsi egiten du; bikoteak ez du jaso nahi, ez du onartzen; liskarra sortzen da; margolariak bere koadroa eramaten du (bere lehen egiazko arte-obra!). Badaki bere margolari-karrerarenak egin duela, badaki bere hiriko burgesiak, bere izen ona babeste aldera edozertarako gertu, ez diola sekula gehiago erretratu bat pinta dezala eskatuko. Konturatzen da ordura arte bere bigarren nortasuna bezalakoa zen mimetizaziorako joera ezabatu egin dela, desagertu. Paradoxa ageri da: artea izena merezi duen zerbait ekoizteko gauza izan da, azkenik, eta orduantxe gelditzen da lanik gabe. Ia ia mundua bera bezain zaharra den paradoxa, bestalde. Zer ez zuen esango honi buruz Toulouse-Lautrec batek, esaterako, prostitutak eta makarrak margotzen zituen ez grina txarren eraginez, sinestarazi nahi izan den bezala, baizik eta bere arteari fidel eta leial izateagatik, aldeztu aurretik baitzekien, ederki jakin ere, Pariseko edozein burgesek koadroak aurpegira botako zizkiokeela. Zer espero daiteke burgesia erri-dikulu eta ezjakin konkretu batengandik, izena eta itxuraren alde edozer egiteko gauza dena, gerrara joateko ere prest dagoena, gurutzadak antolatzen dizkizuna aipatu itxurakeria eta ospea gortetzeko asmo bakarrarekin.

H.-k, azkenik, irtenbidea bilatzen du bere kontraesanetarako, bizimoduz aldatzen da, konpromezu politikoa bereganatzen du, eta bere autorretratua egiteari ekiten dio; norik eta H.-k, ordura arteko erretratu guztiak ezin jasan zitzakeena bere burua ikusten zuelako margotzen zituen erretratu guztietan, eta bere burua ez

zuelako maite. Margo beltza ausarki erabiliz hasten du erretratua; baina oraingoan margo beltza «errebelatzeko da, ez ezer estaltzeko». Eta hauxe da elebriaren ondorioa, gure margolari honen teoria artistiko osoa, alegia: pintura, literatura, artea orokorrean, gauzen baitan datzan egia bilatzea da, aurrera egitea da –ez atzera, Nabokovek esaten zuen bezala–, aurrera egitea gauzak argitzeko, errealitatea errebelatzeko –ez edertasuna bakarrik–, eta, aldi berean, autoerrebelaziorako tresna da, nork bere burua ezagutzeko tresna, eta hortaz, kanpoan ez ezik barruan ere badago.

BOSTGARREN ETA AZKEN INTERSEKZIOA

Probokazioa, artea al da?

Gero eta gehiago dira literaturatik arte modernoa, edo garaiki-dea kritikatzan duten ahotsak, batez ere margolaritza. Batzuek, Félix de Azúa kasurako, distantziaz, ironiaz eta are sarkasmoz kritikatzan dute, eta euren ezagupenen luze eta zabala aitortua eta begibistakoa da; nolabaiteko Cartago bateko hondakinak bisitatzan laguntzen zaituen turista-gidariak bezalakoak dira. Begira, esaten dizute, hemen zegoen bainuetxea, hemen, udaletxea, hau honela jausi zen, beste hura hala, eta honengatik eta hargatik. Horrelaxe, *cicerone* etsituak bailiran, turista aspertzen den arte. Beste batzuek zuzenean zainetan egiten dute ausiki, edo egin nahi dute. Oinezko soilaren zentzumen arruntenaren ikuspegia bere eginik, ez dute osperik, izenik edo inolako hierarkiarik errespetatzan. Bigarren sailekoen artean bada Jerezeko idazle bat, Juan Bonilla; Bonilla honen obsesioa Tàpies da, edo hobeki esateko, bere obsesioetako bat Tàpies da.

Mende honetako arku-jaurtitzailleak oso bereziak dira –esaten digu–: sekula huts egiten ez duten artistak dira, beti asmatzen dute dianaren erdi-erdian; eta nola ez, euren exegetak badoaz gero haiek gezia ilkatu duten tokiaren inguruan diana marraztera. Tàpies adibi-

de ona da. Tàpiesi sekulako garrantzia ematen zaio, eta aditurik ahoberoenek mende honetan izan diren bost margolari handienetako bat bera dela esaten dute. Tàpiesen zirriborroek prezio izugarria egiten dute arte-burtsan, genialtzat hartuak dira, edo horrelakotzat hartzen dituzte kritika artistikoaren profesionalak ematen dituzten azalpen intelektualei jaramon egiten dietenek [...] Ez dakit ba. Nik Tàpiesen koadroak dozenaka ikusi ditut, eta guztien aurrean erantzun berbera eduki dut, monosilabo batean laburbiltzen den erantzuna: ba! Eta hortik zehar Tàpies gurtzeko idazten diren gauzak irakurtzen ditudanean sutu egiten naiz. Gimferreren hau, esaterako: «Tàpies pertenece a la stirpe más augusta de pintores: la de los que crean un idioma exento de toda trabazón ajena a su propia lógica interior, precisamente porque se manifiesta mediante datos del mundo material que persistentemente están expresándose a sí mismos, este arte de la inmanencia alcanza la verdadera zona de lo transcendental, que en el caso particular del arte sólo puede consistir en un absoluto artístico» [txostenegilearen oharra: hau ere bere hartan doa, denbora eta gogo faltaz] [...] Inork azaldu ahalko balit Gimferrerrek zer azaltzen duen, horrelako azalpenak eragin zituen Tàpiesen koadroaren aurrean monosilabo bat baizik ez zitzaidan aterako: ba! [...] Tàpies baten erreprodukzioa daukat aurre-aurrean. «Berniza sudur eta gurutzarekin» du izena. 84koa da. Gaizki marraturiko sudur bat dago, eta gurutze bat, batuketaren zeinuaren antza handiagoa duena Jesukristo hilduratzeko erabili zuten tresnarena baino areago. Gai-nontzekoa: zirriborro horiak. Ezagutza? Eredu morala? Absolutu artistikoa? Edertasuna bere osotasunean? Baita zakurraren putza ere.

Ez naiz ni izango arrazoi falta duela esango duena. Arrazoi zati bat bederen. Baina neronek ere ez dakit ba, zenbait jarrerak, muturrera eramaten direnean, susmoz betetzen naute, larritzen naute. Esate batera honako hau esaten duenean:

Nik ez dut esango Göbbelsek asmatu zuela 1936an arte-kritika debekatu zuenean, baina aitortuko dut zenbait arte-kritikari irakurtzen dudanean denboraren makina bat edukitzea desiratzen dudala, kritikari horiek denak bertan itxi eta nazien Alemaniara bidaltzeko.

Ez dakit ba, agian hitz egiteko modu bat baizik ez da, purrus-

tada bat, baina... Jostatzeko eta irri egiteko gogoia edukiz gero, nahiago, aukeran, hau bezalako zerbait:

Ingalaterrako Enrique VIII.aren erretratua, Holbeinek egina. Elefante-ehizaldia ikusi nahi izan da, koadro honetan; baita Errusiako mapa, Lira izar-multzoa, Enrique VIII.az mozorrotu zen Aita-saindu baten erretratua eta Sargazo Itsasoko ekaitza ere; are, Java aldean hazten den polipo erreantzeko hori ere bai, limoiaren eraginpean doministiku egin eta emeki-emeki putz eginik iraungitzen dena. Interpretazio hauetako bakoitza zehatza eta egokia da margoaren konfigurazio orokorrari erreparatzen bazaio, bai eskegita dagoen bezala so egiten bazaio, baita buruz behera edo albotik begiratzeko bazaio ere [...] Ia harrizko bihurturiko enbata honetan lehoiabarren arteko gatazka ikusten duena ez da okertzen. Baina badira, baita ere, bolizko sastakai geldoak, galeria luzeetan asperrak akitu dituen morroiak, eta legenaren eta alabarden arteko elkarrizketa bihurria [...] Alegia, ondorioa, honako hau da: «ez dago hirugarren dimentsiorik, lurra laua da, gizona narraz ibiltzen da. Aleluia! De-abrua da, agian, hau guztia esaten duena, eta agian zuk sinesten dituzu errege batek esaten dizkizulako».

Etz dakit ba, txantxaren bidetik ekinez gero honelako zerbait nahiago, tonu hau maiteago. Hau, zehazki, *Hiru margo ospetsu ezagutzeko argibideak* izeneko testu batetik hartua da, Julio Cortazar delako batek idatzi zuena. Baina ez naiz justua izaten ari, inori ezin zaio eskatu Cortazar izatea.

Hala ere, gutxi gora behera berdin zait, nik azpimarratu nahi nuena zen Bonilla ez dela konturatu —edo agian ez zaio inportagauza batetaz; konforme, onar dezaket hipotesi bezala arte moderno *bluff* erraldoi bat dela, berak esaten duenez «haur-jolas zintzotasunik gabea». Baina orduan, berak hartzen duen ikuspegi berbera hartuz —oinezko soilaren zentzumen arruntenaren ikuspegi—, ez al genuke gauza berbera esaten ahal gaurko poesia eta literaturaren zatirik handienari buruz? Baietz uste dut. Garbitzailak obra-arte bat zikinkeria dela ustez eskobatzen duteneko anek-

dotak oso libertigarriak dira, hagitz irriagarriak, baina, zer esaten dio garbitzaile horri berari mende honetako poesia guztiak? Beste hitzetan esateko, zer egingo luke literaturak bere ondoan bere exegesia ez balu? Eta musikan ere –musika *garaikidea* eta horrelako izenak hartzen dituen musikaz ari naiz– ez al da gauza berbera gertatzen?

Hau da, nire inpresioa da, funtsean, mende bukaera honetan literaturak daukan egongunea eta pinturak daukana oso antzekoak direla. Eta iruditzen zait, gainera, egongune hori eustezina dela, epe luzean edo erdian, gaurko koordinadetan segitzen badu bederen, are eta gehiago gureak bezalakoak diren literaturetan, erlatiboki literatura txikiak baitira. Ni segurua nagoena da aldaketa sakonak badatozela, nahiz eta ez dakidan aldaketa horiek zertan eta nola eragingo nauten, nondik etorriko diren. Aldaketa-susmo horiek atzeman litezke, agian, Guggenheim bihurtzen ari den masa-espektakulua eta fenomenoari begiratuz. Bai, Luis Fernandezek esaten duen bezala, Guggenheimen *kaiku* gehienek eskulturetan paratzen dituzte ipurdiak eserlekuak direlakoan, baina milioika doaz, aizu; bada esaten duena hori ez dela pinturaren arrakasta, arkitekturarena baizik, are yankien merkatutekniarena, espekulazioarena edo eta ostalaritzarena ere, baina ez artearena. Auskalo, litekeena da. Baina, edonola ere, arte moderno museo bat masa-espektakulu bihurtzea gertaera berria da, eta gertaera honek ekartzen ahal duke ondorioren bat Bilbon bertan, demagun, obra plastikoa egiten saiatzen den artista edo dena delakoarentzat.

Literaturari dagokionez, ezin jakin zer gertatuko den, ez dut hori irudikatzeke nahikoa irudimen edo nahikoa informaziorik, susmoak baizik ez dauzkat, garai berriak datozelako susmoak. Horregatik, «literatura eta... x-i buruz» mintzatzea, gaur egun, neurri batean zentzugabea iruditzen zait. Kultur munduarekiko

dudan jarrera hutsaren hurrengoa da, guztiz garrantzirik gabea; hortaz, artikulua luze honi justifikazioa bilatu behar izatekotan, aurkitzen ahal diodan justifikazio bakarra da esatea literatura, komunikazio eta erabaki kulturaletikiko aitona naizela, adin kronologikoa bazter utzirik. Bai ba, Baztanen azken mendiko puntako baserrian irratitari atxikiak bizi diren aiton-amona horiek bezalakoa naiz.

Horregatik deitu dizuet aspaldikoak mintzaldiaren hasieran. Uste dut inor ez zela minduko, espero dut honek guztiak solasaldi baterako gaia emango dizuela.

Duela hamabost bat urte sortu zen Uztaro artelantegia, Maulen lehenik, eta orain Mendikotan kokatzen dena, Sanjuan Alberdi eta Gonzalo Etxebarriak kudeatzen zuten Pitxu batasunaren hildotik. Hain zuzen ere, ordutik, bilbotar barkoxtarra den Gonzalo Etxebarria geratzen da, Thierry Hullinekin batera Uztaroren bihotz bigun gisa. Erran gabe doa, bi kide «historiko» horietaz gain beste langile eta sortzaile franko biltzen dituela bere baitan elkar-teak.

Pitxuk bere denboran animazio kulturala antolatzen zuen Zuberoan, eta ontsa oroit gara marrazki-liburutto bat elki zutela euskaraz, Altzaiko herensugearen esaunda gaurko itxuraz horniturik eskainiaz edozein adinetako irakurleri. Ordea, 1987ko urriaren 3an, Sanjuan frantses estatutik kanporatu zuten. Hargatik ez zen laborantzagune hauetan «iraultza kulturala» gelditu, artista taldeak Uztaro izena hartuz aitzina egin baitzuen.

Mendikotako sortzaile-taldearen moldea aniztuna da, eta artea Zuberotar egunerokotasunean txertatzen digute, edozein besa edo ospakizunen kaietara, dela Urdiñarben musikaren egunean nornahi tindatzaile bihur daitekeenean, dela ikastolako eginkizunetan afitxa zinez eder oparitzaile gisa, dela Herri Urratsen, dela Xiru Gotaine-Irabarneko jaialdian, non aurten Tingelyren estiloko makina biribildun erraldoia aurkezten zuten. Ametsa, artearekilako hurbiltasuna ematen digute ateratzen direnero: Zuberoa bezalako aire libreko erakustoki zuzenagorik badea?

Ahantzi gabe, taula-apingarri monumentalak eraiki ziztuztela Pier Pol Berzaitzek 1995ean ondu zuten Elkanoren Semeak ikusgarriarentzat, hain handiak non ez baitziren heldu Mauleko Jai-Alaiko agertokian haien sartzera. Errealizazio horietaz gain, kultur-animazioaren eragile dira eskoletan zein Mendikotako beren egoitzan marrazki eta pintura-ikastaroak luzatuz arratsalde apaletan, haur eta gehituei. Gorago erran bezala, azken urteotako Zuberoko afitxagintzaren zatirik handiena haien eskutik hedatzen da, bestela triste, pobre eta hits liratekeen herriko hormetan. Muntatzen den besta bakoitza Uztaroko sortzaileentzat gertakizun bakuna da eta ardura egiten dituzten afitxak begiratzekoak dira. Halatan Uztaro lantegiaren ekina eta ekimena norabide zehatzen mugetan, mila bidetan zalapartatzen da, beti ere kultura pentsatzen eta obratzen den lekuetarik urrun dagoen nekazalgune batek artearekilako hunkimena eta dastamena beharrezkoa duela sinetsiz.

Uztaro artelantegiak, multimedia ikusgarriak antolatzen ditu, ikusgarrietan parte hartzeaz gain, eta idazle gisa bi aldiz ukan dut aukera haiekin bide puska baten aztaltzeko, 1991ean eta 1997an. Bi projektuetan, testua idatzi nuen, Uztarok muntatzea helburu:

- **MUNDU MINERALAK:** 1991ko apirilaren 15ean hasi nintzen Mauleko postan lanean. Handik laster Gonzalo Etxebarriaren dei bat ukan nuen, larrazkenerako ikusgarri baten plantatzeko xedea zutela jakin araziz. Haien ideia zen, dantzaz, makina erraldoiez, botzez, argazkiz, eta musikaz idatziko testu baten ilustratzea. Oinarrizko olerkiak udaldean idatzi nituen, Li Bai txinatar poetaren urratsen arrotasuna, aurkitzen eta usaintzen ari nintzen Mauleko karrketan ibil araziz. Lantegi hertsien ate-gibele-tako misterioak, altzairu abandonatu urrinez inguratuak, mahain gurientsuetako gaueko solasak, maiteminak eta «partitzeko» gutziak jarri nituen idazkian. Uztarokoek horren aitzakiaz argazkiak,

koreografi berriak, hegazti animaleak asmatu zituzten, hots-bandan testua nihaurk irakurtzen nuela. Maiteminaren Kantua Peio Serbiellek eman zuen pianoan. Oren bat baino gehiagoko ikusgarria Mauleko Etxahun gelan estrenatu zuen urte hartako urrian, eta nik Durangoko azokan ikusi nuen oso hunkiturik.

- ABADIAREN IZARRA etorri zen 1997an, Sohütan ikastola berriaren eraikitzen ari ginela. honen alde eta sustenguz, eta baliatuz Abadia Ürrüstoiren hiltzearen ehungarren urtemugaren ospakizunak iragarriak zirela bazter guzietan. Idatzi nuen testuak garai hartako gure nekezia kolektiboak gatibatzen zituen, alegia «indar normalean antagonisten» kontrako oldartzea eta oroz gainetik ihardokitzea. Rimbaud eta Abadiaren arteko lotura kausitu nuen, Chardesvilleko poeta «iluminatuak» bere amari Abadiaren amharena hiztegia eskatzen zion gutunean. Hortik hara, Barnekaldeko desertu kulturalan, bi etiopiarren ibilbideak guretuak ziren. Testua, abestien hitzak barne, Maiatz aldizkariaren 30. zenbakian atzeman daitezke.

Uztarokoek lan handia eraman zuten idazkian oinarrituz ikusgarriaren orekatzeko. Barne/Kanpo-junta eta haustura molde askotara agertu zuten, tradizio eta modernismoa nahastekatuz, euskal eta beste kulturak bilduz, Manuel Maria galiziarraren «Laborarien haur-begiak» olerkia kantatu zuten adibidez Tehenta taldekoek, Miquel Marti Pol eta Glenmoren poesia bana ere, pastorala eta antzerkia bideo-filme surrealista baten maneran eman ziren. Abeslari talde bi zeuden, aipatu Tehenta taldea eta Abadia Ürrüstoi ikastolako pastoraleko abesbatzeko hamar ahots zoragarri—the dream team egiazki—, Mixel Etxekopar arizan zen musika ontzen, antzerkilariak Mixel Fouchetek gidatu zituen eta Nicole Lougarotek dantza piko berriak asmatu zituen Muskildiko dantzariantzat. Tauladan laurogei bat jende agertzen ziren, Uztarokoek irudikatu apaindura harrigarri bezain erraldoiez lagundu-

rik. 1997ko urriaren 18an Mauleko zinegelan eskaini zen hiruehun bat behatzaile aldi berean inarrosi, kezkatu eta konkistatuen aurrean. Landagune, baserrigune batean, zinezko ikusgarri kale-tarra zen, nahasia, polifazetikoa, aniztuna, folklorekerietatik urrun, norabide guzietara irekia eta horrek bide zituen Miarritzeko antolatzaileak, «Abadiaren Izarrak» ikusgarria, hitzartu bezala, Festivalen Jauregira gomitatzetik gibelatu.

Horiek dira bi esperientziak.

Bururatzeko, erran gabe doa, Uztarokoen zerbitzuko nagoela beti eta betiko, dela ikusgarri, dela literaturaldikari baterako, edozertarako funtsean, testu presatuen premian daudenean, artea eta literatura euskaraz, jendei hurbilagotzeko gogoia edukitzen dutenero hots! Azpimarratu nahi nuke azkenik, Uztarokoek tradizioa oraingoturik eta abangoardia, munduko hiri nagusietako bebarruetan amesten den eran, biak uztartzen dituztela, eta ez dutela etsitzen gustuen eta jujamendu errezen arroila gainditzeko saioetan. Uztaro artelantegiaren atzaparra edonon harrapa daiteke, baina batez ere egunorokotasuna hausten, Zuberoa alegeratzen, geroa finkatzen, artea premia absolutuzko ekintza bailitzan. Uztarokoek, errealitatera ekartzen dizkigute bestela egiazta ezinak diruditen obrak. Herrialde urrun eta kultur baliabide gutidun honetan Uztarokoek dena dela posible sinestera behartzen gaituzte. Hauxe da haien indarra, noski.

Galeuzca honetan parte hartzeko gutizia handia nuen, ahots zuzenez Uztaro artelantegiarekin eraman ditudan bidetxo hauen aipatzeko. ordea ez dut egunik lortu; halarik ere hemen zaudeten idazle katalandar, galiziar eta euskaldunak agurtzen zaituztet.

Goraintziak.

Maule, 1998ko urrian. Donajakue 1998.

Julio Cortazarrek honako hau idatzi zuen:

Todo es escritura, es decir fábula. ¿Pero de qué nos sirve la verdad que tranquiliza al propietario honesto? Nuestra verdad posible tiene que ser *invención*, es decir escritura, literatura, pintura, escultura, agricultura, piscicultura, todas las turas de este mundo. Los valores, turas, la santidad, una tura, la sociedad, una tura, el amor pura tura, la belleza, tura de turas. ¹

Euskal Literaturan, idazte soilarenak ez diren *Tura* horiek egiazki egon ote diren eman nahi da aditzera lantxo honetan edo, behinik behin, plastika eta literaturaren arteko mugak hautsi eta elkarnahasi ote diren noizbait, adierazpide berriak sortzeko asmoz. Diziplinen berezitasun ezberdinak profitatu ote diren, *totus* berriak sortzeko. Azken finean, askatasunik erakutsi ote duen norbaitek, plastikatik literaturara eta alderantziz, zubigainean txistuka eta lasai iragateko.

Hasi aurretik, ordea, mugak jarri dizkidate, jarri litezkeen mugarik ankerrenak, gainera. Espazioa eta denbora ezarri zaizkit. Espazioa, lau folio. Ez bost eta ez hiru, lau folio. Artzainari larre jakin batetik ardiak atera gabe bazkatu behar dituela agintzen zaionean bezala. Denbora, ostera, hamabost minutu. Ordu laurdena. Otarteko batentzat beste, ez zizkamizkarik eta ez oturuntza ederrik.

Hemen ez zaio inori erreten estuan ibiltzerik gustatzen eta hasieran zera pentsatu dut: karaktere handi edo txikitari idatz dezakedala lantxo hau eta ondoren nik nahi dudari abiaduran irakurri. Karaktere handitan idatzitako lau folio poliki irakur ditzaket edota letra txiki-txikiz osatutako beste lau, azkar-azkar. Ni neu izango naizela agindutako denbora eta espazioaren erregea eta ez Galeusca-ko edozein badaezpadako ordezkari edo agintari. Alabaina, nik esateko daukadan apurra esateak ez dakit merezi ote duen halako altxamendurik. Beldur naiz ez ote diren lau folio eta hamabost minutu, asko baino gehiago izango Euskal Literatura eta Euskal Plastikari buruz nik adierazi behar dudana erakusteko. Egia esan, aski baita Oteiza gure eskultorearen hutsuneetako bat esateko dagoen guztia esateko: zero. Ez da egon eta gaur ere ez dago inolako harremanik euskal Plastika eta Literaturaren artean.

Egia da Anjel Lertxundi, *Zehar* aldizkarian² argitaratu zituen hiru lan gogoangarrietan, saiatu zela gure Arte eta Literaturaren arteko zubiak bilatzen. Anjelen hori da gureari buruz sekula irakurri dudari lanik finena eta, batez ere, borondatetsuena. Izan ere, Anjelek, geu ere bagarela erakutsi nahian edo, inguruko kulturetan bezala, historian eduki ditugun *Zeitgeist* modukoak arakatu zituen lupaz. Garaien izpiritua artegitza guztietan nola islatzen den erakutsi nahi izan zigun berak, baina ondoren zailtasun ikaragarriak izan zituen testigantza eta froga zehatzak aipatzeko. Halarik ere, zazpi koadro, leku edo une hautatu zituen berak, gurean ere, Literaturak eta Plastikak elkar ukitu dutela ilustratzeko.

Nik ez dut ikusten horrela. Niretzat, salbuespenak salbuespen, Euskal Arteak eta Euskal Literaturak ez dute elkarren igurtzirik jaso. Eta segur naiz arrazoia dudala Lertxundi baino ezkorrago jarduteko, askotan borondade teorizatzaile on hutsa baino emankorragoa gertatzen baita egia negargarriaren akuilua.

Oteizaren formulazio estetikoek eta batez ere gaztelaniaz idatzitako *Quousque Tandem...*³ liburuak edukitako eragina handia izan zen politikan, gizartean eta kulturaren. Baina segur naiz gure Literaturan ez zuela txingarririk ere piztu gazteleraz idatzitako halako lan mardularen haize berriak. Izatekotan ere, giza-mundutik urrun bizi ziren fraide eta apaiz zenbaiti ekarriko zien arnas berria, Lekuona eta Gandiaga poetei esaterako. Ez dezagun ahantzi, asko duela izpiritualtasunetik Oteizaren lan estetiko eta teorikoak, eta seguru asko, lehenago natura hutsari kantatzen zioten haiek, gai berri bat aurkitu zuten Oteizaren ekarrian. Euren mistizismoaren adinako bide profanoa aurkitu zuten Oteizarengan, baina, esan bezala, haren arnasarik ez duzue ikusiko zipristin batzutan izan ezean.

Nire ustez Plastikarekin zerikusirik handiena izan duen euskal idazlea Joxe Antonio Artze izan da. Berak 1968garrenean argitaratu zuen *Isturitzetik Tolosan barru*⁴ poemaliburua, eduki dugun lehenengo objektu multimedia izan zen. Poema eder askoak ekartzeaz gain, Artzeren liburu hartan Artearen diziplina guztiak edo gehienak bereganatzeko intentzioa zegoen. Marrazki eta adierazpen plastiko aurreratuez gain, musika ere bazetorren liburu hartan, diska itsatsi eta guzti. Baina baita arkitektura edo gaur egungo arte-kritikariek ponposoki «instalazioa» deitzen den horretatik ere. *Ikimilikiliklik* bezalako jendaurreko bere emanaldi poetikoak, arte ezberdinen bilgune izaten ziren, beste inork sekula gurean egin ez duen bezala.

Artze berari galdetu beharko litzaioke zerk bultzatu zuen hartara, nola hasi zuen oraindik ere erabat itxi ez duen bidea, berak jakingo du hori, baina nik esango nuke, halako edo bestelako korronte edo eragin plastiko zehatzek baino areago, sinbolistek oso maitea zuten «artistatasun» erabatekoak eta inguru zehatz batek jarri zutela lan hartan.

Artzeri diziplina oro interesatzen zitzaiola dirudi, eta ikusten da lagun handiz eta ausartez inguraturik bizi zela: Jose Mari Zabala musikari, argazkilaria eta zinegilea; Laboa kantaria; Zumeta margolaria; Garai arkitektoa eta beste hainbat. Guztiek zuten kezka nagusi berbera: garaiari zegokion ahots berria aurkitzea.

Artzeri, ordea, antropologia ere interesatzen zitzaion, folklorea eta herriaren iragana. Haren emankizunetan berdin entzuten zen doinu dodekafoniko bat edo arraunak toletean egiten duen hotsa. Txalaparta, kitarra elektrikoa edo artzainaren zakurraren zaunka. Aretoaren hormetan, entzuleen aurpegietan, zoruan eta sabaian, pasabideetan eta aulkietan, leku guztietan, poemak eta ilustrazioak agertzen ziren diapositibaz jaurtiak, hots-muntaketa ederrak eta poemen irakurketa sakonak ikuslea irensten zuten bitartean.

Esan liteke Artzek bide expresionistak erabili zituela nagusiki baina ezin horretara mugatu, bere lanek oso maiz, forma herrikoiak ere agertzen baitzituzten hala erabakitzen zuenean. Zentzu horretan salbuespen hutsa izan zen eta da Artze, eta behar zituen espresabideak aurkitzen eta proposatzen yayoa izan zen oso.

Adierazpide guztiak biltzen zituen literaturgintza egin zuen berak edo, gaurko postmodernoen terminologia erabiltze aldera, literatura ardatz zuen *Akzio* edo *Hapening* artistikoa. Orduan nerabe txorora baizik ez zen honentzat, egiazki lortu zuen gainera.

Artzeren lanaz gain, apenas egon den diziplinartekotasun aipagarririk gure literaturan. Agian Atxagak, Iturraldeak eta Ordorikak egin zituzten Sarrionaindiaren omenezko emankizun haiek: *Henry Bengoa*, *inventarium*. Baina han kontsiderandum plastiko ororen gainetik, narratibitatea zuten helburu eta ezin esan liteke proposamen estetiko formalik egon zenik, ez behinik behin, plastikari gagozkiolarik.

Hortik aurrera, zakurraren putza. Ez ditut jarraitu *Susa, Lubaki, Zazpi eskale* eta antzeko taldeen emankizun poetikoak eta akaso pisuzko zerbait galduko nuen, euskal poetikari dagokionean, baina ez dut uste aipatutako horiek ere uztartuegirik erabili dituztenik plastika eta literatura. Hobe bai, oker banebil.

Eta beste aldera? Zertan edo nola eragin du Euskal Literaturak Euskal Plastikan? Badakit entzuleen artean kataluniarrak eta gali-zarrak ere bazaudetela eta ikaragarri sineskaitz egingo zaizuela nire baieztapen borobila. Sinesten ez badidazue ezpedizio berean etorritako euskal idazleetakoren bati galdetu. Eurek esango dizute benetan nabilela: Euskal Artegintzan Euskal Literaturak eduki duen eragina, pigmeoen ahozko tradizioarena baino txikiagoa izan da. Beste modu batera esanda, Euskal Literaturak ikararik ere ez dio eragin sekula Euskal Artegintzari.

Egia da garai erromantikoago edo iraultzaleagoetan, esaterako, paralelotasunik aurki daitekeela artista plastiko eta idazleen artean. Adibidez, Txomin Agirre idazle ohituristaren garaian, ohizkoak ziren ohitura-lanak pinturan ere. Literatura bezain betea dago gure pintura arrantzale, baserritar eta erromeria bukoliko ederrez. Edo Ibarrolak bere langile sufrituak garrasika margotzen zituen garai beretsuan egiten zuen garrasi Arestik langileen alde. Baina kitto. Denbora-espazio kointzidentzia hutsak dira. Elkarren arteko batere loturarik gabekoak.

Ez pentsatu, ordea, gertaera horren azpian arrazoi guztiz korpilatsua dagoenik. Egia borobila da bai, euskal artista plastikoek ezin izan dute eduki inongo euskal idazleren eraginik. Zergatik hori? Nola liteke fisikoki auzo eta kulturaliki garaikide direnen arteko kutsatzerik eza?

Lehen mailako euskal plastikoek ez dutelako sekula jakin euskaraz. Hain sinpleki eta hain egiazki. Oteizak, Txillidak, Basterre-txeak, Ibarrolak, Larreak... ez dute euren bizitza luze guztian

euskararik ikasi. Beti agertu dira arbasoen hizkuntza ez jakitearen minaz kexu, baina ez dute egin fitsik min hori sendatzeko. Nola nahi duzue *mi mamá me ama* euskaraz esateko gai ez den norbait, euskal literaturaren eraginaren menpe egoterik? Are gehiago ia egon ez bada literatur ekoizpen horren itzulpenik eta hedapenik.

Hau guztia gutxi balitz, euskaraz zekiten edo dakiten artista apurrak ere, Mendiburu, Zumeta, Goenaga eta abar, analfabetoak dira edo behintzat, analfabeto funtzionalak. Katuak ezin du jarri sekula arrautzarik. Seguru nago, gure obrarik nazioartekoena *Obabakoak*,⁵ gazteleraz irakurri dutela, baldin eta noizbait irakurri badute. Eta horrela.

Zer gertatzen da baina «etorkizun handiko» gure artista plastiko berriekin? Zer gertatuko da Iglesias, Badiola, Bados, Irazu, Urzay, Lazkano, Morquillas eta abarreko abangoardista itzelen ekarri plastikoarekin? Gaur berrogei urte inguru duten belaunaldi horretakoek edukiko al ezberdintasunik?

Ez eta bat ere. Zaharra berri. Euskarazko kultur ekoizpenarekiko lehenagokoen portaera bera erakusten dute hauek eta, gainera, haiek ez bezala, gure mitologiak, gizarteak, mendiak edo historiak ohartu ere egin gabe, New Yorkeko hiri-gertaeretan aurkitzen dute inspirazio-iturri. Urrutiko intxaurrak beti hobeak, antza. Euren ahazten duen mestizaia unibertsa dute amets.

Asier Laspiur izeneko artista gazte batek, *Datorren milurteko-rako proposamenak* erakusketa egin zuen orain hiruzpalau urte. Argi dago beraren iturria ez dagoela gure literaturan, nahiz eta Laspiur izango den euskaraz normalki irakur dezakeen artista bakarretako bat. Beste zenbaitek Kafka eta antzekoen oihartzunak erakutsi du hainbat lanetan baina ez, nik dakidala, Euskal Literaturak eragindakorik.

Hara, bada, konklusioa: Euskal Plastika eta Literaturaren arteko harremana, hobe bai noizbait egon izan balitz eta hobe bai

noizbait balego. Bien bitartean, ikusten duzue nola izan daitekeen aski eta gehiegi, hitzalditxo honetarako eskaini zaidan espazioa eta denbora. Nola zegoen hasieratik ezereza adierazteko tarte gehiegi.

Alabaina, behin hemen garelarik, hobe zintzoki ibili eta Santiagorako txartela behar bezala irabazteko emandako neurrietara umildu. Bai jaun-andreok, hara hemen sekula egon izan ez dena adierazteko lau orri, bederatzi mila eta bostehun karaktere edo, nahiago baduzue, hamabost minutu. Denak zehazki neurturik.

1998ko Urrian.

1. Cortazar, Julio. *Rayuela*. Edhasa. Barcelona 1977.
2. Lertxundi, Anjel. «Erakusketa bateko koadroak». *Zehar* 30, 31 eta 32. Donostia 1996.
3. Oteiza, Jorge. *Quousque Tandem...! Ensayo de interpretación estética del alma vasca*. Añamendi. Donostia 1963.
4. Artze Hartzabal, Joxantonio. *Isturitzetik Tolosan barru*. Usurbil 1968.
5. Atxaga, Bernardo. *Obabakoak*. Erein. Donostia 1988.

*Arte plastikoak eta literatura:
erakusketa bat eta ohar bat*

Arte plastikoen eta literaturaren arteko harremanez egin behar dut berba. Badut, benetan, horretarako gogo. Baina, duintasun intelektual gutxienezkoa ere badudanez, jantzia lar handia dudala ikusirik, erakusketa ibiltari bati buruz baino ez naiz mintzatuko. Erakusketa hori 1996ko erdialdera antolatu genuen zenbait lagunek, eta 97ko hasiera arte luzatu zen. Ez naiz askoz gehiagoren gainean ibiliko.

Antolatzaileok bi izan ginen, zehazki, *Bilboko Zazpikaleetako Euskal Txokoa* kulturelkarrea eta toki bereko Lizardi-AEK euskaltegia. Honatx erakusketari jarri genion izena: *Hitz zahar / Bilbo berri*. Asmoa kulturmundu bi loturik erakustea zen: pintoreena eta idazleena. Antolatzaileok hamabost pintore eta hamalau idazle bildu genituen, guztiek nolabaiteko lotura zutela Bilborekin. Erakusketa hartarako paratu genuen diptikoan jendeak, ikusle-irakurleek, honakoa irakur zezaketen, besteak beste:

[...]

Erakusketa honek nahi baino gutxiagotan uztartzen diren bi kulturmunduren agerpena izan gura du; hots, idazleena eta pintoreena. Hamabost pintore eta hamalau idazle, hogeita bederatzia artista finean, Bilborekin guztiek dutela nolabaiteko lotura. [...]

haien baitako geografia, paisaia intimoak artistikoki eta elkarlanean agertzeko aukera izan da oraingoan elkarri lotu dituen.

Huraxe da, izan ere, erakusketaren elementu berezietako bat, ez baitiogu inori ezer inposatu nahi izan. Honen antzeko ekimenetan gertatzen dena zera da, sarritan idazleari irudi bat interpretatzea tokatzen zaiola, edo pintoreari testua, eta halakoe-tan, beraz, batzeez baino inposaketez hitz egin behar da; berriz, aukera eman diegu pintore eta idazle batzuei elkar ezagutu eta, bikoteka bilduz (horietako bat hirukotea izan da), beren munduak askatasunean uztartzeko eta gogokoen dituzten agerpen plas-tiko-literarioak sortzeko, edozein motatakoak direla ere.

Azken batean esperientzia aberasgarria sortu nahi genuke, bai gugan, antolatzaileengan, baita ikus-irakurle goarengan... baina batez ere partaide izan diren artistengan, hau da, pintore eta idazleengan.

Hona hemen [...], antigoalekoek esango luketen bezala... izpiriturako elikagaia. Ez baikara soilik hanburgesez eta telebistaz elikatzen.

[...]

Horratx sarrera lez antolatzaileok idatzi genuena. Bistan de-nez, bikote bakoitzak bere muga sortzaile eta erlazionalak zehaztu zituen. Kontaktua, beraz, desberdina izan zen kasu bakoitzean: elkarlan estua, batzuetan, eta lan indibidualizatuagoak, besteetan. Teorian, behintzat.

Denbora pasata, emaitzez mintza gintezke. Hiru multzo egin genitzake, nik uste: 1) elkarrekiko interpretazioa ala bakar batena; 2) aldez aurretik zehaztutako gai baten inguruan sortu diren sorkuntza-lan beregainak; eta 3) elkarrekin egindako sorkuntza-lana (euskarri bakarrean, bikoiztuan edo bestelakoan).

Hala, lehenengo kasuan, alde batekoak obra eramaten zuen.

Idazleak egin ohi zuen, euskarri erosogoa delako ziurrenik, sortzeko denbora laburragoa ere badelako eta, batez ere, ohitura oso zabal bategatik: testuaren aurrean pintoreak ilustratzaile papera hartzea. Konstatazioa baino ez dut egin. Ohikoagoa da, besterik gabe eta argi esanda (norberak hausnar dezala zergatikoa), testuaren interpretazio piktorikoa, irudiaren interpretazio grafikoa baino.

Bigarren kasua hau da: bikotea bildu da, gai batez edo batzuez pentsatu sakontasun berezitan ibili barik eta nahitako independentzia-gogo batekin, ondoren bakoitzak bere bidea hartu, nahi duena sortu eta, akabuan, erakusketan obra bakoitza bestearen ondoan agertu dute.

Hirugarren kasua, dudarik gabe, interesgarriena da. Oraingoan kontua ez da zerbait interpretatzea, ezta ere gai esplizito baten gainean zeredozer sortzea, ezpada osotasun konposatu bat sortzea, denbora berean piktorikoa eta literarioa izango dena.

Gure erakusketan ia inork ez zuen azken bide hori hartu. Nik, hortik, neure ondorioa atera dut: arte plastikoen eta literaturaren arteko harremana, kasu gehienetan, elkar interpretatzera mugatzen da. Oso urriak dira amankomuneko esperientzia sortzaileak; eskatzen duten ahalegin eta denboragatik, apika. Beharbada ere, tradizionalki izan den pintoreen eta idazleen arteko komunikazio sortzaile ezagatik. Ez nabil komunikazio pertsonalaz edo intelektualaz, hori bai ematen baita, nahiz eta ez jendeak uste duen beste, sinbiosi zintzo eta benetakoaz baizik. Horregatik hitz egiten dugu beti ekintza puntualez edo sortzaile bakar baten lan piktoriko-literarioez.

Hain zaila al da, baina, osotasun bat sortzea? testuen eta irudi piktorikoen arteko konbinaketa? lengoia amankomun eta era berean bereizia duena? artelana ikusmen-gozamen eta era berean irakurketa estetiko eta hausnartzailea izatea?

Ni ez nator inondik inora bat gai honetaz irakurri ditudane-kin. Berriz, iruditzen zaidana da Arte izeneko horien artean oso mestizaia gutxi dagoela. Aberaste artistikoa egon izan da, bai, baita adiskidetasun sortzailea ere, baina ez da inola ere hibridazio-rik egon.

Han hemenka ibili naiz bilaka eta azterka, historia korrituz, mestizaia horren aztarna errealik topatu guran. Zeredozertxo to-
patu egin dut. Kaligrama grekoekin has gintezke, egun poesia bisuala deituko genukeen horrekin; hots, aipatu elementua iru-
dikatzten duten tipografiak, berez irudiak ere badiren poemak. Geroago, *Libro de Aleixandre* lanean ere, XIV. mendean, testua-
ren inguruan kaligrafia eta pintura ikus daiteke, letrak zein le-
rroak irudi poetiko bakarrean lotuko direlarik. François Rabelai-
sek ere (XVI. m.) irudikapen piktorikoak erabili zituen poemen
bazterrek irudi-itxura har zezaten. Migel Angelek, mende berean,
irudiekin batera nahastutako ohar eta poemak ere baditu. Gure
mendean, Gillaume Apollinairek ere tipografia berezia sortu zuen
objektu jakin bat irudikatzeko, bertsoak eta irudiak bategiteko.
Eduardo Txillidak ere baditu horrelakoak, irudietan integratu-
tako poemak, elkarrekin konposatuta eta eraikiak daudenak, ez
bereizita. Hala ere, Philip Gustonek (1913-1980) Musa McKi-
men (1908-1992) poemen gainean sortutako poema-marrazkiak
izango dira, ziurrenik, testu eta grafiaren arteko harremana nabar-
menki argien ikusten diren lanak. Haren poema-marrazkiak, *poem-
pictures* ingelesez, testua eta grafia integratzen dituen lanak dira.
Ez dira ilustrazio soilak. Gustonek, nolabait, ikusteko testuak
sortu zituen, ilustrazio narratzaileak.

Azken adibide hori da, Philip Gustonena, Arteen arteko bene-
tako mestizaiaren erakusgarriarik argiena. Berak erakusten du neuk
lehenago adierazi dudana eta geuk, erakusketarekin, egin nahi
izan genuena. Horretan saiatu ginen, behintzat. Huts egin ge-

nuen, nolabait, lehen esan dudan legez, emaitza gehienak testua-
ren «ilustrazioa» baino ez ziren eta. Izan ere nire iritzia baino ez
da, baina bada zerbait behintzat: ez da erraza zerbait berria sor-
tzea, are gutxiago elkarri elikatzetik biziko diren hitzez eta irudiz
eraikitako lanak.

Autoz nindoan, nire arretea gehiegi kilikatzen ez zuen obra sinfoniko bat entzuten: entretenigarria zen pieza, bai, baina gelbera samarra. Musika amaitu zenean, Saint Säens-en *Dantza makabroa* entzun nuela jakinarazi zidan esatariak. *Makabroa* adjektiboa eta *dantza* izena entzun eta konpositorea nor zen jakite hutsak erabat itxuraldatu zituzten ordu arte guztiz sotilak eta aurreiritzirik gabeak izandako nire inpresioak. Entzuten ari nintzenean, ez zitzaidan pieza makabro bat iruditu, ez zitzaidan burutik pasatu iragan mendekoa izan zitekeenik ere. Baina Saint Säensen izena entzun orduko, musika egiteko modu klasikoetara itzuli nahi zuen konpositore frantsesaren irudi bizarsarria nagusitu zitzaidan.

Handik egun batzuetara diskoa erosi nuen, eta halatan jakin nuen *Dantza makabroa* obrak Cazalis izeneko bigarren mailako poeta baten hitzak zituela sostengu:

Zas, zas, zas, Herio, pausoari pauso, bere orpoaz hilobi-gaina kolpatuz, haren biolinak, zas, zas, zas, dantza-aire bat jotzen duela-rik...

Harrezkeroz ezingo dut Saint Säens autoan nindoan hartan bezain xalo entzun, eta piezako *zas, zas, zas* jostariak ere ez du orduko arintasunik izango: informazio mordoa erantsi zaio, ordutik, hasiera bateko entzuketa xalo usteari, eta *xalo usteari* diot, ez baitago inolako xalotasunik kutsatu gabe dagoela iruditzen zaigun kultur-ekarpen primitiboenean ere.

- Entzun berri didazue agian ezagutzen ez duzuen Cazalis hori bigarren mailako poeta bat zela. Baina neuk ez dakidan kontua da hori. Zabalkunde-liburu batean irakurri nuen eta nik han irakurritakoa errepikatu dut. Nik *Dantza makabroa* izeneko poema ezagutzen diot Cazalisi, ez besterik. Eta pieza hori hats poetiko gutxikoa da, baiki. Baina nor naiz ni poema bakar batek eragin didan inpresioa extrapolatu eta poeta baten artegintza eta obra osoa juzkatzeko, bigarren mailakoa dela esanez? Baina egin egin dut bilaukeria, eta distortsio zirtzil bat utzi dut airean. Utzi dut airean distortsioari erantsi nahi izan diodan zuriketa hau ere... Eta orain, *Dantza makabroa* entzuten hasiko bagina, edo Cazalisen poemak irakurtzeari ekingo bagenio, nik esandako guztia bidaialagun izango zenukete langintza horretan...

- Gutariko bakoitzaren obra errerereferentzien, aipuen, irudien, metaforen, erritmoen, deskribapenen lubizi etengabea da: liburu batetik bestera, liburuetatik irudietara, irudietatik hotsetara eta hotsetatik liburuetara, disziplina guztien arteko joan-etorri etengabea alde batetik bestera lerratuz doan lubizia...

Gure obrako joan-etorri asko kontzienteak dira, baina, sarri, ezkutatu eta mozorrotu egiten ditugu badezpada eta inork ezer esan ez dezan. Ezkutatzen zailak gertatzen zaizkigunean, testuan integratzen ditugu, biluzik eta lotsagabe, irakurleari egin nahi omen diogun keinu baten aitzakiaz; edo baita intertestualitatea deitzen duten baina nik konplizitatea deitu nahiago dudana ban-deratztat harturik.

Baina erreferentzien lubiziak irakurketek, irudiek eta hotsek gudan utzi dituzten arrasto inkontzienteak ditu iturri nagusi. Eta, gutxien espero dugunean, klandestinitate osoz irteten dira azalera. Irakurle abisatu batek halako bat seinatzen digunean soilik ohartzen gara inkontzienteak bideratutako erreferentzia, aipu edo irudi horretaz:

Aizak, hire eleberrian ageri den arratsaldeko argi hori eta Stendhalen *Gorria eta beltza* liburuko halako eszenetan ageri dena berdinak dituk.

Eta, bat-batean, zure irudimenak Stendalhen eleberria irakurri zenuen arratsalde hartara eramane zaitu, eta argia ahitzen ari zelarik lanpara piztu zenuenean bizi izandako inpresioaz oroitu zara...

- Horregatik, beste diziplina artistikoei nire obran izan duten eragin kontzienteez soilik hitz egin dezaket. Eta horien artean, zinearena da, baiki, eraginik garbiena eta baita landuena ere. Eragin hori da, halaber, irakurleek sarrien seinatzen didatena.

Uste dut idazten ari naizenean kamera bat daradamadala barruan. Kameraren aginduetara mugitzen dira pertsonaiak, zineak erabakitako legeen arabera hurbiltzen edo urruntzen ditut bi pertsonaia, zinematografikoak dira bi planoen arteko elipsiak... Eta logika hori hausten dudanean ere, logika zinematografiko baten erreferentzian gertatzen da hausketak.

Baina horretarako ez dago zinea egin edo telebistarako idatzi beharrik; gaur inork ezin dezake zinerik ez balitz bezala idatzi, eta, halaber, azken balaunaldietako poesiari ere ez zaio batere arrotza *rock* eszenategi bateko argi, hots eta erritmoa...

- Zinea baliatu, bai, baina ez zineak askoz ere hobeto kontatuzakeen istorioak kontatzeko.

- Halako istorio posible baten hasikinari bueltak hasten naizenean, istorioak izango duen argia erabakitzen dut lehendabizi (filme bat errodatzen hasi aurretik zuzendariak eta argazkilariak filmeko argia erabakitzen duten oso antzera). Margolari ezagunen liburuak errepasatzen ditut nahi nukeen argi-tonuaren bila: gau hegohazetsuetako urdina, arratsaldeko gorristara, astalainoen grisak... Margolaria erabakitzen dut, bada, lehendabizi, eta margolariaren bizpahiru irudi aukeratzen ditut gero. Halatan, idazten hasi

aurretik, erabakita daukat testuak eramango duen argia, eta argi horrek lagunduko dit lanak irauten duen denbora osoan. Gauza bera egiten dut gero musikarekin ere, eta pieza bat edo gehiago hautatzen ditut. Lana aurrera, baliteke argi edo musika gehiagoren premian izatea, baina ez da arazoa: behin marko orokorra hautatu eta gero, etorriko diren gainerako hautamen guztiak marko orokor horren baitan kokatzea da kontua, aire berdintsua duelako hemen, kontrastea egiteko hor...

Zinari zor diot hori eta lasaiago ibiltzen naiz orain. Praktikoa da eta asko laguntzen dit. Litekena da irakurleak ez ikustea Sorolla eta Sorollaren argia nire pertsonaietako bat hankahutsik itsasertzertzerantz doanean, han aurrean duen belontzirantz... Litekena da inork ez entzutea Mozarten Hileta-musika masonikoa haur batzuek elurretan Robert Walsarren gorpua aurkitzen duten beste eszena hartan... Baina hori guztia ez dut egiten inor aztarna horien atzetik saia dadin ere. Nire erreferentzia eta nire gida moduan erabakitzen ditut, bidaia luzea izango baita, eta neurri guztiak hartuta ere, zaila izaten baita tonuaren batasuna gordetzea obra osoan zehar...

- Elementu bakoitza sistema batean integratzen da, osagai bakoitzak beste askoren oihartzuna dakarkigu, erlazio bakoitza beste erlazio baten metafora da, amaierarik gabeko ihesaldi batean...

- Eta *mise en abîme* etengabe horrek eragindako zorabio horretan, arteak horixe du helburu: elementuen birkokapen etengabea, egokipen berrien saio amaierarik gabea, «lehen zehatza zenak ez baitu bere tokia aurkitzen», Claudio Rodríguez poetaren hitzekin esateko. Eta lehen zehatza zenak bere tokia aurkitu uste duenean ere, berehala uzten dio zehatz izateari, eta kokapen berrien bila abiatu beharko dugu ostera...

- «Besoetan neraman nire alabatxoa. Lo zegoen, burua nire sorbaldan atsedendurik. Ezerk ere ez zuen haren loa galarazten. Artean ez zuen oroimenik.»

Patrick Modianoren *El libro de familia* liburuko azken hitzak dira. Alabatxoa besoetan. Lo. Ezerk ez du haren loa galarazten. Ez dauka mundua ordenatzeko premiarik, artean ez baitu oroimenik.

Jaun-andreak:

Kasu. Kontuz ibili. Zelatan dauzkagu.

Aulkiak, su-itzalgailuak, lanparak, komunak, atepak, ormatik zintzilikaturiko atepak, koadroak bailiran erakutsiak. Koadroak, harriak, leihoak, harrizko paisaiak enmarkatzen. Koloreak, pigmentuak, artelanak eta erabiltzeko tresnak. Hortxe ditugu zelatan. Zain. Ez dute hitzik egiten; objektuak, bai eta arte-objektuak ere, mutuak dira. Baina entzun egiten dute. Grinaz.

Berezkoa dute grinatsu izatea. Garaiotan inork ezin baitu baiez-tatu zer den –eta are garrantzitsuagoa dena, zer ez den– artelana. «Objektu artistikoa –dio H. Rosenberg-ek– *objektu grinatsua* da; hark berak ere ez daki maisulana ala iruzurra ote den.»¹

Bere segurtasunik ezak egonezina sortarazten digu. Denok gelditu izan gara inoiz, arte garaikideko museoren batean, su-itzailgailuaren leihatilari begira. Eta zergatik ez? Erabilera arrunteko objektuak, hipermerkatu batean erosiak nahiz txatartegi batetik bilduak, artelan izatera hel daitezke. Hel litezke. Zergatik ez?

Artelanak deskonektatu egiten dira, instalatu egiten dira. Erakustaretoko zorura, beruna, harea, azukrea, harrikoxxorrak edo argizaria botatzen da, harri-tonak pilatzen dira. Museoko kontserbazio sailak, egun, irensgailua pasa, jantziak garbitu eta lisatu egiten ditu, belarra eta egurra pilatu, landareak ureztatu, neoiko fusibleak aldatu, Tb-ko monitoretako tutuak berritu, animaliei jaten ematen die. Artelanak gauero zaharberritzen dira. Merkatari-tzako ordutegi bera dute. Guggenheimeko atea zaintzen duen txakurtxoaren errestauratzailea loradenda bat da.

Grina horri aurre egiteko modu bat hitzez estaltzea dute. Artelan eta objektuek, guk idazleok trebetasun handi edo txikiagoaz erabiltzen ditugun horien boterea behar dute: hitzen beldur dira. Hitzen menpekoak dira.

Hitzek dute ezagutzen eta aldarrikatzen obra baten egiletza, hots, egiazkotasuna; sinadura bat, izen bat. Gero, titulua, obrari xede bat eranstea. Azkenik, data, obra hori historia batean, ideia-ingurumari batean kokatzeko.

Beraz, funtzionariaren hitzak behar dituzte, Erakundearenak. Hitzen bidez lortzen dute artelanaren estatutua. Hurbil zaitezte su-itzalgailu batera. Errotuluetan iraungitze-data eta gainerako datu teknikoak baino azaltzen ez badira, erabil ezazue sutea itzaltzeko. Izen bat baldin badago, titulu bat eta data bat (*Izenik gabea. Titulurik gabea. Datarik gabea*), kontuz: artelan bat da.

Behin Artetasuna ezagutu zaionean, artelanak hizpide izan nahi du, hizketari bidea egin, aztertua, baloratua, interpretatua izan. Adituaren hitzak behar ditu. Kulturaren hitzak, espezialitatearenak eta, halaber, plazerrarenak.

Eta hauek, poetaren hitzak dira: irakurkidearenak. «Idazleak pintorearen lanei itzulpena eginaz begiratzen die, berak komunikatu nahi lukeen zerbaitetara ekarriz pinturak komunikatzen dioten hura», idatzi zuen Italo Calvinok, norabide bietan inter-

preta dezakegun testuan. «Artista eta idazlea baliabideetan baka-
rrik bereizten dira», aldarrikatzen zuen Paul Klee-k. Baudelaire-k
Manet-i gutun batean zera esaten dionean: «Zeu zara zure artea-
ren hondamenean aintzindaria», bere buruaz ere ari da hizketan.

Bataille Manet-en obra argitzen. Peter Handke, lehen Rilke
bezalaxe, Cézanne-k liluraturik. Idatziz egiten du Twomblyren
trakestasun zehatzaren bidea Roland Barthesek. Idazleak dira,
euren obrari buruz ari dira gogoetan, Sarrionandiak, gure poeta-
rik onenetako batek bezala, «ni margolaria banintz» esanaz. Kolo-
reaz galdetzen dio bere buruari eta idazketatik erantzuten du:
«poemetan froga egin ondoren...», eta aurrerago, «obra literarioa
kuadro bat bezala margotu behar da».²

Baina ez dut Sarrionandia mintzagai. Gaurkoan Arteak bilatu
eta bereganatu behar izaten dituen hitzak, funtzionariarenak, adi-
tuarenak eta poetarenak, bere lanaren baitan, material poetiko
gisa erabiltzen dituen artista batez hitz egin nahi nizueke.

Perejaume-k, (Sant Pol de Mar, 1957) literatura saiakerarekin,
pinturarekin, instalazioarekin eta eskulturarekin batera lantzen
du. Ez alor horietan guztietan eroso sentitzen delako. Aitzitik,

diziplinaren halako ezerosotasun bat onartu beharko dugu: pin-
turak, egun, ezin gaitu guztiz ase; ez eta instalazioak ere; ez eta
idazketak; errealitateak ere ez gaitu asetzen...³

Baina, mintza al naiteke Perejaumez, artista katalan batez?
Edo, agian, «gure» poetez eta «gure» artistez hitz egin beharko
nuke? Galeuzcara gutasunaren zama bizkarrean hartuta etorri ohi
gara, edo bandera bihurtuta ekartzen dugu, Jainkoak daki. Nire
«gutasun» hori islatu beharko al nuke?

Hitzaren eta irudiaren arteko bat egite emankor hori, alabaina,
irudimenaren intimitatean gertatzen da, sortzaileak bere buruari
planteiatzen dizkion arazoetan eragiten duenean. Honela adieraz-
ten du Peter Handke-k:

Oroimenean irudi bat geratu bide da, bizitzan bertan suz grabatua, lehenmina sortzen duena, eta aldi berean irudi horiek lantzeko borondatea.⁴

Lurralde edo garai jakin batera mugatzen ez den bategitea da. *Gutasun* horren mugen gainetik eta azpitik dagoen elkarrizketa da. Lertxundik Deustch-en grabatu bat aurkitzen du, Basilean eta XVIII. mendean; Aurelia Arkotxak Ives Klein-en urdin koloreaz idazten du; Irigoienek, bere poemarik onenetako batean, Vermeer-ekin hitz egiten du; Iñigo Aranbarrik Brueghel-ekin... Atxagak, alfabetoz armaturik, museoak korritzen ditu testuak gogoratuz, eta alderantziz. Koldo Izagirre Castelaoren irudiekin egin zen galiziar. Edorta Jimenez Ucelay pintorearekin batera paseatzen da gerraurreko Bermeotik.

Zilegi bekit Perejaumerekin jarraitzea, bere paisaiaren inguruan diharduen artistarekin, bere lurraldearen azpian, atzean, aurrean, bere lurraldeari buruz eta bere lurraldearen gainean. Esaterako, *A 2.000 metres de pintura sobre el nivell del mar*. Agian *gutasun* horren lurraldera eramango gaitu atzera.

Perejaumek errotuluak erakusten ditu. Koadroetako tituluak pintatzen ditu. Beste pintore batzuen izenez sinatzen du. Postal-erakustoki bat salduko dio museoari; postalak ispiluak dira. Teilatua jartzen dio lorategiari. Titulua jartzen die harkaitzei. Itsas zatiak enmarkatzen ditu. Pintura pikorrek pilatu eta paisaian kokatzen ditu, eta denari argazkia egin eta sinatu egiten du. Paisaiagilea izan nahi zuen, eta izan bada, baina bere modura, hau da, hori zein neurritan eta zein zeintzutan zaion posible aztertuz.⁵

Pintore paisaiazaleak, plenairista izenez ezagutzen denak, gaiaren aurrean pintatzen du, aire zabalean, paisaiaren baitan. Perejaume, jada paisaiarik ez duen gizona da. Edo, hobe esanda, paisaia gehiegiak jota dago. Plenairistak, kopiatzearen kopiatzeaz, natura pinturaz estali dute. Egun, paisaia da pintura kopiatzen duena. Naturak bere burua zaindu, txukundu, edertu egiten du,

ileapaindegira joango bailitzan. Kontserbatu egiten da, babestu egiten da, ikustera ematen da, museoan bailegoen. Horrela baka-
rrik kontserba daiteke natura gisa, eta are gehiago, jatorrizko
natura gisa. Ez al dute oraintsu Omako basoa zaharberitu? Pai-
saia kontserbatu egingo da baldin eta ondo pintaturik badago.

Natura museoa bailitzan tratatzen dugu, natura jada pintura
delako osotara. Postal bat, irudien ugalketa geldiezina. Izkutuko
collage bat.

Orain, –ba ote garen ere ez dakigularik–, behar-beharrezkoak
zaizkigu zatiak agertaraziko dizkiguten zatiak, aurretik bizi eta atze-
tik idatzi ohi dugun postal neurrigabe honetako une bakoitza berezi
eta egiaztatuko duten atzerazko ispiluak. ⁶

Segurtasun ezak jota, Perejaumek ezin du bere burua identi-
fikatu ez Friedrich-en ibiltari erromantikoarekin, ez eta tokian
tokiko paisaia aurkitu zuten *plenairzale* heroikoekin. Izan ere,
«dohatsutat» dauka plenairzaleen jokaera. Hari, guri, debekatua
zaigu ordea, dohatsutasuna. Bere jardun artistikoan, Perejaumek
paisaiaren tramoia behin eta berriro desmontatzen du; irudiez,
dekoratuez, hitzez eta espazioez baliatzen da beraz. Badaki tra-
moia hori, aldi berean, bere nortasun kolektiboarena dela, norta-
sun zalantzatsu eta grinatsua. Lurra eta hitza.

Gaia, hots, lurraren ahotsaz mintzatuko litzatekeen paisaia
elederra, eraikitzeo abentura «lan eskergea, suharra, debotua izan
zen Katalunian».

Plenairista, plenairista kontzeptua, gainditurik gelditzen da an-
tza, egileak hitzekin traturik baldin badu, eta hori Katalunian modu
berezi batez gertatzen zen, zeren hizkuntza paisaia bezain lurtsua
baitzen, agian lurtsuagoa. «Ikasketarako irtenaldi» famatuetan, men-
de-bukaerako ibiltari zientifikoak ez zuen bereiztasunik egiten hiz-
kuntza eta lurraldearen artean. Hitzen eta izenen buztinak erakarri-
ta, horrexek osatzen baitu lurra bera ere, izen batetik toki batera
zihoazten, bereizi gabe. ⁷

[Pintore] plenairzaleak lekuekin eta margolanekin zituen harremanak –jarraitzen du Perejaumek– hauek tokiekin eta hitzekin dituzte. Hauek, alegia, hizkuntzalariek, hizkuntzalari mota batek: hitzak lurraldearen tolesduretan biltzen dituztenak [...]

Xedea? «Ahotsa indartu lur benetan, gutziz, ozena lortzeko.»

Perejaumek Foix gogoratu eta berrirakurtzen du, jakina, bai eta Alcover, Coromines eta Jujol. Baina, batez ere, Verdaguer («mendizalea, abertzalea, geografoa, bakartia, liturgiazalea, poeta»), Canigó-ra meza-liburu bat, literatur-liburu bat eta akuarela kutxa bat hartuta igoten ohi zena.

Guk akuarelak falta izan genituen. Meza-liburua eta literatur-liburua geratu zaizkigu, agian, gure plenairistek lurpera sartzeko zuten joera bitxiagatik izango da, ilunera, «denboren gaua» deitu izan den horretara. Eta gauetz, iluntasunean, ez da pintatzen.

Hizkuntzalariak eta pintoreak ez zuten paisaia elkarrekin ibili, ez ziren lantegi beretik atera. Azkue eta Regoyos. Gure literaturak, eta *gure* diot euskarazko literatura esateko (horixe da, hemen, nire *gutasuna*), ez du ia eraginik izan euskal paisaiaren eraikuntza piktorikoan. Euskarazkoak ez diren euskaltasunari buruzko euskal hitzek, bai. Navarro Villoslada, Trueba, Unamuno, Baroja edo Lotik, Barandiaran edo Aranzadik, eta beste hainbestek, euskal paisaia soinuztatzen duen hitzen sarea ehun dute: jatorriaz mintzo dira jatorrizkoa ez den hizkuntzaz.

Euskal pintura badago gure literaturan, baina gure literatura ez dago euskal pinturan. Lauaxetarengan badaude garaiko Bilboko abangoardiako korronteak, baina euren garaikideen pinturatan ba ote daude Lauaxeta, Lizardi? Entzuten al zieten? Gerraurreko euskal eskolako bi pintore handi, Zubiaurre anaiak, gormutuak dira.

Euskal abangoardiak, gure herriko eskulturaren une garai hark, paisaiaren, sortua izan den lurraldearen balorea aldarraikatzen du

jaiotzetik beretik. Arte nazionala da, *gutasunetik* sortua: «Gaur», «Hemen», «Orain», «Denok». Euskaraz entzuten dira izenak. Chillidak euskaraz jartzen die izena bere obrei. «Abesti gogorra» Egur soinua du. «Ilarik». Zer esan nahi du *ilarik*? Euskara usain kontua da.

Ere erera baleibu icik subua aruaren J. A. Sistiagaren filme baten titulua da, abangoardiako zinearen adierazgarri bat (1971). Zuek euskararen usaina hartuko zenioten. Guk ez. Euskaraz mintzo badira oihartzuna komunikatu nahi dutelako da. Urruneko oihartzuna.

Oso urrunekoa. Oteizak, txaman handiak, euskal paisaiaren berregile handiak, paisaiaren aurreko puntu batean kokatzen du bere burua. Barruan. Historiaren lurrazpian, hitzen aurretikoan. Berak ezin du euskaraz hitz egin, baina euskara pentsatu eta irudika dezake. Hitzen aurreko iraganean kokatzen da horrela, galdu eta berreskuratu ez zituen hitzen aurretikoan.⁸ Ezin ditu entzun berarekin solastatu nahian Arestik, Gandiagak edo Lekuonak esandako hitzak.

Orain, dakizuenez, euskal paisaia zaharberritu egin da. Erakusleihen aldaketa dator. Orain titaniozkoa da. Ingelesaren oihartzuna eta kutsua baloratzen dira: Guggy, Poppy. Ez da beharrezkoa lanak euskaraz bataiatzea. Itzulpena egingo da.

Administrazio-erabakia da. Euskara erabiltzea keinu bat da, eta keinuen hizkera, ondotxo dakigunez, elkar entzun ezin dezaketenen mintzaira da. Zer galdu dugu elkarrizketa ezinezko horretan? Zer gertatzen da begiak ahoari ulertzen ez dionean? Edorta Jimenezen hitzak erabiliko ditut, nire errotara ekarrita.

Begiak hizkuntza moldatzen du, hizkuntzak berak begiaren ikuskera moldatzen duen era berean. Hitz zehatzak galdu dituen hizkuntzak itsutu egiten du, heinen batetan, hiztunaren begia. ⁹

Konfidantza, segurtasuna ere galdu ditugu. Dardarrez dugu

ahotsa, hauskorra baita gure hitza. Artelanak eta objektuak deika ditugula, behar gaituztela, hitzak behar dituztela sentitzen dugunean, grinak hartzen gaitu. *Gure* hitzak bilatzen ote ditzute, benetan? Balio al du euskarak funtzionariaren, adituaren, elkarrizketarako hitza izateko?

Hitz grinatsuak idazten ditugu euskaraz. Grinatsuak dira ez dakitelako bere zereginerako balioko ote duten. Ez dakite hitzak diren ala keinu hutsak.

Bego Montoriok itzulia

1. Rosenberg, Harold. *Cit. In* Jones, Nancy. *Anxieux objets made in USA*. Artstudio 19, 1990.
2. Sarrionandia, Joseba. *Ni ez naiz hemengoa*. Pamiela, 1985.
3. *El paisatge es rodó* liburuaren solapan. Associació per a les Arts Contemporanis. Eumo editorial, Vic, 1995
4. Peter Handke, Beuys-en «Iphigenie eta zaldia» lanaren iruzkina eginez.
5. Valéry-k «hitzaren gertalekua garbitzea» deitzen zuena burutuz.
«Gai orotan eta sakoneko azterketa ororen aurretik, hizkera hartzen dut kontuan; lehenik eta behin eskuak garbitu eta eragiketarako esparrua prestatzen duten kirurgilarien modura iharduteko ohitura dut. *Hitzaren gertalekua garbitzea* esaten diot nik horri.»
Poesía y pensamiento abstracto. Teoría poética y estética. Visor, Madrid, 1990.
6. Perejaume. *Un paisatge es una postal feta escultura. La pintura y la boca*. Ed. De la Magrana, 1998
7. *El paisatge es rodó*. Associació per a les Arts Contemporanis. Eumo editorial, Vic, 1995
8. Anjel Lertxundiren proposamen interesgarriaren ildoan, lehenik *Egunkarian* eta *Zebar* aldizkarian ondoren.
9. Nabarro, Omar. «Olerkigintza eta pintura». *Zebar* 4, 1990

Kritikabideak



Josemari Isasi

1. Aurkezpena

UEUko XXVI. udako ikastaroetan parte hartzea proposatu zidatenean, egia esan, harritura geratu nintzen. Sekula ere ez didate halako proposamenik egin, hura zen lehenengoa, eta ez nuke esango proposamen lizuna zenik; baina ni, nolabait, lizuna izango balitz bezala geratu nintzen, eta ez nuen hasiera batean zer erantzun jakin (gaur konturatzen naiz benetako proposamen lizuna izan balitz, ez nuela edukiko hainbeste zalantza onartzeko, eta berehala onartuko nuela). Baina momentuan, proposamena Udako Euskal Unibertsitateko Historia Sailaren partez zetorkidala ikusiz, eta ez *errubia* batengandik, pentsatzeko moduko gauza zela erantzun nuen, eta zalantzatan ibili nintzen ez dakit zenbat astetan, harik eta beranduegi izan zen arte: apuntatuta nengoen dagoeneko.

Zergatik gonbidatu ninduten galdetzen nion neure buruari behin eta berriro. Gaztea naiz, hogeita zazpi urte dauzkat eta, azken finean, oraindik ikaslea naiz, ez irakaslea, doktoregaia naiz eta ez Historian Filologian baino; eta azkenean, itauna askotan egin ondoren, argi eta garbi ikusi nuen gonbidatzeko zegoen arrazoi bakarra *Variaciones Julen Guerrero* eleberri polemikoaren egilea izatea zela, eta horregatik, udako ikastaroen katalogoan Josemari Isasi Urdangarin-en azpitik «idazlea» jartzen du, eta ez, adibidez «ikaslea langabezia», edo urte askotarako doktoregaia.

Beraz, esan daiteke ni hemen nagoela idazle gisa, idazle moduan, eta niretzat hori oso garrantzitsua da; hitzaldiak emateko orduan bi motatakoak eman baitaitezke: lehenengoa, oso akademikoa, izenez beteta, oso landua, eta izugarritzko bibliografiarekin; bigarrena –nik eman nuena–, etxeko hitzaldia, ideiez beteta, eta izugarritzko nahasketarekin (azkenengo hau, bakarrik idazleek eta antzeko pribilegiatuek eman dezakete).

Aipatu dudan nahasketa hori artikuluaeren izenburuan ikus daiteke nahiko garbi: «Sukaldaria, Literatura, Historia eta Futbola»; hala eta guztiz ere, nik uste dut ongi laburtzen duela nik prestatutakoa. Izenbururako Peter Greenaway-ren filme batean inspiratu nintzen, *Sukaldaria, Lapurra, Emaztea eta Amorantea* (gaizki ez pentsa, ez zen pornografikoa); horretaz aparte, agian tamalez, filmeak eta hitzaldiak ez dute zerikusirik.

Honaino aurkezpena. Goazen, beraz, lehenengo hitzak adieraztera: Sukaldaria eta Literatura.

2. Sukaldaria eta literatura

Denok –batzuk bakarrik bisitan– ikasleen etxebizitza batean egon gara, eta ikasleen etxebizitzetan hitzaldi honetarako oso interesgarriak diren gauzak gertatzen dira. Adibidez ikasleen etxebizitzetako sukaldeetan, non ikasle gazteek sukaldaritza ikasi behar baitute, gutxienez astean behin beste bizikideentzat bazkaria prestatu behar dutelako. Nire ustez, oso parekoak, oso antzekoak dira ikasle sukaldari gaztea bere sukaldean eta idazlea orri zuriaren aurrean, biak bakarrik, aukerez jositako leku batean.

Idazlea –batez ere eleberrigilea– sukaldaria bezalaxe langilea da. Sukaldariak bezalaxe, bere lana egiteko milaka osagai ditu, eta osagai horiek gonbinatzeko beste milaka era eta molde ditu. Biek,

sukaldariak eta idazleak, jakin behar dute aukeratutako osagaien arabera eta osagaiak nahasteko eratik sortuko dela, ez bakarrik plater bat edo liburu bat, baizik eta literatura edo sukaldaritzaren ikuspuntu bat; azken finean, sukaldaritzaren edo literaturaren nozio bat.

Denok dakigu ikasle batean ez direla sekula falta izango espagetiak, arroza eta arrautz fritatuak, eta modu berean, liburuan, nobelan, pertsonaiak eta istorioa beti egongo dira orrietan non-bait.

Konparaketarekin jarraituz, baina hasieratik hasiz, esan daiteke sukaldaritzaren koipea, gatza, azukrea eta abar, literaturaren komak eta puntuak direla: azken finean, entsalada bat, koipe eta gatz barik, oso nekez jan daiteke, eleberri bat puntuaziorik gabe oso nekez irakur daitekeen bezala. Hala ere, bai sukaldaritzan, eta bai literaturan ere, denetarik da, eta hor ibili ziren abangoardiak, batzuk oso garrantzitsuak mugak hausteko eta bide berriak irekitzeko.

Adibidez, nik lagun bat daukat babarrun gorriei maionesa botatzen diena, eta otu zitzaidan –literaturaren eta sukaldaritzaren arteko analogia hau erabat sendotzeko, nolabait–, bere urtebetetzerako Georges Perec-en *Bahiketa* liburua oparitzea, liburu hori oso bitxia delako: ‘E’ letra ez da agertzen liburu osoan, ‘E’ letrarik gabe idatzita dago, bahituta dagoelako, baina tipoak, babarrunak maionesarekin jaten dituen arren, ez zuen liburua bukatu, ez zitzaion gustatu. Ondorio gisa atera nuen literatura eta sukaldaritzaren antzekoak izan daitezkeela, baina ez direla gauza bera; ezin da bizi jan gabe, baina bai irakurri gabe, batzuk gutxienez.

Eta ia konturatu gabe ailegatu gara nik heldu nahi nuen puntura. Esanak esan, nik uste, erraz ulertuko direla Bernardo Atxagaren hurrengo hitzak, nire iritziz oso ondo azaltzen baitute

literatura eta sukaldaritzaren arteko harremana, eta batez ere, beste antzekotasun guztien gaintik, haien artean dagoen loturarik garrantzitsuena.

Atxagak ondokoa dio:

Ez da esan behar «literatura», esan behar da «liburuak». Ez da esan behar «literatura gustatzen zait», baizik eta «liburuak gustatzen zaizkit», edo «liburuak irakurtzea maite dut». Batzuetan gainera, areago zehaztea komeni da: «liburuak gustatzen zaizkit» esan beharrean, «Dickensen liburuak gustatzen zaizkit» esan behar da. Azken batean [eta hementxe dago koska], inork ez du «jatea gustatzen zait» esaten, baizik eta, adibidez, «izokina gustatzen zait» edo «hartzaren koipean egindako bakailoarekin txoratu egiten naiz».

Zer esan nahi du honek guztiak? Literaturan, sukaldaritzan bezalaxe, ikuspuntu guztiek, era guztiek, bere maisulanak lortu ahal dituztela, eta, izan ere, lortzen dituzte. Gero, norberak aukera dezala zer irakurri, zer idatzi; eta sukaldaritzan bezalaxe, aukera horretan, bakoitza mundu bat da, eta norberak bere bidea ibili behar du, bere gustuak jakiteko, bere burua ezagutzeko.

Getariako eta Orioko bisigutik, Tolosako eta Berrizeko txule-tara; txinatar sukaldaritzatik, mexikar sukaldaritzara; McDonalds-eko hanburgesatik, Burger King-eko hanburgesara: hor konpon norbera eta bere gustuak. James Joyce-ren *Ulisetik*, Virginia Woolf-en *Orlandora*; Bernardo Atxagaren *Groenladiako leziotik*, Amos Tutuola-ren *Mozkor bat sasirik-sasira*; Antonio Gala-ren *Corazón tardiotik*, Miguel Domínguez «Michel»-en memorieta; bideak infinitoak dira, amaigabeak, baina norberak berea ibili behar du, eta hor ez dira sorpresak falta izango. Adibidez, Arzak sukaldariari gehien gustatzen zaion platera arrautz fritatuak piper gorriekin da, eta Thomas Bernhardek atlasak eta mapak irakurtzea nahiago zuen beste edozein literatura mota baino. Nik neuk oso ondo konbinatzen ditut *Marca* egunkaria eta Fredic Jamesonen *El posmodernismo o la lógica cultural del capitalismo avanzado*. Dena da

hastea, dena da jarduten hastea, dena da saiatzea, Literaturaren arloan lekurik egon behar da gustu guztientzako, eta horregatik, gutxien uste den egunean jabetzen zara zure platerik gustukoena zer izango, eta babarrunak maionesarekin dela, edo arkumea txilindron erara, auskalo, eta zure idazlerik kutunena Gabriel García Márquez, edo Gombrowicz, edo Thomas Bernhard: horixe da nire kasua.

Thomas Bernhard aipatuz heldu gara bigarren puntuaren amaierara, hau da, sukaldaritza eta literaturaren arteko harremanaren bukaerara. Thomas Bernhardekin sartzen da jokoan hirugarren kontzeptua: Historia, majuskulaz.

3. Literatura eta Historia

Sukaldariak, bere platera prestatzeko, haragia, arraina, barazkia edo beste edozein osagai mota erabili dezakeen legez, idazleak bere liburuak osatzeko Historia osagaia erabil dezake. Hau argi eta garbi dago. Aspalditik izan da horrela eta, ondorioz, hor dago eleberrri historikoaren tradizioa, egile ospetsuekin. Zinemaren munduan esan daiteke berdin gertatzen dela, eta filme historikoek oso harrera ona izaten dute urtero, eta batzuetan, adibidez duela sei urte, Amerikaren aurkikuntzaren bostehungarren urteurrenarekin, multinazionalak eta guzti sartu ziren, eta filme historiko horiek urteko garrantzitsuenen artean egon ziren.

Esanak esan, nik hemen gauza bat azpimarratu nahi nuke: eleberrri historiko direlakoak badaukatela gauza bat elkarrekin, hau da, guztiek ohar hau egiten dutela: hemen kontatzen dena gutxi gora-behera horrela gertatu zen, edo beste modu batean esanda, hemen irakurriko duzuna egiazkoa da. Azken finean, eleberrri historikoek –eta baita filme historikoek ere– amankomunean daukatena Historia osagaia prestatzeko era berdina da.

Zer eskatzen du sukaldaritzan aritzeko era honek? Ba, batez

ere, ikerketa. Izen guztiak jakin behar dira, data guztiak, leku guztiak, gertaera guztiak, datu guztiak eta abar. Gero idazlea arduratuko da datu horiei guztiei eleberri itxura ematen.

Zer ez du eskatzen janariak prestatzeko era honek? Irudimen, fantasia. Zergatik? Egia –ustezko egia, egia historikoa– eta irudimena oso gutxitan datozelako bat.

Horregatik, eleberrigileak, eta ez eleberrigile historikoa deritzonak, eleberrigile hutsak baino, badauka bere era historia prestatzeko, eta era hori oso ezberdina da eta ez dauka zerikusirik era konbentzionalarekin. Horren ondorioz, batzuetan –eta honetaz geroxeago zeredozer hitz egingo dugu– arazoak sortzen dira, polemika.

Baina momentuz jarrai dezagun eleberrigile sukaldariarekin, Historia osagaia irudimen erara prestatu nahi duena. Horretarako Thomas Bernharden etsenplua hartuko dugu, hoberik aurkituko ez dugu eta.

Thomas Bernhardek –idazle austriarra, oso ezaguna, oso sari-tua, oso polemikoa, eleberrigile izugarria– beti idatzi zuen modu honetan: alde batetik datu zehatzak, konkretuak eta historikoak hartzen zituen, eta beste aldetik erabat deformatzen zituen, guttiz aldatzen zituen nahi zuen moduan. Beraz, bere liburuetan –eta ondorioz, Historia osagaia bere prestatzeko eran– ez da irakurtzen: hemen kontatzen dena gutxi gora-behera horrela gertatu zen (hau da eleberri historiko konbentzionala), baizik eta ia ia kontrakoa: hemen kontatzen dena ez zen horrela gertatu, inondik inora, baina, hala eta guztiz ere, hemen irakurriko duzuna honela gerta zitekeen, gutxienez –nola edo hala– posible izan zitekeen.

Baina, eta hortxe dago gakoal, zertarako deformatu egia historikoa? Zergatik aldatu gertaerak? Zertarako ezagutu edo irudikatu gertatu ez dena edo gerta zitekeena?

Eta berehala nire erantzuna: ulertzeko, gauzak azaltzeko, argitzeko, ikasteko, ezagutzeko; azken finean, Historiak berak balio duen gauza berberako, zeren eta Historiaren helburuentzat zer gertatu zen jakitea, zer gerta zitekeen jakitea bezain garrantzitsua da.

Thomas Bernhardek ezin hobeto azaltzen du *El sotano* liburuan:

Las perfidias que me hacen tropezar y desesperar, que me vuelven todos los días medio loco, se vuelven ineficaces contra mí cuando me las explico totalmente, lo mismo que nada me afecta ni me mata ya lentamente cuando me lo explico. Explicarme la existencia, no sólo penetrarla sino aclarármela cada día en el mayor grado posible, es la única posibilidad de hacerle frente.

Aipu honetan, nire ustez, aurrenik, hiru hitz nagusi daude: azaldu, jabetu eta argitu; eta bigarrenez, misterio bat: existentzia, izatea, bizitza. Eta bi gauza hauen atzetik literaturaren ikuspuntu bat, nozio bat, non Historia beste osagai bat den fikziorako, ez gehiago ez gutxiago, pertsonaiak, ahots narratzailea edo bilbea bezalakoa.

Hirugarren atal honekin bukatu baino lehen, eta futbolarekin sartu aurretik, erakutsi nahi nuke pixka bat nola posibleak, nola gerta zitezkeenak, laguntzen diguten existentzia, izatea eta bizitza azaltzen, barrentzen eta argitzen. Eta horretarako xake-jokoaz baliatuko naiz; azken finean, behin baino gehiagotan esan da bizitza, xake-partida bat bezalakoa dela.

Ez dakit nik irakurleen artean xakezaleren bat ba ote dagoen, baina egonez gero bat etorriko da nirekin esaten badut xakean ikasteko edo hobetzeko modurik hoberena partida jokatuak birproduzitzea dela. Atzerantz bueltatzen garenean bi mugimendu ezberdin egiten ditugu.

Lehenengoa, nolabait esan, historikoa da, hau da, jokatu du-

guna, mugitu duguna, berregin egiten dugu. Eta mugimendu hori egin ondoren, esan dezakegu: hortxe daude egin diren jokaldiak. Baina horrekin geratzen bagara gutxi ikasten da, gutxi ulertzen eta argitzen da, ez daukagulako egiaztatzeko erferentziarik.

Horretarako bigarren mugimenduari ekin behar diogu. Eta mugimendu honetan posiblea sartzten da, gerta zitekeena, eta galderak halakoak dira: zer gerta zitekeen erregea mugitu ordez, erregina mugitu banu? Edo zer gerta zitekeen endrokatu ordez, dorrea mugitu banu?

Eta litekeena irudikatzen da, eta litekeenarekin egiaztatzen da, egin duguna hobeto ulertzeko, gertatu dena argiago ikusteko (eta alde batetik pentsatzen dugu; ba ezin genuen dorrea mugitu, edo zaldia jan behar genuen, edo hemen primeran ibili gara aukera hoberena zelako, eta abar) eta bestalde, bigarren mugimenduak, posiblearenak, beste jokalaria hobeto ulertzeko balio du, eta gehiago errespetatzeko, seguraski aurkituko dugulako jokaldiren bat non besteak hobeto joka baitzezakeen eta partida irabazi.

Beno, eta konturatu gabe heldu gara azkenengo puntura, esandakoa praktikan jartzen den atalera, izenburuaren laugarren hitza jokoan sarzen den lekura: hogeigarren mendeko mundu mailako ikuskizunik handiena; Futbola.

Hasi aurretik, laburpen gisa, zazpi puntu gogaratu nahi nituzke (denak nire ikuspuntutik, noski):

1. Sukaldaria eta idazlea oso antzekoak dira haien lanetan. Biok haien lana egiteko milaka aukera, era eta molde dituzte.
2. Literaturan, sukaldaritzan bezalaxe, tradizioak daude, edo eskolak daude, edo korronteak, edo ikuspuntuak, alegia, prestatzeko erak, edo idazteko erak. Nire iritziz, era guztiek bere maisulanak dituzte, bai sukaldaritzan, bai literaturan ere.
3. Janariak prestatzeko eta idazteko era guztiak ezagutzea me-

rezi du, edo beste modu baten esanda, norberak bere bidea ibili behar du, bere mapak marraztu, bere gustuak aurkitu eta gero zaletasunak zaindu eta landu. Bakoitzaren esplorazioa da.

4. Esplorazio horretan, adibidez, Tolstoi, Forster, Kafka, Calvino, García Márquez, Kipling, Carver eta abar irakurri ondoren, pertsona batek agian Tolstoi aukeratuko luke, eta ondorioz idazle errusiarrak landuko lituzke jo ta ke, gustura. Baina beste batek akaso nahiago luke García Márquez eta *realismo mágico* delakoa; gustuetan ere, zenbat buru, hainbat aburu, eta hor konpon norbera eta bere gustuak.

5. Literaturaren munduan, esploratzeko mundu horretan, Historia betidanik izan da fikziorako osagaia, eta hor bi aukera daude: lehenengoa, konbentzionala, egia historikoa gutxi gorabehera eleberri itxuran jartzen saiatzen dena; bigarrena, adibidez Bernhardena eta nik jarraitzen dudana, gerta zitekeena, nola edo hala posiblea izan zena kontatzen duena.

6. Azkenengo era honek, litekenarena, Historia abiapuntutzat hartuz, beste edozein eleberri motak adina eskubide eta ahalbide dauka. Ahalbide horien artean, Historian gerta zitekeena jakitea, benetan gertatu zena jakitea bezain garrantzitsua da, gizakia eta bere izaera ezagutzeko, azaltzeko, jabetzeko eta ulertzeko.

7. Eta azken ondorioa: Ez oparitu George Perec-en *Bahiketa* babarrunak maionesarekin jaten dituen lagunari.

4. Kasu praktiko bat: Historia, Literatura eta futbola Variaciones Julen Guerrero eleberrian

Honaino teoria, orain azalduko dut nola jarri nituen praktikan aurreneko hiru puntuak.

Lehenengo eta behin esan behar da abiapuntuan ez zegoela pertsonaiarik, ezta bilberik, ezta egiturarik ere; abiapuntuan, alde

batetik, bi gai, bi buruhauste, bi motibo zeuden: bata erantzukizuna, ardua, eta bestea, euskal gatazka deritzona. Eta, beste aldetik, bazegoen literaturaren nozio bat, ikuspuntu bat, sukaldatzeko era bat, eta onartzen dut nire eleberritari buruzko jarrera nahiko bitxia zela, azken finean, aurreko hiru puntuetan azaldu dudan bezala, niretzat eleberririk arazoak argitzeko balio behar du, esistentzia hobeto ulertzeko, beste baten lekuan ipintzeko, beste moduan esanda, nire eleberririk gizakiaren ezaguera izan behar du helburu, baina bere izaera, bere esentzia ahaztu gabe: hau da, fikzioa eta irudimena ahaztu gabe. Eta zergatik ezaguera helburu gisa? Zertarako? Zer egiten du ezaguerak?

Ba, oinazea arindu oinazean bizi denari, eta poza areagotu pozik bizi denari, esango luke Johnson doktoreak, eta beste modu batean esanda («aclararme la existencia es la única posibilidad de hacerle frente»), Bernhardek adierazitakoa. Ez da gutxi, esan beharko. Ez da ezaguera halako ondorio onik lortzen duen gauza bakarra, baina, egia esan, mota horretako laguntzak beti izaten dira ongi etorriak.

Baina ez dezagun gal haria. Orduan, hortxe zeuden nire buruan bueltaka, biraka, erantzukizuna eta euskal gatazka, eta haiek argitzeko asmotan, eleberria bat idaztea erabaki nuen, nire erara.

Hamar urte bete nituenetik, Athletic-en bazkidea izan naiz, oso zalea naiz, niretzat Athletic amodioa da, menpekotasuna, gaixotasuna, izan ere, nire pentsamenduen ehuneko berrogeiak Athletic-ekin zerikusia dauka. Partidu guztiak ikusten ditut, bai San Mamesen, bai kanpokoak ere, telebistaz, eta nohizbehinka kanpora joaten naiz; derbiak, adibidez, ez ditut galtzen.

Esanak esan, ulertuko da aitortzen badut Guerrerok Athleticen geratzea erabaki zuenean, duela urte batzuk (Valdano Real Madrident zebilenean), niretzat kriston poza izan zela eta bere ekintza, erabaki hori, nik erantzukizun ekintza bezala, interpreta-

tu nuen eta pentsatu nuen Julen oso arduratsua zela. Hortik etorri zitzaidan eleberriaren pertsonaia. Eta pertsonaiarekin eta lehen aipatu ditudan bi gai horiekin, gainerakoa erraz sortu zen. Bakarrik galderak egin behar ziren, eta erantzunak sinesgarriak izan behar ziren.

Gutxi gora-behera hauek izan ziren galdera garrantzitsuenak:

Zer gerta zitekeen, Julen Guerrero intsumitu egin balitz?

Zer gerta zitekeen, Guerrero maitemindu egingo balitz ETAKo preso batzuen alabaz?

Lehenengo galderaz saiatu nintzen erantzukizuna neure buruari argitzen. Eta bigarrenaz euskal gatazka neure buruari azaltzen.

Neure buruari ez nion ezer argitu, jakina. Ez nuen lortu, inondik inora. Baina saiatu nintzen. Horretan, berriz, bat nator Thomas Bernhardekin. Berak honako hau idazten du:

Sin embargo, todo lo que ha de escribirse debe empezarse siempre desde el principio e intentarse siempre de nuevo, hasta que por lo menos una vez se logra de forma aproximada aunque nunca satisfactoria. Y por inútil que sea, y por terrible y desesperado que sea, hay que probar siempre de nuevo cuando tenemos un tema que nos aflige siempre y siempre con la mayor obstinación y no nos deja ya en paz. Aun sabiendo que nada es seguro y que nada es completo, debemos, aun en medio de la mayor inseguridad y de las mayores dudas, comenzar y proseguir lo que nos hemos propuesto. Si siempre renunciamos antes de haber empezado, caemos en definitiva en la desesperación y en definitiva y finalmente no salimos ya de esa desesperación y estamos perdidos. Lo mismo que cada día debemos despertar y comenzar y proseguir lo que nos hemos propuesto, es decir, tenemos que seguir existiendo porque sencillamente tenemos que seguir existiendo, así, un propósito como el de escribir tenemos que comenzar y proseguirlo y no dejarnos desanimar por el primer y, probablemente, siempre renovado pensamiento de tener que fracasar en ese proyecto. Todo fracasa. Al menos, si tenemos voluntad de fracasar, avanzamos, y debemos tener siempre, en todo y en todas

y cada una de las cosas, al menos la voluntad de fracasar, si no queremos perecer ya muy pronto, lo que realmente no puede ser la intención con la que estamos aquí.

Behin baino gehiagotan pentsatu dut hau zela eleberraren esentzia, *Todo fracasa* hori, «denak porrot egiten du» hori, pila bat interesatzen zait nire eleberraren noziorako, eta batzuetan musika-munduan aurkitzen dut lema bera, adibidez La Polla Records-n *No somos nada* horretan, edo Manu Chao-ren azkenengo diskoko *Todo es mentira en este mundo* horretan, baina sekula ez, demagun, Ricky Martinen *Tu y yo, oe, oe, oe* horretan, azken finean, honekin guztiarekin esan nahi dudana da, eleberriak gogoratu behar diola, batez ere garaileari, irabazleari, gauzak ezberdinak izan zitezkeela. Hala saiatu nintzen nire eleberrian: euskal gatazka delakoa, bestearen ikuspuntutik ikustea, edozein gatazka konpontzeko, nik uste, bestearen ikuspuntuan ipini beharra dagoela, eta horregatik, nire fikzioan, Guerrero ETako preso batzuen alabaz maitemindu zen, Guerrero pertsonaiaren bitartez, irakurleak bestearen mundua hobeto ikusiko lukeela pentsatu nuelako, kasu honetan, HBko mundua, baina baita ere kontrakoa, emaztegaiaren begien bitartez ikusten zena, eta horregatik idatzi nuen:

Nos enseñan a no comprender lo que no amamos y lo que nos es ajeno y distante, pero por el contrario nos sería imposible no intentar comprender aquello que amamos y que nos es propio. Uno puede no comprender a un asesino o a un heroinómano en general, pero cuando ese asesino o heroinómano es su hijo o su amigo o en definitiva un ser cercano, necesita comprender a ese lo que sea pero querido al fin y al cabo. No podemos amar sin comprender o sin intentar comprender, y por eso cuando desistimos en nuestro afán de comprensión desistimos también en nuestro amor, de igual manera cuando se trata de nosotros mismos.

Porque Julen amaba a Ainhoa no tuvo otro remedio que intentar comprender lo que en principio se le hacía del todo imposible

comprender, mirase por donde lo mirase no encontraba Julen una explicación a la que agarrarse. Una estrella del fútbol mundial lo tiene todo para ser indiferentemente rico y feliz, pero se enamora de una mujer a la que no puede comprender y eso le cambia la vida de forma drástica. Ser vasco no partidario de ETA, y estar en contra de ETA y no poder comprender a ETA de ninguna de las maneras, pero a la vez amar a una mujer cuyos padres están en la cárcel por proetarras es lo que se entiende por una encrucijada. Si Julen hubiera sabido desde el principio que los padres de Ainhoa estaban en la cárcel quizás todo habría sido distinto, pero Guerrero ya amaba a Ainhoa cuando se le informó de la situación pocos meses antes de la Eurocopa y de firmar por el Athletic un contrato único en la historia del fútbol.

Argi eta garbi ikusi zen, eleberria kaleratu ondoren, batzuei ez zitzaieela ezer gustatu nor eta Julen Guerrero halako bidegurutzean ikustea, ETako preso batzuen alabaz maiteminduta, eta gainera intsumitua!, eta ozenki esan zuten. *El Mundo* egunkaria, *Marca*, *As*, *Cope*-koak, *Ser*-ekoak, El Corte Inglés (non liburuak kendu egin zuten, «por indigno», esan zuten) eta haien atzean, Athletic eta, tamalez, Guerrero bera ere, kontra jarri ziren. Erabat kontra egia esan. Une latzak izan ziren niretzat. Pentsatu, esan eta idatzi zuten Guerreroren izena erabili nuela dirua ateratzeko asmotan. Pentsatu, esan eta idatzi zuten Guerrero pertsonaia, fikziozko Guerrero oso gaizki geratzen zela eleberrian.

Batzuetan bestea ulertzea ez da gauza makala. Baina bestea Julen Guerrero bada, nire taldeko kapitaina, ulertzea beharrezkoa da. Horregatik ez nuen protestatu, eta Guerrerok bere komunikatua irakurri ondoren, ni isil-isilik urrunduz nintzen. Elkarrizketarik ez, aurkezpenik ez, eta proposatu zidanean liburu gehiagorik ez ateratzeko, horrelaxe eskatu nion nik nire argitaldariari. Guerrerok, konpentsatzeko, *Champions League*-n sartzea lortu zuen, eta horrekin denok pozik. Liburuarekin ateratzen dudana diru urria Europako partiduetara joateko gastatuko dut. Eta Athle-

ticek irabazten badu, oinazea arindu egingo da, eta poza areago-tuko, eta horrek, Jaungoikoari esker, ez dauka preziorik.

Eta honekin bukaerara iritsi naiz. Saiatu naiz neure literatura-ren nozioa, teorian eta paraktikan, erakusten.

Agurtzeko, irakurri nahi nituzke, nola ez, Bernharden hitz batzuk:

La sensatez me ha prohibido ya hace tiempo decir y escribir la verdad, porque, con ello, sin embargo, sólo se dice y se escribe una mentira, pero escribir es para mí una necesidad vital, y por eso, por esa razón escribo, aunque todo lo que escribo no sea sin embargo más que una mentira que se transporta a través de mí como verdad.

BIBLIOGRAFIA

- Amado, Alonso: *Ensayo sobre la novela histórica*, Madril, Gredos, 1984
- Atxaga, Bernardo: *Groenlandiako lezioa*, Donostia, Erein, 1998.
- Azua, Félix de: *El aprendizaje de la decepción*, Iruñea, Pamiela, 1989.
- Diccionario de las Artes*, Bartzelona, Planeta, 1995.
- Barthes, Roland: «Le discours de l'histoire», *Poétique* 49, otsaila, 13-21, 1982.
- Bajtin, Mijail: *Teoría y estética de la novela*, Madril, Taurus, 1989.
- Bernhard, Thomas: *Sí*, Bartzelona, Anagrama, 1981.
- El sótano. Un alejamiento*, Bartzelona, Anagrama, 1984.
- El Malogrado*, Madril, Alfaguara, 1985.
- El sobrino de Wittgenstein*, Bartzelona, Anagrama, 1988.
- Eco, Umberto: *Six walks in the fictional woods*, Harvard University Press, Charles Eliot Norton Lectures, 1994.

- Forster, E. M.: *Aspects of the novel*, Londres, Hodder & Stoughton (1927), 1993.
- Genette, Gerard: *Figuras III*, Bartzelona, Lumen, 1989.
- Hutcheon, Linda: *The politics of Postmodernism*, New York, Routledge (1989), 1993.
- Lukacs, Georg: *La novela histórica*, Mexiko, Era (1937), 1977.
- Rama, Carlos: *La historia y la novela*, Madril, Tecnos, 1975.
- Rigney, Ann: «Du récit historique», *Poétique*, 75, iraila, 167-178, 1988.
- Saenz, Miguel: *Thomas Bernhard. Una biografía*, Madril, Siruela, 1996.
- Uribe, Kirmen: «Asalto a los cielos: estética y escritura en la poesía de Atxaga y Sarrionandia», *Insula* 623, 1998ko azaroa, 1998.
- White, Hayden: *Metahistory*, Baltimore, J. Hopkins, 1973.
Tropics of Discourse, Baltimore, J. Hopkins, 1978.
The Content of the Form. Narrative discourse and historical representation, Baltimore/Londres, J. Hopkins, 1987.

Liburu-iruzkinak



SIRDAR IKBAL ALI SHAH

HENRI BOREL

KEPA ALTONAGA

JOXEAN AGIRRE

ANDONI EGAÑA

JON BALTZA

Sirdal Ikbal ALI SHAH. 1994. *Solo en las noches de Arabia*

Madril: Sufi

1. Sirdar Ikbal Ali Shah ez dugu, ziurrenik, oso ezaguna gure inguruetan. 1.969. urtean Marokon zendua, ehun liburutik gora utzi zizkigun idatziak eta argitaratuak, gehienak Londonen: bidai-liburuak, filosofia-liburuak, biografiak, ipuinak, itzulpenak (Al-Quran-ena, tartean), estrategia militarri buruzkoak, e. a. Diplomazia-gizon, *sheikh* sufia, Afganistango armadako jenerala, idazlea, bidaiari amorratua: hauexek ditugu beraren biziguneen arteko zenbait.

2. Hona komentagai dakardan testua mende honetako laugarren hamarkadaren hastapenetan burutukoa dugu. Izatez, eta izenburutik bertatik (*Arabiako gauetan bakarrean*), bidai-liburu bezala ageri zaigu: egileak 1. Gerra Handiaren ondorenean orain «Ekialde Hurbila» edo izendatutako horretan (batez ere) bizitako abenturak, jazo eta jasotako pasadizuak, entzundako ipuinak eta kontakizunak, ikusitako geografiaren alderdiak, ikasitako kanpo eta barne-esperientziak, horiek guztiak eta gehiago azaltzen zaizkigu jatorriz ingelesez izkiriaturiko liburuaren orrialdeetan zehar, idazkera arin eta, aldi berean, sakon bezain dotorez josi eta ehundua.

Basamortuko leinu beduinoak, Indiako aristokrata britaniar-tuak, Port Saideko sabel-zuri, txarrantxari eta sakalanga, Palesti-nako judu, musulman eta kristauak, bide-lapurrak, drusoak, gaur egun hain famatu bilakatu zaizkigun kurduak, Bagdadeko zokoak eta txokoak, Egiptoko alkimiazaleak, zaldi-ebasleak, Siriako egun-senti urreztatuak, Europa bera ere (Paris eta London), Arabia

berriko errege eta printzeak, eta hamaika pertsonaia, leku eta egoera aurki ditzakegu bertan.

3. Gure garaiotan bidai-liburuek (eta hauen azpi-generoa diren bidai-gidek eta) gero eta toki zabalagoa hartu dute liburudenden apaletan. Bidai-agentziek noranahiko ibilbideak antolatzen dituzte, bai eta munduko azken mutur «galdueña»-raino ere. Bidaiatzea ia betebeharrak behartu zaigu, urtean zeharko lanordu gogorren ordain eta osagarri halabeharrezkoa (japoniarren artean, antza denez, oporraldiak, maiz aski, norberari enpresak gainezarritako lana bide dira). Lana antolatu izaten den bezalaxe, oportetako bidaiak berdintsu behar du: non-noizko guztiak egitasmo zehatz batean ongi plangintzatuak, oporraldi eskasari etekinik handiena ateratzearren.

Nonbait, Sirdar Ikkal Ali Shah-ren garaietan antzeko zerbait suertatzen zen; ordean, berak beste erritmo baten zantzua ageri digu:

Bidaiari arrunt batek egin ez bezala, neure erritmoaren ariora nindoan, eta ez nintzen saiatzeko leku jakinetara joaten eta beren izenak aldeztatik prestaturiko ibilbideetan seinatzen: herrialdea ikusi nahi nuen eta bere giroa irentsi.

«Neure erritmoaren ariora» horrek giltza bat baino gehiago eskaini liezaguke. Bidai-liburua dela esan dut, eta emenda liteke ipuin-liburua ere badela, ibilaldi baten kontakizuna, kontakizuna bera ibilaldi bihurtuta: bizitze-ibilaldia kontagarriztat hartzearen analogiaren erakusgunea dukegu liburu hau.

4. Esan berriak hobeki ulertzearen, kontuan hartu beharrezkoa da liburua, hala egitura nola edukiaren aldetik, tradizio luze eta oraindik bizirik dagoen batean kokatuta dagoela: Ekialdeko ipuin-kontalarien tradizioan (gaur egun Mendebaldean ere nahikotxo hedatzen ari dena) eta, zehazkiago, sufiek ipuinak erabiltzeko duten tradizioan: biak ala biak (mamian bat bakarra baino ez

direlarik), Sirdar Ikbal Ali Shah-ek liburuari jarritako izenburuan funtsean elkarturik ageri zaizkigu.

Halaxe da: izenburuko «Arabiako gauak» ez da ingelesezko «Arabian Nights» delakoaren itzulpena baino: eta, areago, «Arabian Nights» ez dugu ingelesek *Alf layla wa layla* izenburua duen ipuin-bildumaren itzulpenari jarritako titulua baizik: *Alf layla wa layla*, hau da, *Mila gau eta bat gehiago*, edota (euskaldunago, agian) *Hamaika gau*.

5. Zer da, ordean, *Alf layla wa layla* edota *Hamaika gau* hori?: gureztat, bigarren eskuko itzulpenen mende gaudenontzat, Passoliniren film ospetsuak sortarazitako lilurapean gautzanontzat, intelektualen iruzkinen gaineko iruzkinez blai garenontzat, «Ekialdeko literaturaren erakusgarri» etiketapean arin baino azkarago lasai aski ipintzen dugun liburu bat.

Halabaina, Sirdar Ikbal Ali Shah, goian aipatu tradizio horretan jaio, hazi eta hezia ez ezik, tradizioa landu eta hamaika eratan hedatu eta errotu egin omen zuena dugu. Esan liteke, beraz —eta oker handirik gabe—, *Alf layla wa layla* (*Arabian Nights*, *Hamaika gau*) Ali Shah-aren liburuaren ezinbesteko erreferentzia dugula.

6. Sufien tradizioan, agi denez, ipuinak modu berezi batean *erabiltzen* dira: irakaskuntza berezia emateko, eta horrexegatik azpimarratzen dute hainbestetan *irakaste-ipuinen* balioa eta garrantzia.

Alde honetatik begiratuta (eta Idries Shah-ek bere *The Sufis* liburuan kontatzen digunez), *Alf layla wa layla*, *Abjad* izeneko metodoa erabiliz (letrak beren balio numerikoen bidez zenbaki bihurtuz, eta zenbaki hauek, atzera, letra bihurtuz), *Umm el Qissa* dugu arabieraz: *Kontakizun-Ama* edota *Ipuin-Iturburua*. *Hamaika gau* delakoan, beraz, iturburua bera kausi genezake, eta, hain zuzen, bertan kontatutako ipuin anitz *zerbait* ikasteko erabili.

7. Itzul nadin «neure erritmoaren ariora» esaldira. Ziur aski, liburuaren izenburuko «bakarrean» horrekin lotu behar genuke: egileak argi eta garbi erakusten digu bizitza den bidaian «bere erritmoaren ariora» dabilela, eta «bakarrean». Baieztapen hutsa ez baino, aurrenengo *gonbidapena* dela esanen nuke: «Hamaika gau» den bizitza honetan, norberaren bizitzan, «ipuin-iturburu» den ibilaldi honetan, nork bere erritmoari eutsi behar dio, bakoitzak –gutako bakoitzak– bakarreko bidaian abiatu beharra dauka.

8. Norberaren bakarreko ibilaldi honetan, basamortu –zehirakatzeko honetan, gauaren ilunpetan sarri askotan galdurik sentitze honetan, denetarik pasadizu, kontakizun, pertsonaia eta egoera gertatzen dira, eta bi eratakoak, gainera: batera, kanpoan gertatutakoak, eta bestera, norberaren baitan bizitakoak. Hauetatik guztietatik, aldentzea litzateke ongi bidaiatzearen funtsa: bai kanpoko horietatik, eta bai barneko hauetatik.

Bigarren hau dugu, dena den, zailena: norberaren baitan sortzen diren prozesu psikologikoen gizabanakoa harrapatu egiten baitute, atxilo antzeko zerbait bilakatu.

Sirdar Iqbal Ali Shah-ak liburuan barrena, ikusi eta jasandako ororekiko nolabaiteko desatxekimendua erakusten digu: gaixotasunen bat dela, bidai-lapurren baten eraso dela, dena dela, behatzaile ageri zaigu egilea, inguru-barneko horiek guztiek inongo *benetako* indarririk ez bailuten.

«Basamortuan bidaiatzean», idazten du egileak, «gauza batez izan daiteke ziur: ezin da ezertaz ziur izan, eta, are guttiago, norberaren bidai-lagunez. Bidai-lagunik ez-ziurrenak gudan –nondik datozen ez dakigula– pizturiko pentsamendu eta nahikundeak bide ditugu, beti eta beti beren ipuinak eta kontakizunak harilkatuz doazkigunak, hari-sare horretan hersten gaituztelarik.

9. Hala ere, Sirdar Ikbal Ali Shah-aren testuari «alaitasuna» dei genezakeena dario: inguru-barneko gauzekiko desatxekimendu eta aldentze horrek ez du inolako bide garratz edo suminetara bultzatzen, baizik eta hamaika gau den bizitza-bidaia errotik maitatzera.

Begirada berezia da Sirdarrena, eta gertakizunen aurreko jarraera ez-arrunta: ez du helmugarik begibistan:

Funtsean, joan –da– etorrikoaren filosofia honokoa da: ez du helmuga zehatz batera ailegatzeko bidaiatzen; mugitu eta aurrera egin egiten du, besterik gabe.

Honelako jarrerak –egileak berak aitortzen duenez– eroarena lirudike, edo, behintzat, gure ohituren aurkakoa nabarmenki.

Sufiek erabilitako ipuin batean kontatzen zaigu nola Mahnun izeneko printzea Layla izeneko emakumeaz maitemindu den. Ondorioz, Mahnunek ez du bere gogoan Layla baino, eta jateari eta lo egiteari berari utzi egin die, gau eta egun basotan barrena noraezean dabilela, eta bere osasuna gero eta okerragotuz. Mahnunen aita, Errege, alegia, kezkatzen hasia da, eta Layla delakoa ekar diezaioten eskatu du, uste bai baitu Laylaren edertasunak bultzatu duela Mahnun dagoen egoerara. Ekarri diote, eta Errege-ri ez zaio hain eder eta goxo iruditu, eta halaxe esaten dio Mahnuni. «Laylaren benetako edertasuna eta goxotasuna sumatzeko», erantzuten dio semeak aitari, «Mahnunen begiekin begiratu beharko zenioke».

«Layla»-k *gau* esan nahi du, eta «Mahnun»-ek *ero*: «ero» baten begiak eta bihotza behar dira basamortuko gau hau erabat maite izateko, basamortuan noizean behin ageri diren amets-miraguneez beren ipuin-irudietan harrapa ez gaitzaten.

JON BALTZA

Henri BOREL. 1992. *Wu Wei*

Bartzelona: Obelisco

1. Azken aldiotan, batez ere 2. Gerra Handiaz gero honetan, «iniazio-literatura» edo «literatura iniazitakoa» izendatutuko generoa nabarmen berreiatu zaigu sartalde gurean. Ez dakit etiketa hori egokia ote zaion, ez bainago ziur *label* horrek bere magalean babesten dituen milaka orrialdeetarik gehienek aldeztatik go-goan hartu eta iraulitako egitasmoa betetzen ote duten. Seguru aski, eta antzinako aforismo bat erabiliz: «Urre izunik baldin bada, egiazko urregorrik badelako da», esan litekeena zera da: iruzurrezko testu anitzen artean badela baliagarri gerta lekigukeen testurik.

2. Halako literatur-motaren eskema tipikoa nahiko ezaguna dugu: kontakizunaren protagonistak, «Ezagutza» edota «Jakintza» bila dabilela, edo beste zioaren batek bultzatuta ibilaldi luze-txoren batean abiatu dela, jakintsuren batekin edota jakintsualde edo komunidaderen batekin (edo, maiz, ekidiezinezko «eskuizkribu aintzinako»-ren batekin) egiten du topo. Topo egite honen ondorioz, protagonista aurretik ezagutugabeko zenbait gauzaz jabetzen zaigu, eta, agian garrantzitsuagoa dena, zenbait *esperientzia* izaten ditu: izan ere, esperientzia hauek zenbait baitiote «ezagutza» berria.

Nork ez du ezagutzen Carlos Castanedak idatzitako zikloa, zeinean Don Juan izeneko azti yaki batek «ezagutza-arlo» berezi batera bultzatzen baitu Castaneda bera? Nork ez ditu ezagutzen

The Celestine Prophecy (españolez *Las nueve revelaciones* tituluz itzulia, gero *hamargarren* bat erantsi zaiolarik), Gurdjieffen *Rencontres avec des hommes remarquables*, Ouspenskyren *In Search of the Miraculous*, eta hamaika antzeko? Den-denak goian aipatu eskema tipikoari darraizkio, den-denek balizko ezagutza delakoaren zantzuak aurkezten dizkigute, den-denek ate berriren zabaltzai-leak dirudite.

3. Iruzingarritzat hartu dudan testua –*Wu Wei*– ildo beretik doakigu, egituraren aldetik behintzat: protagonista Txinaraino ailegatzen da (liburua Txinan bertan hasten da), Txinako itsasoan dagoen uhartetxo bateraino, eta hantxe bertan, muino baten ton-torrean bizi den jakintsu txinatar batekin egiten du topo. Zer da jakintsu honek dakiena? Batez ere, aintzinako Txinan sortutako Tao delakoaren arabera filosofiaz-edo blai bizitzen. Bizimodu «taozale» (agian hobeki *taozulo*) honek bere ezaugarri propialak ditu, bere bide eta bidezidor ezkutuak, eta, hain zuzen ere, bizi-modu eta bizibide hauetan abiarazten du jakintsuak protagonista.

4. Abiatze hau hiru ataletan kontatzen zaigu, esanguratsu diratekeen hiru iltze-kontzeptuk izenburutuak: «Tao», «Artea», eta «Maitasuna», hurrenez hurren. Hiru atal hauek, ordean, liburua-
ren beraren izenburuak tintaturik ageri zaizkigu: *Wu Wei*, izen xume hori liburuan kontatzen zaigunaren mamia eta hiru atalen bilbea bailitzan.

Wu wei hori era askotara itzulia izan da, hitzez hitz «ez-egite» baizik esan nahi ez duela: beraz, bai «Tao», bai «Artea», eta bai «Maitasuna» ere, *ez-egite* horren ikuspegitik azalduko zaizkigu, hiru iltze-kontzeptu horiek, *ez-egiterik* ezean, gatzik gabeak bailiren.

5. Protagonistari (Sartaldetar nabaria den aldetik) onartzea edo endelegatzea gehien kostatzen zaiona *ez-egite* horren bidea dugu: nola onetsi, nola ulertu eta konprenitu, bat-batean, Men-

debaldearen ustezko kultura sustraietatik hain urruti dirudien *ez-egitea*? Protagonistak (eta, ene ustez, honetan gu guztion irudizen liteke) *ez-egitea pasibitatez* hartzen baitu, mundu arrunteko gertakari arruntetan parterik ez hartzetzat jotzen du. Horrelaxe (gaizki) ulertuak izan baitira «Sortaldeko filosofiak» izenpean bildu izan diren Ekialdeko bizitzabideak: nork bere zilborraren behatzaile huts bihurtu behar balu bezala, «eztakit zer egoera ez-mundutar» batera ailega ledin.

Oso bestelakoa dugu, aitzitik (liburuko *taozuloak* protagonistari argitzen dionez) *wu wei* edota *ez-egiteak* eskaintzen eta eskatzen duena.

Hasteko, eta uste izaten den ez bezala, *ez-egiteak* arrunta baino arruntago izatea eskatzen (eta eskaintzen) digu. Bai horixe: gure ekintza eta egitate guztiak guk geuk *geurez* burututakoak nahi izaten ditugu, eta honi «aukeratze-gaitasun» edo «askatasun-eskubide» edo antzeko zerbait deitu izaten diogu. Orain, gure «aukeratze-gaitasunak» zera behar du: gure aurrean hautabideak zabal daitezen, aukeratzeko guttienez *bi* elementu izatea («ez -eta- bai» kirola jolasterik izan dezagun). Aukeratze horri «egitea» deitzen diogu, eta *ez-aukeratzeari* «pasibitatea» edota «*ez-egitea*»: guretzat, *hautatzea* munduko gertakari arruntetan parte hartzea dugu.

Bada, ordean, arrunt izate hori baino arruntagoa datekeen zertxobait: aukerarik ez izatea, hautabide *bakarra* (hautatzerik ez, beraz): «natura» edo «izadi» deitutakoan gertatzen den bezalaxe. Hauxe dugu *wu wei* oinarriztat hartzen duen bizitzabideak eskaintzen (eta eskatzen) diguna: aukerarik ez izatea, bide bakarra den izadiari jarraitzea, beronekin harmonizatzea eta sintonizatzea.

Gure «egite» eta «ekintza» arruntak, *taozuloen* ikusmoldetik begiratuta, harmonizatze eta sintonizatze horrekiko *interferentziak* besterik ez lirakeke. Alde honetatik, *wu wei* edo *ez-egiteak* ez

du inongo «pasibitate»rekin zerikusirik, baizik eta ekintzarik ekinkorrenarekin: «geurez» egiteari uztea, «berez» egitean zingoratzeko.

6. *Berezkotasuna* baita bizirik dagoen orenen muina:

Zergatik egiten du hotsa itsasoak? Zergatik aritzen da txoria txioka? Ba al dakik, seme?

Aita, ezin dezakeelako besterik egin, behartuta baitaude. *Wu wei* da. (40.or.)

Ikasbidean barrena, gure protagonista jabetu bide da *sekretuaz*: den dena berez gertatzen da, eta munduko gauza guztiak (harriak, landareak, planetak, animaliak, unibertso osoa) berezkotasun horretara makurturik mugitu eta aldatu egiten dira taigabe.

Gizakiaren betebeharra litzateke, beraz, galdu duen (edo, behintzat, jabetu gabe dagoen) sintonizatze hori (ber)eskuratzea edo (ber) barneratzea: bere baitatik baitatorkio berezkotasunaren arbera bizitzeko behar duen oro, eta (ber)barneratzearen bidezidoretik pixkanaka-pixkanaka abiatzeko ez-egitearen bidetik jo beharra dauka.

7. Bertsolaritza eta bertsolarien jokabidea datozkit gogora: bertsolariek *etorriaz* edo *jarioaz* hitz egiten baitute. *Etorri* zein *jario* horrek ematen bide die bertsolariei bertsoak erraz eta egoki botatzeko ahalmena. Bada, *wu wei* edo ez-egitearen araberako berezkotasuna antzeko zer bait litzateke: bizitzaren beraren *etorri* zein *jarioari* entzutea, berorrekin bat egitea edo, agian hobeki, bat eginik gaudela konturatzea.

Izan ere –liburuko *taozuloak* kontraesangarriki argitzen duenez–, ez-egitea *seriotan* hartu beharra baitago: bizitzari berari gure baitan dantza dezan utz diezaiogun, ezinezkoa omen zaigu bizitzari dantzaraztea. Jarioa edo etorria benetakoa izan dadin (hau da, benetan *jario* eta *etorri*) ezinezkoa zaigu (bertsolariek ongi dakitenez) behartzea: datorrena eta dariona ezin liteke behartu,

ezin liteke gure gurarien mende jarri. Gure gutuzien mende ipini gura izate hori *egitea* bai baita: *ez egitea* bera lortu nahi izatea *egitea* bai baita. *Tao* eta wu *weira* iritsi ahal izateko, *berez* iritsi beharra baitago: *berezkotasuna*, beraz, berez akobitzen ahal da, ez bestela:

Tao gugan dago. *Tao* hutsarte-atsedena da. Beraganaino hel gintezke, soilik heldu nahi izateari utziz gero. (18.0r.)

8. Gaur egungo mugimendu ekologistari ongi baino hobeki letozkioken gogoetaz beterik dugu liburua.

Ba omen da –taozulo hauen ariora– unibertso osoan berez antolatzen den zerbaite: antolaketa horren funtsak edota iturburuak ez du izenik –ezin lezake izenik izan–, ez du irudirik, ez du soinurik, ez du usainik: izen, irudi, soinu eta usain guztien sorgu-nea baita. Huts-gunea bera baita, non eta zer guztiak, nahiz eta guri iraunkorrak iruditu, taigabe bilakatzen (ageri eta desageritzen) ari omen baitira: izenik emateagatik, *tao* deitzen diote: *bidea*. Bide hori ezin daiteke bidera, antolaketa hori ezin daiteke antola: bidea *wu wei* bera dugu, *ez-egitea*. Beraz, egitasmoak eta planak asmatu beharrean, egitasmoz eta planez beteegia dagoen mundua berorietaz hustu egin beharra daukagu (politikariek egin ez bezala: oraintxe bertan, hauteskundeen garaian, ikus baitaiteke nola ugaltzen dituzten egitasmoak eta antolaketak, hiri eta herriak balizko antolaketa horien mende jartzen dituztelarik –herri-lanak eta–, benetan hankaz gora ipiniz eta egiazko *kaos* batean murgilduz).

Kepa ALTONAGA. 1998. *Folin markesa: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan*

Usurbil: Elhuyar

Liburu zinez originala da Kepa Altonaga irakasleak eskuartean utzi diguna. Zientzia-dibulgazio lan honetan hainbat arlo ederki bildu eta uztartu ditu (biologia, geografia, antropologia, literatura, geologia, historia eta beste), irakurgai mamitsu bezain gozagarria gertatzen delarik; egun hain estimu handia duen diziplinartekotasunean murgiltzen da, beraz, maisuki murgildu ere. Altonagaren abiapuntua Folin markesa, XIX. mende hondarreko malakologo –hots, marraskiloen ikertzaile– frantsesaren hipotesi bat da, alegia, markesak Baiona inguruan bildutako lau marraskilo-espezie ez ziren European arruntak eta, areago dena, Ameriketako espezie batzuen antz handia zuten. Folin-en azalpena berehala dator: marraskilook jatorri komuna zuten, behiala Amerika eta Europa lotu zituen Atlantida galdua; horrelaxe heldu ziren Euskal Herrira.

Lehen kapituluan («Folin aitzakia», 15-64. or.) Altonagak Folin markesaren bizitzaz eta lanez dihardu, Euskal Herriko egonaldian eta bertan burutu zituen ikerketetan arreta berezia ipiniz. Aldi berean, XIX. mendeko naturzientzien aurrerapen batzuk agertzen dizkigu, hala nola Darwin-en eboluzionismoak plazaratu zituen kezka eta ikergai berriak, hurrengo hamarkadetan kreazionista, lamarcktar eta enparatuekin lehia biziak sortaraziko zituztenak. Folin-i, Darwin-en eta Lamarck-en zantzuak agertzen baditu ere,

funtsean Agassiz-en kreazionismoaren jarraitzaile deritzo Altonagak.

Bigarren kapituluak («Alegiazko irla», 65-105) Atlantidaren mitoa aurkezten du. Platonen aurreneko aipamenetik abiatu eta azken aurkikuntza geologikoetaraino, Altonagak Atlantidaren inguruko hipotesiak, proposaturiko kokapenak,¹ «gizateriaren gan sortu duen faszinazioa» (77. or.), garaiko teoria zientifikoetan lortu zuen lekua eta funtzioa –eboluzionismoaren ondorioztat hartu zen zubi interkontinentalen beharra, Lemuria esaterako– eta egindako kritikak maisuki eskaintzen dizkigu.

Hirugarren kapitulua («Marraskiloen atzetik», 107-142) teknikoena da, marraskiloen sailkapen arazoei eskainia baitago. Nolanahi ere den, ez dira falta biodibertsitateak pairatu mehatxuaren gaztigua eta, hortaz, espezie guzti-guztien sailkapenari zor zaion arreta handia. Altonagak ederki azaltzen digu, marraskiloei buruzko xehetasunen artean, nola erabili ziren molusku hauek artean lur-zubiei buruzko hipotesiak bermatzeko, Atlantida eta Lemuriaren alboan Gibraltarreko itsasartea «irekiberritzat» zuena, kasu. Ildo horretatik, hemen aurkezten zaizkigu, zehatz-mehatz aurkeztu ere, Folin-ek aurkitutako lau espezie exotikoak eta euren gaurko egoera. Orogen buru, markesaren ondorio guretzat xelebrea orduko iharduera zientifikoaren barnean zeharo ulergarri eta sinesgarri bilakatzen zaigu.

Laugarren kapitulua («Zer gara gu, nor gara gu», 143-192) artean azaldutako puzzlea osatzera dator. Azken pieza «euskaldunak» dira; Altonagak erakutsi gogo du Folin-ek Atlantida euskaldunei atxikitzeak haren hipotesia ahuldu barik sendotu eta argitu egin zezakeela. Markesaren iturri bibliografiko aipatugabeak miazteko asmoz, Altonagak euskaldunen jatorriari buruz ordurarte plazaratutako teorien atzeranzko bidaia batean murgiltzen gaitu, «konexioren baten bila» (149). Ikus dezagun lasaixe Altonagaren

ibilbidea: Abartiagarengandik Arana Goirirengana eta abandotarrarengandik Xahorengana joanez, azken honengan aurkitzen du hipotesiaren lehen abiapuntua. Folin-ek Xahoren lanak irakurtzeko aukera izan bazuen ere, Altonagak hiru konexio hurbilago proposatzen dizkigu –Folin-ek zuzenean ezagutu zituen Vinson, Webster eta Abbadia– bai eta dudazkoago bat, Élisée Reclus geografilari anarkistaren artikulua bat, hain zuzen. Hala ere, Folin-ek Garat-en *Origines des basques* (1869) irakurri eta kritikatu baitzuen, Altonagak –liburuaren egilea Garat senadorea ez beste bat izan zela ohartarazi ondoren– haritik tira egiten du berriz ere eta Iharce de Bidassouet, Darrigol, Baudrimont eta Astarloaren ideietan barrena (euskara munduko lehen hizkuntza) abiatzen da. Ondoren, gaurko «lunatikoen koadrilan» Atlantida eta euskaldunak lotzen dituen iritzi franko aurkitzen ditu eta, jatorriak jatorri, euskal apologigileen tubalimotoik Humboldt eta Schuchardt-en eusko-iberismora doan bide ezaguna birpasatzen du, bidenabar XIX. mende hondarreko euskalaritzaren giroaren berri emanez. Kapituluak amaitzen da orduko antropologiak gizakiaren jatorriari buruz uste zuena azalduz, Aranzadiren eta Barandiaranen Cro-Magnon txistularia bere testuinguruan kokatzeko asmoz.

Liburua bibliografia zabalak eta izen eta gaien aurkibideak ixten dute.

Istorio erakargarri bezain korapilatsua benetan marraskiloak, Atlantida eta euskaldunak biltzen dituen hau. Guztiarekin ere, Altonagaren kontakizunaren haria oso ongi jarraitzen da, teknizismoak gorabehera. Horretarako lagungarri apartak suertatzen dira kapitulu bakoitzaren hasieran eskaintzen dizkigun laburpen-iragarpenak; eta irakurlearen motorrerako erregai bikainak, orobat, han-hemen ttantaka gaurko literaturari –zientifiko zein fantastikoari– egiten dizkion bisitaldi arinak.

Altonagak ahalegin handia egin du euskaraz landugabeko zien-

tzia-dibulgazioaren genero honetarako idazkera egokia bilatzen eta hein handian lortu ere du. Hiztegi ikaragarri aberatsa darabil, estiloa arina eta irakurgarria. Halaz guztiz, zenbaitetan kolokiale-gia deritzot. Zientzia-dibulgazioak, ene ustez, hizkuntzaren maila jasoa gorde behar du, nahiz eta hitz tekniko bortitz, formula zail eta gainerako berezitasunez arindu, jakina. Hortaz, norberaren gustuen arabera neurtzeko da, agian, *-(e)neko*, *-(e)laren* eta *-(e)laz* egituren edo *inkluditu* eta *plasmatu* bezalako mailegu gordinen erabilera gehiegizkoa. Baina *ze*, *leidu*, *txirene* (*passim*), *txutxu* (74), *koiuko* (85), *justu kontrako* (112), *txiripa* (156), *gatxa* (159), *aputxurratu* (162), *parraplada* (167) edo *flashatuta* (168) bezalakoak erabat lekuz kanpo begitantzen zaizkit. Bestetan, nago Altonagak apustu ageria egin duela euskara baturako Euskaltzaindiak hartu dituen zenbait erabakiren kontra, ez atzokoak gero: *ba* baiezkoa bereiz idatzi, *batzu*, *eritzi*, etab., horietako zenbait Leioako zientzi irakasle batzuen aspaldiko lehiak direla: kontsonante aurreko *x* (*textu*, *exploratu*, *explikatu*,...) edo *projecktu*, adibidez.

Ezin dut aipatzeke utzi liburuaren hornidura grafikoa: liburuan zehar argazki ugari –non protagonismoa partez zientzilariek, partez euskalariek, partez moluskuek hartzen duten–, beti egoki kokatuak eta oin zehatzez apainduak sakabanatzen dira, irakurketa are interesgarriago eta arinagoa gertaraziz. Ene aburuz, argitalpenaren akats bakarra hautatu paper dizitirsua da, bertan oharrak hartzea eta liburua argi artifizialez irakurtzea ia ezinezko egiten duena.

Ene ikuspuntutik, filologilari baten ikuspuntutik alegia, zilegi da pentsatzea Altonagaren liburu osoa lan filologiko baitezpadako bat besterik ez dela, ez gehiago ez gutxiago. Izan ere, berrehun bat orrialde eskaini ditu Folin-en hitz batzuen esanahia (62. orrialdearen hasierako pasartekoak) azaltzeko eta gaurko irakurleari ulertarazteko, bertan agertzen diren kontzeptuak eta ideiak argi-

tuz eta idatzi ziren garaiko testuinguruan kokatuz. Ez al da hori filologiaren eginkizuna? Ildo honetatik, esanguratsua deritzot ematen duen ozeanografiaren definizioari: «izatez ozeanografia ez da horrenbeste benetako zientzia bat, baizik eta ozeanoaren ulerkerarako bestelako zientzien aplikazioa» (22). «Ozeanoa» kendu eta «testuak» ezarri, *voilà* filologiaren definizio ezin zehatzagoa!

Baina oroz gainetik liburua desafio ausarta bezain ongi burutu da. Gurean hain agorra izaten den saiakera generoari –are agorrago den zientzia-dibulgazioarenari– adorez ekin dio Altonagak eta emaitza gogobetegarria utzi digu Folin markesaren inguruko «historia eta istorio ehundu» (11) hauetan. Jarraipena izango al dute!

1. Amerika, Suedia, Arktiar Ozeanoa, Britainiar uharteak, Palestina eta Ipar Afrika. [...] Hego Afrika, Nigeria, Australia, Frantzia, Sardinia, Sudan, Malta, Ekialdeko Prusia, Siberia, Groenlandia, Kaukasoa, Herbehereak, Belgika, Krimea, Irak, Iran, Brasil, Bahamak zein Ozeano Indiko eta Pazifikoan. Hauei Kartago, Tartesos eta Kreta minostarra erantsi behar zaizkie. (76. or.)

JUANJO OLASAGARRE

Joxean AGIRRE. *Elgeta*

Kutxa Fundazioa

Nola idatzi amodiozko Historia bat tartean duen eleberria julio-iglesiaskeriatan erori gabe? Nola idatzi antiheroi erromantiko baten bizitza erridikuluaren apurrik ere erakutsi gabe? Nola idatzi amodioari buruz, milaka liburu eta liburu bete dituen gaia, orain arte esandakoei ñabardura berriak erantsiz? Nola idatzi gure aiton-amonen Euskal Herriari buruz lilurarik gabe, idealizaziorik gabe, gutxiespenik gabe?

Bada enfasirik paratu gabe, urrunduz.

Eleberri honetako balorerik nanbarmenena ez da kontatzen zaiguna, edo eleberriaren gaia, edo pertsonaien erabilkera, edo egitura, horiek guztiak ere bereziak baditu ere, eleberri honetako balorerik behinena zera da: hari narratzailearen alde kutsakorra nola hesien barnean gorde eta OULIPOren hertsadura bailitzen hesitu horri eta maitasunaren gai itsaskor, koipetsu eta zailari etekinak atera.

Eleberriak Elgeta, Jacinto Rivasen bizitza kontatuko digu, haren bizimodu gogorra, haren inongo ez izatea, haren deserrotzea eta haren bakardadea; honek hartzen du zati nagusia, amodio desgraziatua Teresarekin, Teresak, Teresa guzतिक bezala, alde egin baitzuen Elgeta bakarrago utziz betiko.

Hau dena kontatzeko Joxean Agirrek hiru aldiz iragazi digu kontatzailearen ikuspuntua: eleberria iraganeko pasadizu behinen ondoren ezagututako Elgetaren argazkilari lagun batek kontatuko digu. Lehendabiziko iragazialdian argazkilariak –ofizioaren aheak– argazki-makinaz iragaziko du errealtatea eta errealtate hori kontatzeko modua (bigarren iragazialdia); eleberriko zenbait pasadizu ez dira narratzaileari, argazkilariari berari gertatuak baizik eta beste norbaitek Elgetak gehienetan, hari kontatuak. Horretan kontatzaileak guri kontatuko dizkigu, entzundakoak direla azpimarratuz (hirugarren iragazialdia). Hitz batean esateko, narratzailea kontatzen ari zaigunarekiko sentimenduz diharduen eleberria izanik, urrundu egiten da, xentimentalkeria ekidinez. Horrela, narratzaileak Elgetaren bizimodua bergogortzeari ekiten dionean, Joxean Agirrek iragazgailu sintaktiko anitzez matizatzen digu esanen diguna: eman dezagun adibide bat, ia ausaz aukeratutakoa:

Horrela ikusi zutenek diotenez, iheska bezala ibiltzen omen zen edo itzal-gaizka, bien mundura ustekabean agertu eta berriro itzultzeko bide bila dabilenaren tankeran, pentsatu nuen nik.

Paragrafoa iragazgailurik gabe horrelakoa zatekeen: horrela ikusi dutenek diote iheska ibiltzen zela, itzal-gaizka, bien mundura ustekabean agertu eta berriro bide bila dabilenaren tankeran. Baina Agirrek historia urruntzeko asmoz zerak sartzen dizkigu tartean: diotenez, omen, bezala (iheska ez da iheska bezala, zehazgabeagoa da bigarrena eta urrundu egiten du definizioa), pentsatu nuen nik (nolabaiteko zehaztasuna kenduz esaten ari denari). Eta horrela etengabe: Edoak aurkituko ditugu, omenak ugari, diotenez-ak maiz, ezezko osagarriak, beharbadak, agianak... nolabait testuan esaten ari zaiguna laugarren eskuko informazio balitz bezala erabiliz, lausotuz, urrunduz eta aldi berean istorio antzinako eta mitikoa sortuz.

Argudioaren haria kontatzeko orduan ere, Agirrek ez digu eleberri honetan hasierakoa hasieran eman eta bukaerakoa bukaeran, Saizarbitoariaren ildotik «ez da zertan historia bat hasieratik kontatu». Lehendabiziko kapituluek argumentuaren bukaera kontatzen digute, Elgetaren ehorzketa eta hortik aurrera etengabe atzeraka-aurreraka dabilen argudioa osatuz joango zaio irakurleari. Pentsa daiteke, beharbada, eleberria argazkilariak Elgetaren hiletetan pentsaturikoak osatzen dutela, edo argazkilaria Donostian egurasten dabilen bitartean hausnartutakoak, edo lagun bati taberna batean kontatutakoak. Horren barnean argazkilaria ibilerak daude: haren harremana emakumeekin, haren harremana balizko Teresa batekin, Elgetarekin, hark ikusten dituen eszenak (17. kapituluak esaterako beste maila bat emanen dio eleberriaren irakurketari ezen karrikan doan bikote mozkortu hori ez dira Teresa eta Elgeta, baina, izan izan zitezkeen, hala nola nornahi izan zitezkeen moduan), joko dioten jipoia...

Eta horrekin batera izanen dugu Elgetaren bizitzarekikoak, Argazkilaria ahotsaren bidez emanak. Adabakiz, oritzapenez eta oraineko gertakizunez emanen zaizkigun Elgeta eta Teresarekikoak: Alegia Elgeta deserrotzearen umea dela, umezurtz-etxeakoa dela, guda galdu eta heriotzara kondenatutakoa, lagunak hiltzen ikusi dituena, galbidean den mundu bateko partaide baztertua, ofizioz trikitilari izanik festa kanpotik ikustera behartua dagoena, maitatu zuen emakumeak alde egin ziona, Donostiako Alde Zaharrean diru truk jotzen duen eskalea, ulertzen ez duen mundu batek bakardadera kondenatutako gizakia, eta azkenik lur saildua ehortzi nahi izanen ez duten hilotza. Bazterketa. Bazterketa da Elgetaren patua. Eta patua da, eleberrian esaten den bezala, ezen denok ez baikara patua izateko gauza (jende arruntok bizitza baino ez daukagu.) Bi plano horiek: argazkilaria bizi-tzari dagokiona eta Elgetaren bizitza dagokiona, bat egiten dute azkeneko eszenan non argazkilariak Elgeta hilaren lekua betez

larrua joko duen Teresarekin ehorzketa bukatu ondoren, «Elgeta! Elgeta!» garrasien artean.

Elgetari dagokion pasadizuak, hainbeste bazterketa eta deserroitze, alegia, gehiegikeriak iruditu litzaizkidake beste mota bateko eleberri batean, zeren Elgeta pertsonaiak heroi erromantikoari dagozkion topiko guztiak betetzen baititu. Baina honetan ere, lehen estiloari buruz esandakoak berritu beharko genituzke, urruntasuna, enfasirik eza: Elgetari dagozkion desgrazia piloa ez daude batere azpimarraturik, esanik baino ez daude, argazkilariaren bidez esanik, sentimenduak ez daude, bolero txarretan gertatu bezala, pertsonaien ahotsetan baizik eta generalizazioz eta modu orokorrez emanak daude, ez daude NI baten menpe; modu horretan pertsonaiak zeharka bezala ukitzen dituzte. Une bakarra dago, nire ustetan, idazlearari eskua joan zaiona: Teresak, Madrildik hamar urteren buruan itzuli eta gero, Elgetari aspaldiko amodio haren izenean salba dezala eskatu ondoan Elgetak ezetza ematen dionean: Honela kontatuko zaigu:

Teresa abere zauritu bat bezala jauzi omen zen lurrera astiro baina dohakabeki, bere eskuekin gizonaren arropak atzamarkatuz eta Elgetaren orkatilei helduta geratu omen zen lurrean, kupidarik gabe negarrez, suspirioka, errukari.

Patetikokeria azpimarraturik dago, azpimarraturik dagoenez: Teresa lurreraino eroriarazi du idazleak, behin lurrean eginaraziko dio negar, eta negar gutxi balitz suspirio eta erruki.

Zorionez mota honetako eszena bakarra dugu hauxe eta Jose Antonio Agirrek egindako lanaren tamaina ematen digu zeren erakusten baitigu zertan izan zitekeen gai honetako eleberria narraizalearen ikuspuntua, estiloaren urruntasuna, sentimenduen iragazketa honen estuki bridatu izan ez balitu.

Esanahiaren aldetik esan beharra dut nik boleroak biziki maitate ditudala, are gehiago bolero horiek enfasirik gabe kantaturik daudenean.

Kontatzeko moduak argi berriz janzten ditu eleberrian zehar ageri diren ezpalak: deserrotzea, bakardadea patu gisa, amodioaren kondena, gure arbasoek bizi izandako munduaren galera, artearen balorea gizarte mota horretan, keinurik gabeko gizartearen mututasuna, Euskal Herria gartzela gisa, amodio-objektuaren definizioa, emakumeen kategorizazioa, gizakion gora nahia, amodiozko errenuntzia, gure aiton-amonen munduaren krudela, desioa, bazterketa, galtzaileen duintasuna, amodioaren esanahia eta abar eta abar...

Baina horiek irakurleak aurkitu beharko ditu, nik hona ailegaturik eleberriaren nire definizioa baino ez diot emanen: Joxan Agirrek idatzi eta Mikel Laboak kantaturiko bolero zoragarria.

IBAN ZALDUA

Andoni EGAÑA. 1998. *Pausoa noiz luzatu*

Irun: Alberdania

Adiskide batek Andoni Egañaren lehenengo lana oparitu zidanetik (*Sokratikoek ere badute ama*, Erein, Donostia 1989) bere hurrengo narraziolanaren esperoan egon naiz. Irakurleok, ordea, ez dugu zorte gehiegirik izan: Jon Sarasuarekin batera argitaratutako *Zozoak beleari* (Alberdania, Irun 1997) gutunizketan azaltzen ziren Krexentxioren balizko eleberriaren pasarteetako zantzuez aparte, ez dugu aukerarik izan lehenengo lau ipuinen bilduma hartan erakusten zituen hizkuntz aberastasunaz, ironiarako joeraz eta anekdota garatzeko trebetasunaz gozatzeko. Oraintsu arte, alegia. (Aukerak izan dira, noski, ugari gainera, baina, bertsozale ez naizenez ez diet onura handiegirik atera.) (Eta adierazpen honen ondoren –eta ondorioz– anatemapean nagoelako ziurtasunaz, hel diezaiodan, behingoz, gaiari.)

Itxaronaldia itzal handiko lan batek hautsi du: *Pausoa noiz luzatu* eleberriak. Liburu eskuzabala da, 282 orrialdetako; alde horretatik, beraz, ez dugu Egaña prosaegilezaleok kexatzeko arrazoirik. Hamazazpi ataletan banatua, bat-bateko kontsumorako eleberri errazen eskemetatik kontzienteki urruntzen saiatzen den lana dugu. Zinez harrituko nintzateke 1998ko literatur uztari dagozkion sari nagusien arteko bat bederen eskuratuko ez balu.

Eleberriak Kandido Labakaren istorioa kontatzen digu, bi plano ezberdin tartekatuz. Horietako bat 1960 urtean kokatzen da: Frai Kandidok, Zarauzko Lanbide Eskolako buruak, Madrilera joan behar du ikastetxeari eman dioten saria Estatu-buruaren eskuetatik jasotzera. Bigarren planoak hogeita hamar urte atzera garamatza, Labaka sarjentua Errepublikaren aldeko Jakako matxinada militarren partaide izan zen garaira; porrot itzela (baina aldi berean II. Errepublikaren atari) izan zen ahaleginaren kondaira eleberritua dakarkigu Egañak.

Planoak tartekatzen direla esan dut, eta hala da: atal bakoitzak bestearen ispilu gisa funtzionatzen du, 1930etik 1960ra eta 1960tik 1930era salto eginez narrazioan aurrera egiten dugularik. Helburua Kandido Labakaren izaeraren eta portaeraren nondik-norakoak eta sustraiak azalratzea da. Alde horretatik, eleberraren egitura handizalea da: une biak maisuki nahasten dituen sarrerako lehenengo atal baten ondoren, 1930-1960 denbora-planoen dantza hasten da. Lehenengo, atal bikoitietan zehar, Galán eta García Hernández kapitainek zuzendutako Jakako altxamenduaren eta haren porrotaren disezioa egiten digu Egañak, pausoz pauso, 1930eko abenduaren 12tik 15era (epilogo moduko bat gehitzen dio, hamaseigarren atalean); kapitulu hauetan hirugarren pertsona erabiltzen du narrazioaren gidari gisa.

Atal bikoitietan, ordea, lehenengo pertsona da nagusi, eta diskurtsuek 1960ra garamatzate. Ahots ezberdinek Frai Kandido Madrilera abiatu aurreko orduen kronika bitxia egiten digute, eta beti ere haren izaera, historia eta zioen gainean: zergatik onartu du diktadorearengandik saria jasotzea? Zergatik sartu zen komentura? Nondik datorkio kontraesanek beteriko nortasuna? Zer dago Frankori daramakion zurezko kutxaren barruan? Atal horietan zehar Eskola inguruko pertsonaien ikuspuntu anitzak ezagutzeko aukera izango dugu: aita Goenaga atezainarena, *Pascual Duarte* itzultzen ari den fraide euskaltzalearena, sermoilari trebea izan-

dako aita Etxalarrena, Joseba ikaslearena, Inazio baratzezaintzaile legoarena, aita Urtubi konfessorearena, soin-heziketaz arduratzen den falangistarena. Azkenengo atalean (hamazazpigarrenean) historia biek bat egiten dute, eta elebriaren askaera eskaintzen zaigu; ordurako, ordea, irakurleak narrazioaren berreraikitze prozesu propioa eraman behar izan du aurrera, atal batzuetan eta besteetan Egañak tantaka eskaini dion informazioa bilbatuz.

Elebriaren kritika bi ikuspuntutatik jorratu nahi nuke. Alde batetik, euskal literatura idatziari (eta batik bat prosari) egiten dion ekarpena lan honen ezaugarri sendoenetakoa dela esango nuke. Egañaren hizkuntzaren aberastasuna behin eta berriro islatzen da liburuaren orrialdeetan zehar: hitz-jokoak, metaforak, konparaketak, giro ezberdinak deskribatzeko erabiltzen dituen baliabide ugariak, zeharkako narraziorako trebezia... guztiek frogatzen dute zein puntutaraino izan daitekeen positiboa bertsolaritzairen (eta, are gehiago, bertsolaritza *moderno* baten) ekarpena literatura idatzian. (Horrekin ez dut esan nahi, noski, orain arte euskal literatura idatzian ahozko literaturaren eraginik egon ez denik). Ekarpen zuzenez ari naiz: idazle bihurtzen zaizkigun bertsolariez. Alde horretatik ondorioak itxaropentsuak direla gehitu beharra dago: hor daude Egañaren lanak, eta hor dago, esaterako, Unai Iturriagaren *Isladak* bitxia (Alfaguara-Zubia, Madril 1997) eta berriki kaleratu den (baina oraindik irakurri ez dudana) *Berandu da gelditzeko* (Susa, Zarautz 1999), eta etorriko dira gehiago. Egañak lortzen du, besteak beste, irakurleak *sinestea* Jakako militarren arteko *euskarazko* elkarrizketak, biderik errazena (*naturalismo* gehiago lortzearen, alegia) «jatorrizko» gaztelaniaz ematea zelarik; ez da hau, noski, euskal literaturan baliabide hau erabiltzen den lehenengo aldia, baina egileak asmatu egin duela esan beharra dago. Egañaren lan honi, akaso, batzuetan hitz-jokoetarako gehiegizko joera aurpegira diezaiokegu, baina ez da inolaz ere akats azpimarragarriegin; irakurlea aldean hartuta bere prosan

zehar aurrera egiteko lortzen duen aisetasuna gozagarria da benetan. Batere trabarik egiten ez duen eleberria dugu *Pausoa noiz luzatu*.

Baina, bestalde, eta gustura irakurtzen den eleberri bat dela esanda, asegabe utzi nauela aitortu behar dut. Bi bloke edo planoetatik ezin ezkutatu 1960ko pasarteak direla gehien gustatu zaizkidanak: ahots ezberdinak maisuki moldatuta daude (definizio falta nabari zaion Inazio baratzezainarena alde batera utzita, akaso), eta ezberdinak direla somatzen da, baliabide hori erabiltzen duten euskal idazle guztiei buruz ezin esan daitekeen zerbait; eleberri honetan egokia da, eta Egañak ondo baliarazten du. Alde honetatik, falangistarena bezalako kontakizunak gozagarriak dira oso. Mementu historikoaren zatikako erradiografia zorrotza lortzen du Egañak lehenengo pertsonan idatzitako atal hauetan, 1960ko garai harekiko nolabaiteko *enpatia* erakutsiz. Emaizta, ezbairik gabe, bikaina iruditu zait.

Ez zait gauza bera gertatu, ordea, 1930eko pasarteekin. Ez historikoki gaizki oinarrituta daudelako: akats benetan xume batzuk alde batera utzita (esaterako, «estraperlo» hitzaren erabilera anakronikoa), alde horretatik dokumentazio eta girotze-lan sendo bat dagoela aipatu beharra dago. Egia esan, kontakizunaren gaia (gaizki prestatutako errebolta baten gorabeherak, zutabe militarren euripeko martxa patetikoa hondamendirako bidean) ez da bereziki ikusgarria, eta, linealegia izateaz gain, grisa suertatzen da; Egañak ez du kasik ironiarik erabiltzen, adibidez. Akaso ezin zen bestela egin, baina emaitza estatikoegia dela iruditzen zait, eta bizitasuna falta zaiola, oro har. Hala ere, Egañak esanahi eta sakontasun handiko eszena batzuk lortzen dituela gehitu nahiko nuke, Errepublika garaiaaren hasieran Galán eta García Hernández-en omenez eskaintzen den antzerki-emanaldiarena, esaterako, edo Galán-ek kontatzen duen sentimenduen ipuinarena.

Baina, batez ere, ez da garbi ikusten (hots, nik behintzat ez dut oso garbi ikusi) bi zatien arteko lotura, eta 1930eko episodio horrek pertsonaia nagusiaren garapenean –1960an gertatuko diren pasarteetan– jokatzeko duen errola. Liburuaren eraikuntza, eskema, nahi bada, gardena da, aurreko lerroetan trakeski azaltzen saiatu naizen bezala: alde horretatik idazleak egindako plangintza-lana ukazina da. Baina iruditzen zait Jakako altxamenduaren kontakizuna gehiegi pausatzen dela Galán eta García Hernández kapitainen pertsonalitate eta gorabeheretan, eta ez horrenbeste Labaka sarjentuarenetan: matxinadan bizi izandakoak fraide izango denarengan izan zuen eragin erabakiorrari buruzko aztarna gutxi ematen ditu testuak, edo ez dira oso aztarna argiak; behin baino gehiago anekdotikoegiak direla ematen du. Izenburuak aipatzen duen pausaje-aldaketaren eragileak lainotsuegi agertzen zaizkigu, eta bigarren irakurketaldiak argitasun gehiago eskaintzen badu ere, eleberririk hankamotz uzten jarraitzen du.

Horretaz gain, 1960ko narrazioen *leit motiv* nagusia –«oparia»–, azkenean, metaforikoegi suertatzen da, eta metafora horri ez dagokio, nire uste apalean, azkenengo atalean ematen zaion ezinbesteko irtenbide errealista (zeina, halere, beste eszena zoragarririk eta izugarri ondo tratatu batean gauzatzen baita). Ondo ulertuko den bezala, ezin diot balizko irakurleari horri buruzko argibide gehiagorik eman.


Horrek guztiak ez du baliogabetzen, inolaz ere, Egañak eleberriarekin egin duen ahalegin txalogarria: erabat biribila ez bada ere, pasa den urtean argitaraturiko lanik garrantzitsuenetako bat dugu, ez bairik gabe. Lan anbizioa da, ederki idatzita dago eta pasarte batzuk benetan antologikoak dira. Eta, are inportanteagoa dena, Andoni Egañaren hurrengoari heltzeko gogoaren areagotzen du. Bizkor etor dadila.

Hegats 23/24
1999ko urrian Nafarroan
inprimatu zen



Hegats

23/24



Literaturbideak

MIREN AGUR MEABE.

Ihesaren kantua.

DENIS S. MILES.

Laguna.

Galeuzka 1998. Galizian **Literatura eta arte plastikoak**

JON ALONSO.

ITXARO BORDA.

HASIER ETXEBERRIA.

JOSU LARTATEGI.

ANJEL LERTXUNDI.

JOXAN MUÑOZ.

Kritikabideak

JOSEMARI ISASI.

*Sukaldaria, Literatura. Historia eta
futbola.*

Liburu-iruzkinak

